



**BIZKAIKO
IKASLEEN
KIROL
OHITURAK
- 2022 -**





Bizkaiko ikasleen kirol ohiturak - 2022

KOORDINAZIOA ETA EDIZIOA:

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saila.

HELBIDEA:

Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzua.

Arantza Mardaras Izarza. Javier de Maria Garcia.

IKERTZAILE TALDEA:

Ikertzaile nagusia (IP): Maite Aurrekoetxea-Casaus

Ikertzaileak Deusto Sports & Society

Erika Borrajo, Alain Garalde, Xabier Gonzalez, Lander Hernández,
Yolanda Lázaro, Danel Roa, Isabel Rubio, Eneko Sanchez eta Itziar Urkijo.

ARGAZKIAK:

depositphotos.com

DISEINUA:

Moriwase

ISBN:

978-84-7752-737-4

LEGE GORDAILUA:

BI 1375-2023

**BIZKAIKO
IKASLEEN
KIROL
OHITURAK
- 2022 -**



SARRERA

10 or.

- 14 Helburuak
- 15 Argitu beharreko gaiak
- 15 Metodologia
- 19 Egitura



HURBILKETA OROKORRA KIROL JARDUERARA

20 or.

- 23 1.1. Kirol jardueraren ezarpen soziala
Idea nagusiak
- 36 1.2. Kirol gehiago egin nahi izatea
- 41 1.3. Eskola Kirol jardueraren ingurune soziala



KIROL JARDUERA ANTOLATUA

46 or.

- 49 2.1. Datu orokorrak
- 52 2.2. Kirol jarduera antolatuaren ezaugarriak
- 61 2.3. Kirol jarduera antolatuaren denbora dimentsioa
- 70 2.4. Lehia kirol jarduera antolatuan
- 75 2.5. Kirola egiteko antzemandako oztopoak
- 80 2.6. Kirola egiten jarraitzeko asmoa
- 82 Kirol jarduera antolatuan erabilitako hizkuntza



ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUERA

88 or.

- 91 3.1. Datu orokorrak
- 95 3.2. Antolatu gabeko kirol jardueraren ezaugarriak
- 102 3.3. Antolatu gabeko kirol jardueraren denbora dimentsioa
- 111 3.4. Antolatu gabeko kirol jarduera egiteko antzemandako oztopoak
- 115 3.5. Antolatu gabeko kirol jarduera egiten jarraitzeko asmoa



KIROL
JARDUERAREN
INDIZEA

118 or.

121 4.1. Datu orokorrak



KIROLIK
EGITEN EZ DUTEN
IKASLEAK

126 or.

129 5.1. Datu orokorrak

132 5.2. Kirola ez egiteko arrazoiak

135 5.3. Kirolik egiten ez duten ikasleen kirol historia



KIROL JARDUERA
PANDEMIAREN
ONDOREN

142 or.

145 6.1. Datu orokorrak

149 6.2. Pandemia ondoren kirola egiten hasi diren ikasleek gehien egindako kirol modalitateak

151 6.3. Pandemia ondoren hasitako kirol antolatua



ONDORIOAK

156 or.

145 6.1. Datu orokorrak

149 6.2. Pandemia ondoren kirola egiten hasi diren ikasleek gehien egindako kirol modalitateak

151 6.3. Pandemia ondoren hasitako kirol antolatua

ERREFERENTZIAK

164 or.





Eskola Kirolak haurtzaro eta nerabezaro garaian hezkuntza integralean egiten duen ekarpena argia da gaur egun. Kirol jarduerak garrantzi handia du garapen pertsonala zein herritarren bizikidetzara eta parte hartzea hobetzeko balioak transmititzen eta, hori dela medio, giza garapena sustatzeko elementua da kirol jarduera; horretaz gozatu ahal izatea ez zaio ezein haurri kendu behar. Horrez gain, adin horietan kirol jarduerari lotutako esperientzien kalitateak kirola egiten jarraitzeko edo kirola egiteari uzteko ondorengo erabakietan duen eragina aintzat hartuz, eskola adinean kirol eskaintzara iristeko sarbidea ez ezik kalitatea hobetzeko ere erakunde publikoek duten kezka oso zilegi da.



0. SARRERA

HELBURUAK

ARGITU BEHARREKO GAIAK

METODOLOGIA

Neurketa tresna

Prozedura

Aztertutako unibertsoa eta lagina

EGITURA

O. Sarrera



Gizarte garaikideetan kirola egitea obesitatea zein bizimodu sedentarioegien ondoriozko beste osasun nahasmendu batzuk saihesteko eta horien aurka borrokatzeko tresnarik eraginkorrenetako bat bihurtu da; izan ere, aipatutako bizitza estilo sedentarioegiek hainbat komunitate gero eta laztzago jotzen dituzte, tartean baita eskola garaiko haurrak ere.

Espanian eskola ikasleen kirol ohiturei buruzko gaur egungo azterketek (Pasos azterketa, 2019; Pasos azterketa, 2022) argi utzi dute, lehenik eta behin, ez direla betetzen Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) ezarritako jarduera fisikoaren gutxienerako mailak, egunero hirurogei minutuz jarduera fisikoa egitean finkatutakoak. Errealitate horrek bereziki emakumeei erasaten die. Bigarrenik, haur eta nerabeek gehiegizko pisua daukate; alderdi hori bizi kalitatearekin dago lotuta, eta % 33,4ra iristen da; mutilei neurri handiagoan erasaten die. Hirugarrenik, azken hiru urteetan kezka, tristezia eta zorigaizto sentimenduek gora egin dute, eta % 19,5etik % 32,2ra igo dira; kasu honetan, emakumeei neurri handiagoan erasaten diete. Azkenik, pantailak adituek gomendatu baino askoz gehiago erabiltzen dira, batez ere asteburuetan.

Datu hauek guztiek, lo orduen gomendioak ez betetzearekin lotuta, errealitate kezkarria bizi dugula adierazten dute, eta errealitate horretan haur eta nerabeek jarduera fisikoa egitea sustatzea komeni dela, elkarrekintza sozialeko jarduerak berreskuratzea sustatzeko. Hala, jarduera fisikoa egitea faktore erabakigarri bihurtzen da bizitza estilo aktiboa lortzeko, gazteen garapen fisiko, psikologiko eta sozial osasungarria errazteko.

Hezkuntza Fisikoa, maila teorikoan bizitza ziklo osoan mugimendu jarduera, kirol jarduera eta kirol ohitura iraunkorren inguruko zaletasuna areagotzeko rol erabakigarri garatzera deitu zena, egoera gero eta ahulagoan eta zalantziagoan dago nahi-taetzeko hezkuntza sistemaren esparruan. Hezkuntza curriculumean gero eta denbora tarte txikiagoak eskaintzen zaizkio, eta, horren ondorioz, ezinezkoa da hezkuntza tresna gisa eskatzen zaizkion helburuak lortzea, eta, are gehiago, egoera sedentarioak saihesteko OME Osasunaren Mundu Erakunde bezalako nazioarteko erakundeek gutxienerako gisa

gomendatutako kirol jarduera eta jarduera fisikoaren eguneko hirurogei minutuak osatzea bermatzea (OME, 2010).

Horregatik, kirol jardueraren egoera eta eskola ikasleen aisialdian duen garrantzia ezagutzea lagungarria da erakundeek gaur egun lanerako daukaten agertokia ezagutu eta horretan sakondu dezaten. Horixe da, hain justu ere, azterlan honen helburua. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuak bultzatuta, Bizkaiko eskola ikasleen eskolaz kanpoko kirol ohiturak ezagutzea du xede, bai kirol antolatuari, bai antolatu gabekoari (librea edo espontaneo ere deitzen dena) dagokienez. Aipatutako helburua bat dator erabat Bizkaiko Lurralde Historikoko eskola ikasleen artean kirol eskaintza sustatu, erraztu, antolatu eta arautzeko foru erakundeak duen misioarekin, modu horretan, kirol ohitura sortzeko, ikasleen artean kirola egiteko aukera desberdinak asetzeko eta hezkuntza garapena osatzeko. Misio hori betetzeko oinarritzat hartuko da Bizkaiko Eskola Kirolaren errealitatea ez ezik lurraldeko ikasleek haien kontura, hau da, kirol egitura edo erakundeetatik kanpo egiten duten kirol ohiturak ere bikain ezagutzea. Are gehiago, Bizkaiko Foru Aldundiak lurraldeko eskola ikasleen artean kirola egitea orokortu nahi izateak kirol egiten ez duten ikasleen ehunekoa argitzea ere ekarriko du.

Horrez gain, COVID-19ak eragindako mundu mailako pandemiaren ondoren, helduen artean (berezi ki gazte eta nerabeen artean) behera egin du eguneroko jarduera fisikoaren mailak, eta gora egin du, halaber, sedentarismo mailak (Castañeda-Babarro et al., 2020). Horregatik, ezinbestekoa da Bizkaiko eskola ikasleen kirol ohiturak ondo ezagutzea, lurraldeko haurrek egiten duten kirolaren egoera optimizatzeraz bideratutako estrategiak diseinatzeko.

Azkenik, azterketan inplikaturako ikastetxe, irakasle eta ikasle guztiei zuzendutako gure esker hitzak adierazi behar ditugu, zintzotasunez, lankidetzan aritzeko prest agertu baitira. Euren laguntzarik gabe azterlan hau ezinezkoa litzateke. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuarekin lotutako pertsonen lantaldeari, iradokizun eta ekarpen egokiak egiteagatik, giltzarri izan baitira proiektu hau arrakastaz osatzeko.

HELBURUAK

Azterketa honek Bizkaiko eskola ikasleen eskolaz kanpoko kirol ohiturak sakon ezagutzera du helburu, kirol antolatua zein antolatu gabeko kirola aintzat hartuz. Azterketa honetan antolaketa baten barruan eta jarduera gidatuko duen arduradun heldu baten zaintzapean, eskolaz kanpo eta gutxienez astean behin egiten den kirola ulertzen da kirol jarduera antolatu gisa. Bestalde, antolatu gabeko kirol jarduera modu autonomoan edo libreki egiten diren kirol jarduerari dagokie, edozein antolaketa modutatik kanpo, eskola ordutegitik kanpo eta jardueraz arduratuko den heldu baten zaintzarik gabe. Azterketa honetan “eskola ordutegitik kanpo” esatean hezkuntza arautuaren egituretatik kanpoko eguneroko denborei egiten zaie erreferentzia. Eta, horrenbestez, kategoria horren barruan sartzen dira eskolan sartu aurreko denborak, eskolak bukatu ondoren astean zehar, asteburuetan edo oporretan geratzen diren tarteak. Eskola adinean kirola egiteko bi modu horien (antolatua eta antolatu gabekoa) alderdi konfiguratzaileak sakon ezagutu nahi dira. Baina, halaber, aipatutako modalitateetan kirol egiten ez duten eskola ikasleen komunitatea identifikatu eta aztertzea ere ezinbestekoa da ikerketa honetan. Kirol egiten ez duten ikasleak dira. Segmentu bereziki garrantzitsua osatzen dute, eskola adinean kirola egitea sustatzeko edozein esku hartze estrategia erabil dezaketelako.

Horrez gain, azterketa honetan ikasleei zuzendutako galdera sorta bat ere prestatu da, COVID-19aren pandemiaren aurreko aldiarekin erkatuta kirol ohituen aldaketen berri izateko. Helburua pandemia aurretik kirolen bat egiten ote zuten jakitea eta ohitura horrek gaur egunera arte izan duen bilakaeraren berri izatea da; hala, kirola egiteko prozesuan izandako eragina aztertu ahalko da, baita kirola egiten ez jarraitzeko arrazoiak zehaztu edo kirol modalitatearen balizko aldaketak eragin dituzten arrazoiak aztertu ere. Bidenabar, pandemia bukatu ondoren kirola egiten hasi diren ikasleei eta kirol modalitate horiei buruzko datuak aurkeztuko dira, baita kirolari kopuruari dagokionez eta Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako Eskola Kiroleko kirol jardueren katalogoko kirol jardueren aukerak diren edo ez ere. Bestalde, pandemia bukatu ondoren egiten hasi diren kirol jardueren

entitate arduradunak adieraziko dira, baita kirol jarduera horiek egiteko espazioak ere.

Aipatutako helburu orokorra lortzeko ezinbestekoa izango da berariazko zenbait helburu zehatz lortzea, Bizkaian eskola ikasleek egiten duten kirol jardueraren argazki fidagarria izateko.

Berariazko lehen helburua kirol antolatua, antolatu gabekoa edo biak egiten dituzten edo bietako bat ere ez egiten ez duten eskola ikasleen segmentuak zedarritzea izango da. Multzo horiek identifikatu ondoren, multzo horietako bakoitzean sakontzeko ahalegina egingo da, karakterizatuz jarduera bakoitza (egindako jarduera kopurua, modalitate ohikoenak, kirol jarduera hori egiten duten ikasleen kopurua, zein espaziotan egiten den eta Eskola Kiroleko kirol eskaintzako jarduerak diren edo ez, eta zein diren entitate arduradunak), aztertutako jardueren denbora dimentsioa aztertzea (maiztasuna, asteroko dedikazioaren ordu kopurua), eskola ikasleen kirol jardueren alderdi soziala (konpainia), antzemandako oztopoak eta kirol antolatua edo antolatu gabekoa egiten jarraitzeko asmoa, baita ikasleekin komunikatzeko entrenatzaileak erabilitako hizkuntza ere.

Kirol egiten ez duten ikasleen taldeari dagokionez, haien kirol historiak berreraiki eta, hala badagokio, kirol egiteko edo egiteari uzteko arrazoiak aztertzea da helburua, baita etorkizunean kirola egiten hasteko edo horretara bueltatzeko asmoaren berri izatea ere. Análisi hauetako bakoitzak dimentsio hirukoitza izango du, emaitzak funtsezko hiru aldagairen arabera aztertuko baitira: generoa, presuntakuntza zikloa eta, horrenbestez, ikasleen adina Derrigorrezko Hezkuntzaren etapa bakoitzean eta, azkenik, ikasleak joaten diren ikastetxeen titulartasuna publikoa, pribatua edo itunpekoa den.

Azken berariazko helburua Bizkaiko eskola ikasleen kirol jardueraren indizea egitean datza, kirol jarduerak lurralde honetan eskola ikasleen artean duen ezarpen soziala argitzea ahalbidetuko duena. Indizea gako izango da kolektibo horren sedentismoaren eragina ere ezagutzeko; hala, zenbait galdera ere jaso dira, pandemia aldiari dagokionez kirol ohituen aldaketen berri izateko, COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

ARGITU BEHARREKO GAIAK

Bizkaian eskola ikasleen zein ehunekok egiten du kirol antolaturen bat? Zein eragileren bidez egiten dute? Noizero? Astero zenbat ordu eskaintzen dizkiote? Non egiten dute? Norekin? Zein dira gehien egiten diren kirolak? Zein garrantzi du lehiak? Eskola ikasleen zein ehunekok egiten du antolatu gabeko kirolen bat? Nork egiten du modu antolatuan, eta nork antolatu gabe? Eskola ordutegitik kanpo kirol antolatua eta antolatu gabekoa egitea eragozten duen zailtasunik ba al dago? Ikasleek etorkizunean kirola egiten jarraitzeko asmoa daukate? Zein izango lirake kirola egiteari uzteko arrazoiak? Zein da kirolik egiten ez duten ikasleen ehunekoa? Zein dira kirolik ez egiteko arrazoiak? Zein da Bizkaiko ikasleen artean kirola egiteko indizea? Eta sedentaris-moarena? Eta, aipatutako guztia aldatu al da 2017az geroztik?

Horrez gain, pandemiak ikasleen kirol ohiturak aldatu al ditu? Kirol gehiago edo gutxiago praktikatzen al dute? Zein dira pandemia bukatu ondoren kirola egiteari uzteko arrazoiak?

Bizkaiko ikasleei buruzko alderdi horien berri izatea erabakigarria izango da ikasleen kirol ohituretan sakontzeko eta gaur egungo egoera hobetzen lagunduko duten estrategiak eta esku hartzeak martxan jarri ahal izateko.

METODOLOGIA

Ikerketa hau diseinu kuantitatibopean egin da, eta datuak inkesta bidez jaso dira. Zehazki esateko, azterketa honen emaitzak datuak modu primarioan aztertzezik eratorri dira, Bizkaiko eskola populazioaren kirol ohituren 2017ko txostena egiteko Deustuko Unibertsitateko Aisiako Ikaskuntzen Institutuko Aisialdi eta Giza Garapena ikerkuntza taldeak ad hoc prestatutako galdetegi bat banatzearen ondorioz. Aurretiazko galdetegi horri txosten hau prestatu duen Deustuko Unibertsitateko Sport & Society ikerketa taldeak pandemia egoerari buruzko zenbait gai gehitu zizkion. Azken bertsioa prestatzeko Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuarekin lotutako pertsonen lankidetzak jaso da; bildutako ekarpenak bereziki garrantzitsuak izan dira galdetegia ongi osatzeko eta sakondu nahi

ziren alderdiei erantzuteko, Bizkaiko ikasleen kirol ohiturei dagokienez.

Neurketa tresna

Bizkaiko eskola ikasleen kirol ohiturei buruzko galdetegiak 42 item dauzka guztira, bost multzo tematiko handitan banatuta; galdera irekiak zein itxiak daude. Tartean, galdera objektiboak zein izaera subjektiboak daukaten galderak daude. Galdera horiei esker, behar den informazioa jaso da azterketa honen xedea aztertzeko, alegia, Bizkaiko ikasleen kirol jardueran sakontzeko. Azterketa honi esker, ikasleen kirol jardueren ohituren berri modu orokorrean izango dugu, baina baita beste hiru alderdi zehatz hauek aintzat hartuz ere: generoa, adina eta prestakuntza zikloa, eta ikasleek ikasten duten ikastetxearen titulartasuna. Jarraian, erabilitako galdetegi osatzen duten multzo bakoitza laburbildu da:

- Galdetegiko lehen multzoan ikastetxeko datu orokorrak eta galdetegi erantzun duten ikasleen identifikazio datuak bildu dira (*Ikastetxeko datuak eta identifikazio datuak*).
- Bigarren multzoak, kirol jardueren interesari buruzkoak (kirola egiten dutenak eta kirolik egiten ez dutenak), Bizkaiko eskola ikasleek egiten duten kirol jarduerara gerturatzea ahalbidetuko duen informazioa lortzea du xede. Lehia gustatzen ote zaien, ikas orduetatik kanpo kirola egiten duten eta egiten dutena baino kirol gehiago egitea gustatuko litzaien jakitea da galderen helburua, baita kirola egiten duten haien inguruko eta horretara animatzen duten pertsonen berri izatea ere. Multzo hau kirola egiten dutenek zein kirolik egiten ez dutenek erantzungo dute.
- Hirugarren multzoak, *Eskola ordutetik kanpoko kirol jarduna (soilik kirola egiten dutenentzat)* izenekoak, bi atal ditu: Lehen atalean eskola ordutegitik kanpo egindako kirol jarduera antolatuari buruzko datuak bildu dira. Hala, antolaketa edo erakunde baten esparru barruan eta pertsona arduradun baten zaintzapean egiten diren jardueretan sakondu nahi da. Ikasleei kirol jarduera antolaturik egiten duten galdetu zaie, zein kirol modalitatetan, nork antolatzen dituen eta non egiten duten. Horrez

gain, beste alderdi batzuetan ere sakondu da, esaterako kirolaren denbora dimentsioa, lehia, oztopoak antzematea eta hurrengo urtean kirol antolatua egiten jarraitzeko asmoa. Multzoa bukatzeko kirol antolatua egitean erabilitako hizkuntzaz galdetu da. Atal honen bigarren multzoan antolatu gabeko kirolari erreparatu zaio. Atal hau antolatu gabeko kirola egiten duten ikasleek baino ez dute erantzungo. Modu librean egindako kirol modalitateak, maiztasuna, lekua eta konpainia, ordu dedikazioa, antzemandako oztopoak eta modu horretan kirola egiten jarraitzeko asmoa ere aztertu dira hemen.

- Laugarren multzoan, ez libreki, ez modu antolatuan kirol egiten ez duten ikasleen informazioa aztertu da (*Soilik gaur egun kirol egiten ez dutenentzat*). Hala, kirol egiteko arrazoiak aztertu dira (zein adinera arte egin den kirola, zergatik utzi zen). Azkenik, hurrengo urtean kirola egiteko asmorik ote duten galdetu zaie ikasleei.
- *Kirol jarduera pandemiaren ondoren* izeneko bosgarren eta azken blokean COVIDaren ondoren ikasleen kirol ohiturak aztertu dira. Hala, ikasleek pandemia aurretik kirola egiten ote zuten, pandemia bukatu ondoren kirola egiten jarraitu ote duten, nork antolatzen duen eta non egiten duten aztertu da atal horretan. Azkenik, pandemiaren ondoren modalitatez aldatu ote duten eta horretarako arrazoiak ere aztertu dira.

Prozedura

Galdetegia 2022ko bigarren hiruhilekoan egokitu da. Datu bilketa 2022ko urrian hasi zen, eta 2022ko abenduan bukatu zen. Galdetegiak ikastetxe bakoitzeko ikasgeletan egin ziren. Prozesuan zehar, tresna banatzeaz arduratu den aditu bat ikasleekin egon da eta, kasuan kasuko irakaslea bertan egonda, sortutako zalantzak edo gaiak argitu dira. Prozedura ez da horrela bideratu 6 eta 8 urte arteko ikasleekin. Kasu horietan, adingabeari senide bakoitzak eman dio galdetegia etxean, eta ikastetxera beteta eraman dute.

Ikastetxeek azterketan parte hartzeko agertu duten prestutasuna bikaina izan da, zuzendaritza taldeetatik zein ikasleen partetik. Orotara, Bizkaiko 33 ikastetxek hartu dute parte; 18 ikastetxe publiko izan dira, Lehen eta Bigarren Hezkuntza berezita daukatenak; eta 15 ikastetxe pribatu eta/edo itunpekoak izan dira; kasu horretan Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zikloak ikastetxe berean eskaintzen dituzte.

Aztertutako unibertsoa eta lagina

Hasieran gutxienez 1.000 galdetegiko kopurua planteatu zen Bizkaiko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak barne hartzeko. Lagina egiteko genero, maila, ikastetxe mota eta esparru geografikoaren ezaugarriak hartu ziren aintzat. Hala, esleipen proporzional bidez estratifikatutako lagina egin zen. Orotara, 20 eta 30 ikastetxe desberdin artean hartu ziren abiapuntu modura; hala, Bizkaiko lurralde esparru osoa hartu zen, eskualdeak kontuan hartuz.

1. taula Lagina egiteko aintzat hartutako aldagaiak

IKASMAILA	GENEROA	IKASTETXE MOTA	EREMU GEOGRAFIKOA
Lehen Hezkuntza: 1, 2, 3, 4, 5 eta 6.	Emakumea	Publikoa	Kirol eskualdeak
Bigarren Hezkuntza: 1, 2, 3 eta 4.	Gizona	Pribatua edo itunpekoa	

Ikasleen kopuru osoari dagokionez Eusko Jaurlaritzaren datuak aintzat hartuz, azkenean lortutako lagina 2.067 pertsonakoa izan da (4. taula), azterketaren hasieran laginaren diseinuan planteatutako 1.057 galdetegiko kopurua mila galdetegitan gaindituz (3. taula). Hala, 2.067 ikasleko lagin tamainarekin, % 95eko konfiantza mailarekin, errore marjina zenbatetsia % 5koa da. Laugarren taulan lagin horren banaketa ikusten da, ikastetxe mota eta prestakuntza zikloaren arabera lortutako galdetegi kopuru osoarekin.

Hasierako diseinuan planteatutakoa eta azken laginaren lortutako datuak erkatuz gero, ikusiko da talde guztietan hasieran planteatutakoak baino erantzun gehiago jaso direla eta, gainera, modu orekatuan talde guztietan. Bosgarren taulan lagina prestakuntza ziklo, ikastetxearen titulartasun eta generoaren arabera ageri da.



2. taula Bizkaiko ikastetxeen banaketa, titulartasunaren eta ikasle kopuruaren arabera.

	ESKAINITAKO IKASKETAK	IKASTETXE KOP.
Publikoa	Haur-Lehen Hezkuntza	269
	Lehen hezkuntza	166
	DBH	70
	GUZTIRA	505

	ESKAINITAKO IKASKETAK	IKASTETXE KOP.
Pribatua - Itundua	Haur-Lehen Hezkuntza	166
	Lehen hezkuntza	105
	DBH	103
	GUZTIRA	374

	LEHEN HEZKUNTZA	BIGARREN HEZKUNTZA	GUZTIRA
Publikoa	31.801	19.400	51.201
Pribatua-Itundua	32.510	24.065	56.575
GUZTIRA	64.311	43.465	107.776

3. taula Hasierako lagin diseinuaren laburpen taula, ikasle eta titulartasunaren arabera.

	LEHEN HEZKUNTZA	%	GALDETEGI KOP.	BIGARREN HEZKUNTZA	%	GALDETEGI KOP.	GUZTIRA	%	GALDETEGI KOP.
Publikoa	31.801	% 30,2	319	19.400	% 18	190	51.201	% 48,2	509
Pribatua-Itundua	32.510	% 29,5	312	24.065	% 22,3	236	56.575	% 51,8	548
GUZTIRA	64.311	% 59,7	631	43.465	% 40,3	426	107.776	% 100	1057

4. taula Lortutako azken lagina, titulartasunaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

TITULARTASUNA	LEHEN HEZKUNTZA		BIGARREN HEZKUNTZA		GUZTIRA	
Publikoa	546	% 26,38	329	% 15,89	875	% 42,33
Pribatua-Itundua	669	% 32,36	522	% 25,25	1191	% 57,62
GUZTIRA	1216	% 58,82	851	% 41,17	2067	% 100

5. taula Lortutako azken lagina, titulartasunaren, prestakuntza zikloaren eta generoaren arabera.

TITULARTASUNA	LEHEN HEZKUNTZA LEHEN ZIKLOA			LEHEN HEZKUNTZA BIGARRENA ZIKLOA			LEHEN HEZKUNTZA HIRUGARREN ZIKLOA			BIGARREN HEZKUNTZA LEHEN ZIKLOA			BIGARREN HEZKUNTZA BIGARRENA ZIKLOA		
	Neska	Mutila	Guztira	Neska	Mutila	Guztira	Neska	Mutila	Guztira	Neska	Mutila	Guztira	Neska	Mutila	Guztira
Publikoa	60	73	133	91	91	182	117	115	232	112	88	200	68	61	129
Pribatua- Itundua	131	144	275	113	104	217	77	100	177	87	121	208	144	170	314
GUZTIRA	191	217	408	204	195	399	194	215	409	199	209	408	212	231	443

EGITURA

Txosten honen edukia zazpi ataletan egituratu da. Edukira lehen sarrera egin ondoren, Bizkaiko eskola ikasleek egiten duten kirol jarduerara gerturatzeko lehen hurbilketa eskainiko da, eta bertan jaso da kirol jardueraren ezarpen soziala, eta ikasleek esparru horretan parte hartzeko duten nahia; azkenik, ikasleek egiten duten kirol jardueraren ingurune sozialari buruzko oinarrizko datuak eman dira.


Bigarren atal batean, eskola ordutegitik kanpo Bizkaiko ikasleek egiten duten kirol antolatuaren deskribapen sakona eskaini da. Jarduera horien ezauzgarriak, lehiari ematen zaion garrantzia kirol antolatua egitea bultzatzeko eta bestelako aldagai interesgarriak jaso dira. Horrek Bizkaiko eskola ikasleek egiten duten kirol antolatuaren argazkia lortzen laguntzen digu.

Hirugarren atalean aurrekoaren antzeko analisia egin da, kirol antolaturik egiten ez duten ikasleekin, hau da, kirola haien kontura egiten duten ikasleekin. Kirol antolatuak zein antolatu gabeko kirola egiteak, bereziki eskola ordutegitik kanpoko kirol jardueran

astero ematen duten ordu kopuru guztia aintzat hartuz, posible egiten dute kirol jarduera eta sedentarismoa kalkulatzeko. Azken datu horrek txosten honen laugarren atala osatzen du.

Kirol antolatua zein antolatu gabeko kirola edo biak egiten dituzten ikasleak identifikatu ondoren, bosgarren atal txostena egin den unean kirol egiten ez duten ikasleak aztertzea du xede. Atal hau oso garrantzitsua da kirola egitea ikasle guztietara helaraztea ahalbidetuko duten esku hartzeak egiteko. Seigarren atalean Bizkaiko ikasleek kirol jarduerak egitean pandemiak eragin ahal izan dituen ondorioak aztertu dira. Hala, ordura arte egiten zen kirolen bat utzi izana eta horretarako arrazoiak aztertu dira, baita kirola egitean aldaketaren bat egon den eta zergatik izan den ere. Baita kirol egiten ez duten ikasleek pandemiaren ondoren kirola egiten hasi ote diren ere.

Azkenik, txostena ondorioen azken atalarekin bukatu da; azken atal horrek erabilgarria izan nahi du Bizkaiko ikasleen kirol jardueraren analisi orokorra egiteko.



1. HURBILKETA

OROKORRA KIROL

JARDUERARA

Eskola ikasleek eskola ordutegietatik kanpo egiten duten kirol jardueraren ikuspegi orokorra eskaintzen du atal honek. Azterketa honetan, termino horrek nahitaezko eskola ordutegitik kanpo egiten diren kirol jarduerak izendatzen ditu; hau da, ikasgelara sartu aurretik, edo behin eskolak amaituta, eskolaz kanpoko jardueren esparruan edo are asteburu, oporraldi eta abarrekoetan egiten diren kirol jarduerak.

1.1. KIROL JARDUERAREN EZARPEN SOZIALA

HURRENGO ALDAGAIK AZTERTUZ

- 1.1.1. Kirola egiteko arrazoiak
- 1.1.2. Kirola egitea gustatzea
- 1.1.3. Lehia gustatzea

1.2. KIROL GEHIAGO EGIN NAHI IZATEA

- 1.2.1. Praktikatzea gustatuko litzaiekeen kirol modalitateak
- 1.2.2. Ez egiteko arrazoiak

1.3. ESKOLA KIROL JARDUERAREN INGURUNE SOZIALA

- 1.3.1. Familia eta lagun ingurunearen kirol jarduna
- 1.3.2. Kirola egiteko babesaren pertzepzioa

I. Hurbilketa orokorra kirol jarduerara




1.1. KIROL JARDUERAREN EZARPEN SOZIALA


Kirola egitea oso hedatuta dago Bizkaiko ikasleen artean (1. grafikoa). Gaur egun, ikasleen % 90,5ek eskola ordutegitik kanpo kirola egiten du. Datu horiek beherakada arina izan dute 2017az geroztik (5,1 puntu). Soilik eskola populazioaren % 9,5ek adierazi du ez duela eskola ordutegitik kanpo kirolik egiten.

Generoari dagokionez (2. grafikoa), nesken % 88,6k eta mutilen % 92,3k kirola egiten dute. Nesken % 11,4k eta mutilen % 7,7k ez dute kirolik egiten. 2017. urtearekin erkatuta, pareko joera antzeman da, eta beherakada sakonagoa ikusi da nesken artean mutilen artean baino.

1. grafikoa Kirola egiten duen eskola populazioa, orokorrean.




2. grafikoa Kirola egiten duen eskola populazioa, generoaren arabera.



Horrez gain, hirugarren grafikoari erreparatuz gero, ikus daiteke Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) kirola egiteko ehunekoak nabarmen altuak dira, beherakada arina dutela Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (8-10 urte), eta orduan berriz ere gora egiten dutela Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte). Une horretatik aurrera, Bigarren Hezkuntzako bi ziklotan beheranzko bideari ekiten diote (12-16 urte). 2017an lortutako datuei dagokienez, joera orokorra antzekoa da, salbu eta 2022. urtean Lehen Hezkuntzako lehen ziklotik bigarrenera (6-10 urte) kirola egiten duten ikasleen beherakada. Análisi honi generoaren aldagaia gehituz gero, orduan berretsi egiten da Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) mutilek egiten duten kirolaren ehunekoak neskenak baino handiagoak dira (% 94,5 eta % 91,6, hurrenez hurren). Alde hori (2,9 puntu) nabarmen hazten da (6,7 puntu) Lehen Hezkuntzako bigarren ziklora iritsitakoan (8-10 urte). Hala ere, Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora igarotzean (10-12 urte) aldea desagertu egiten da, eta bi generoek lehen etapako kuoten antzekoak lortzen dituzte. Joera 2017. urtean jasotako datuen oso antzekoa da.

3. grafikoa Kirola egiten duen eskola populazioa, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.




NESKA	% 91,6	% 87,7	% 90,2	% 90	% 90
MUTILA	% 94,5	% 94,4	% 93	% 87,4	% 86,3
BIZKAIA	% 93,1	% 91	% 91,7	% 88,7	% 88,3

Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera (10-12 urte), mutilek egiten duten kirolaren tasak etengabe egiten du behera modu jarraituan Bigarren Hezkuntzako bi zikloetan. Etapa horretan, neskek kirol gehiago egiten dute mutilek baino. Neskak % 90 inguruan daude bi zikloetan; mutilak, aldiz, lehen zikloan (12-14 urte) % 87,4 inguruan eta bigarren zikloan (14-16 urte) % 86,3 inguruan daude. 2017an jasotako datuekin konparatuta, nesken zein mutilen kasuan beherakada antzeman da prestakuntza ziklo guztietan.

Ikastetxearen titulartasunak ez ditu alde nabarmenak ezartzen kirola egiteari dagokionez. Soilik antzeman da ikastetxe pribatu eta itunduetara doazen ikasleek kirola egiteko ehuneko pixka bat altuagoak dituztela titulartasun publikoko ikastetxeetara doazen ikasleek baino (4. grafikoa). Aldea 3,2 puntura igotzen da ikastetxe pribatu eta itunduen alde. Datu horiek 2017ko

datuekin erkatuta, kirol jardueraren beherakada oso antzekoa izan da bi titulartasunetan.


4. grafikoa Kirola egiten duen eskola populazioa, titulartasunaren arabera.



Analisi honi prestakuntza zikloa gehituz gero, ikastetxeetako titulartasunaren arabera (5. grafikoa), 3. grafikoan komentatutako joeraren antzekoa ager da. Esan daiteke, 2017. urtean gertatu bezala, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa une eta etapa garrantzitsua dela Bizkaiko ikastetxe pribatu edo itunduetako eskola ordutegitik kanpo kirola egiteko. Titulartasunari dagokion joerarekin konparatuta, ikus daiteke ikastetxe pribatu edo itunduetan

kirola egiteak beherakada nabarmena duela Lehen Hezkuntzako lehen zikloaren (6-8 urte) eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloaren (14-16 urte) artean; aldea 7,4 puntu nabarmenera iristen da. Gaur egungo datuek erakusten dute ikastetxe publikoetan kirola egiteak gorakada arina izan duela Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte).

5. grafikoa Kirola egiten duen eskola populazioa prestakuntza zikloaren eta titulartasunaren arabera.




6. grafikoan generoaren aldagaia txertatu da analisi honetan. Horrek esan nahi du ikastetxe pribatu eta itunduetako neskek zein mutilek kirol gehiago egiten dutela ikastetxe publikoetakoek baino. Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa salbu (12-14 urte), bertan ikastetxe publikoetako nesken parte hartzea handiagoa baita. 2017ko datuekin erkatuta, ikus daiteke joera ez dela aldatu. Salbu eta mutilen gaur egungo joera ikastetxe publikoetan, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (8-10 urte) eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte), kasu horietan gora egin baitu.

Kirola egiteko ehunekoen joerari dagokionez, ikastetxe pribatu eta/edo itunduetan kirola egiten duten

nesken kasuan, beherakada jarraituko joera ikusi da 6 urtetik 16 urtera arte, 2017an gertatu zen bezala. Mutilen kasuan, kirola egiteak gorakada izan du Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloaren amaieran ikastetxe publikoetan; ikastetxe itundu eta/edo pribatuetan joera, aldiz, kontrakoa da. Hala, kirola egiteko mailek behera egin dutela ikusten da, 7,1 puntuko alde nabarmenera iritsiz Lehen Hezkuntzako lehen zikloaren (6-8 urte) eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloaren artean (14-16 urte). 2017. urtearekin alderatuta, non kirol jarduerak behera egin zuen bi ikastetxe motetan, 2022. urtean ikastetxe publikoetan kirola egiteko mailak mantendu egin dira eta/edo gora egin dute, arinki.

6. grafikoa Kirola egiten duen eskola populazioa, generoaren, prestakuntza zikloaren eta titulartasunaren arabera.



IKASTETXE PUBLIKOA NESKA	% 86,7	% 81,3	% 89,7	% 86,6	% 86,8
IKASTETXE PUBLIKOA MUTILA	% 90,4	% 94,5	% 89,6	% 89,8	% 91,8
IKASTETXE PRIBATUA NESKA	% 93,9	% 92,9	% 90,9	% 88,5	% 86,1
IKASTETXE PRIBATUA MUTILA	% 96,5	% 94,2	% 97	% 90,1	% 89,4




1.1.1. Kirola egiteko arrazoiak

Eskola ikasleen motibazioak ezagutzea interesgarria da, lagungarria izan daitekeelako kirola egitea eta bereziki kirol antolatua egitea bideratzeko, hain zuzen ere, ikasleak parte hartzera animatzeko arrazoiak lortzera. Ikasle bakoitzak hiru arrazoi garrantzitsuenak aipatu ahal izan dituzenez, erantzun anitzeko galdera bat da. Orotara 4.939 erantzun jaso dira. 7. grafikoan ikusten denez, kirola egiten duten ikasleen % 86,8k gustatzen zaiolako egiten du kirola; % 49,3k osasun arrazoiak aipatu ditu; % 39,2k kirola egiteak lagunekin egoteko aukera ematen diola adierazi du. Beste arrazoi batzuen artean, % 28,2k trebetasunak ikasi eta hobetzeko aukera aipatu du; % 30ek aktibo egotea aipatu du, eta % 24,2k deskonektatzeko egiten duela azaldu du. Ikasleek kirola egiteko azaldutako beste arrazoi batzuen artean daude irudia zaintzea (% 13,9) edo kirol lehiaketetan parte hartzea (% 9,6), baina neurri txikiagoan.

Seigarren taulan ikus daitekeen moduan, Bizkaiko ikasleek kirola gustuko izatea aipatu dute arrazoi nagusi modura (% 69,5), eta ondoren osasun arrazoiak datoz (% 7,4). Bigarren arrazoi modura egongo lirateke lagunekin egotea (% 24,8) eta osasuna (% 23). Hala, ikusi da hamar ikasletik zazpirentzat kirola egitea berez dela interesgarria, ematen dituen itzulkinak alde batera utzita.

Kirola egiteko arrazoiak generoaren arabera aztertuz gero (seigarren taula), ikusten da mutil eta nesken artean ez dagoela desberdintasun handirik. Kirola egitea gustatzea kirola egiteko arrazoi pixka bat hedatuagoa da mutilen artean (% 32,9, nesken kasuan, berriz, % 30,5). Horrez gain, ikasleek kirola egitea eragiten duten arrazoiak osasuna (nesken % 16,8 eta mutilen % 15,1), deskonektatzea (nesken % 9,4 eta mutilen % 5,9) eta aktibo mantentzea (nesken % 9,4 eta mutilen % 8,2) dira. Kirola egiteko arrazoiak 2017an aipatutakoen berdinak dira.

7. grafikoa Kirola egiteko arrazoiak.



6. taula Kirola egiteko arrazoiak, arrazoiaren garrantziaren, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

ZERGATIK EGITEN DUZU KIROLA? (ERANTZUN ANITZAK: 4939)

		Gustatzen zaidalako	Nire lagunekin egoteko	Nire irudia zaintzeko	Osasunagatik	Deskonektatzeko	Lehiaketetan parte hartzeko	Aktibo egoteko	Nire trebetasunak ikasi eta hobetzeko	Nire amak eta/edo aitak nahi duelako	Nire familiako norbaitek egiten duelako	Ez daki/Ez du erantzun	Beste arrazoi batzuk
Arrazoiak, guztira	Zenbaketa	1572	633	221	786	375	147	433	464	105	55	109	29
	%	% 86,8	% 39,1	% 13,8	% 49,3	% 24,1	% 9,5	% 28,2	% 30	% 7,4	% 3,6	% 6,1	% 1,9
1. arrazoa (erantzun kop.: 1871)	Zenbaketa	1300	100	50	138	51	12	46	61	18	4	87	4
	%	% 69,5	% 5,3	% 2,7	% 7,4	% 2,7	% 0,6	% 2,5	% 3,3	% 1,0	% 0,2	% 4,6	% 0,2
2. arrazoa (erantzun kop.: 1627)	Zenbaketa	201	403	87	375	146	57	149	153	39	13	4	0
	%	% 12,4	% 24,8	% 5,3	% 23,0	% 9,0	% 3,5	% 9,2	% 9,4	% 2,4	% 0,8	% 0	% 0,2
3. arrazoa (erantzun kop.: 1441)	Zenbaketa	71	130	84	273	178	78	238	250	58	38	22	21
	%	% 4,9	% 9,0	% 5,8	% 18,9	% 12,4	% 5,4	% 16,5	% 17,3	% 4,0	% 2,6	% 1,5	% 1,5

GENEROA

Neska	Zenbaketa	708	249	107	390	220	47	218	212	57	23	69	18
	%	% 30,5	% 10,7	% 4,6	% 16,8	% 9,4	% 2,02	% 9,4	% 9,1	% 2,4	% 0,9	% 2,9	% 0,7
Mutila	Zenbaketa	864	384	114	396	155	100	215	252	58	32	40	11
	%	% 32,9	% 14,6	% 4,3	% 15,1	% 5,9	% 3,8	% 8,2	% 9,6	% 2,2	% 1,2	% 1,5	% 0,4

PRESTAKUNTZA ZIKLOA

Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	322	217	5	80	12	18	64	141	57	23	10	2
	%	% 33,8	% 22,8	% 0,5	% 8,4	% 1,2	% 1,8	% 6,7	% 14,8	% 5,9	% 2,4	% 1,05	% 0,2
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	301	145	31	141	36	38	77	107	25	11	20	5
	%	% 32,1	% 15,4	% 3,3	% 15,1	% 3,8	% 4,1	% 8,2	% 11,4	% 2,6	% 1,1	% 2,1	% 0,5
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	336	109	49	207	69	33	108	64	11	6	19	7
	%	% 31,1	% 10,7	% 4,5	% 19,1	% 6,3	% 3,1	% 9,9	% 5,9	% 1,1	% 0,5	% 1,7	% 0,6
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	304	82	53	178	119	21	79	74	9	9	26	11
	%	% 31,5	% 8,4	% 5,4	% 18,4	% 12,3	% 2,1	% 8,1	% 7,6	% 0,9	% 0,9	% 2,6	% 1,1
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	309	80	83	180	139	37	105	78	13	6	34	4
	%	% 28,9	% 7,4	% 7,7	% 16,8	% 13,1	% 3,4	% 9,8	% 7,3	% 1,2	% 0,5	% 3,1	% 0,3

Prestakuntza zikloaren ikuspuntutik, berretsi da kirola egitea gustatzea bereziki garrantzitsua dela Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloan (6-10 urte) (% 33,8 eta % 32,1, hurrenez hurren). Momentu horretatik aurrera, eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte) igoera arina izan arren, interes horrek behera egiten du % 28,9ra arte Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte). 2017. urteko datuekin erkatuta, beheranzko joera


berdina aurkitu dugu. Orotara, kirola egitea gustatzeak 6-8 urtetik 14-16 urtera duen beherakada 4,9 puntura iritsi da. Osasunaren arazoak, bestalde, gora egiten du adinarekin, 2017an gertatu bezala. Orotara, arrazoi horren garrantzia ia 11 puntu hazi da Lehen Hezkuntzako lehen ziklotik (6-8 urte) Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora (10-12 urte). Aitzitik, puntu horretatik beherakada arina ikusten da Bigarren Hezkuntzako zikloetan (12-16 urte).



1.1.2. Kirola egitea gustatzea


Kirolaren gaineko interesa berreste aldera, kirola egitea gustatzeari buruzko galdera bat egin zaie. Erantzunak bost puntuko Likert eskala batean sailkatzen dira; bat zenbakiak mutur negatiboa irudikatzen du, hau da, “batere ez”, eta bost zenbakiak mutur positiboa, hau da, “asko”. Lortutako emaitzei esker talde honen posizionamendu bateratua zein genero, prestakuntza ziklo eta ikastetxeen titulartasunaren arabera iritziak ezagutu ditzakegu. Ikasleen multzorako lortutako batezbestekoa 4,4koa da (8. grafikoa). Batezbestekoa nahiko altua da, eta ikasleei kirola egitea gustatu egiten zaiela berresten du. Iritzi berari eusten diote bai mutilek, bai neskek, baina mutilen iritzia pixka bat positiboagoa da (4,7ko batezbestekoa, eta nesken kasuan 4,2koa da). 2017. urtean lortutako datuei dagokienez, datuek joera berdina mantendu dute.

8. grafikoa Kirola egitea gustatzea (batez besteko puntuazioak).



Genero eta prestakuntza zikloaren arabera ikuspegi konparatutik (9. grafikoa), argi dago kirola egitea gustatzea nabarmenagoa dela mutilen kasuan eskola etapa guztian, eta bi generoen arteko desberdintasunik handiena Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan aurkitu dugu (14-16 urte). Oro har, neskei zein mutilei kirola egitea gehien gustatzen zaien unea Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa da (10-12 urte); une horretan kirola egitearen gaineko interesa oso antzekoa da. Une horretatik aurrera, kirola egiteko zaletasunak beherakada arinak ditu bi generoetan, baina atzerapena argiagoa da nesken kasuan. Hala ere, nabarmendu behar da Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte) ere kirola egiteko zaletasuna nahiko handia dela Bizkaiko ikasleen artean. Joera 2017. urtean jasotako datuen oso antzekoa da.



9. grafikoa Kirola egitea gustatzea genero eta prestakuntza zikloaren arabera (batez besteko puntuazioak).


NESKA	4,1	4,3	4,4	4,1	3,8
MUTILA	4,4	4,6	4,6	4,5	4,5
BIZKAIA	4,3	4,5	4,5	4,3	4,2

Zazpigarren taulan aurkeztutako joerak berresten dira. Ikasleen % 83k adierazi du kirola egitea asko eta nahiko artean gustatzen zaiola (% 61,2ri asko, eta % 21,8ri nahiko). % 17k adierazi du kirola egitea ez zaiola batere gustatzen, gutxi edo erdipurdi gustatzen zaiola (% 0,7, % 3,1 eta % 13,2, hurrenez hurren). Generoaren araberako analisiak erakutsi du bi kasuetan lortutako iritziak “asko” aukeraren inguruan bildu direla, baina posizio hori pixka bat handiagoa da nesken kasuan (% 49,5, mutilen kasuan, berriz, % 37,3). Bestalde, mutilekin konparatuta nesken ia bikoitzak “nahiko” aukeraren alde egin du (% 27,8 eta % 16,1). Emaitza horiek desberdinak dira 2017. urtean lortutakoekin erkatuta. Orduan mutilek kirola egiteko zaletasun handiagoa agertzen zuten; orain, berriz, neskek ehuneko altuagoak agertu dituzte.

Kirola egiteko zaletasunak, “asko” gustatzen zaien kasuetan, gora egiten du Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora (10-12 urte) arte eta une horretatik aurrera nabarmen egiten du behera 14-16 urtera arte. Hain zuzen ere, interes horrek 23,3 puntu egiten du behera Bigarren Hezkuntzako zikloetan (12-16 urte). Kirola egitea “nahiko” gustatzen zaiela adierazi dutenen artean, interesak pixkanaka behera egin du Bigarren Hezkuntzako hirugarren zikloa amaitu arte (10-12 urte). Une horretatik aurrera, pixkanaka eta modu mailakatuan gora egiten du, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko (6-8 urte) ehunekoan antzekoetara ere iritsiz. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako zikloen arteko beherakada lineala 2017. urteaz geroztik gertatzen da; joera antzekoa adierazi dute datuek.

7. taula Kirola egitea gustatzea

KIROLA EGITEA GUSTATZEN ZAIZU? (ERANTZUN KOP.: 2.067)

		Ez zait batere gustatzen	Gutxi gustatzen zait	Erdipurdi gustatzen zait	Nahiko gustatzen zait	Asko gustatzen zait
Guztira	Zenbaketa	15	64	272	450	1266
	%	% 0,7	% 3,1	%13,2	% 21,8	% 61,2

GENEROA

Neska	Zenbaketa	5	47	175	278	495
	%	% 0,5	% 4,7	% 17,5	% 27,8	% 49,5
Mutila	Zenbaketa	10	17	97	172	771
	%	% 0,9	% 1,6	% 9,1	% 16,1	% 37,3

PRESTAKUNTZA ZIKLOA


Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	0	14	62	112	220
	%	% 0	% 3,4	% 15,2	% 27,5	% 53,9
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	1	12	46	69	271
	%	% 0,3	% 3,0	% 11,5	% 17,3	% 67,9
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	4	6	34	64	301
	%	% 1,0	% 1,5	% 8,3	% 15,6	% 73,6
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	4	12	60	81	251
	%	% 1,0	% 2,9	% 14,7	% 19,9	% 61,5
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	6	20	70	124	223
	%	% 1,4	% 4,5	% 15,8	% 28,0	% 50,3

1.1.3. Lehia gustatzea

Dinamika berdinarekin jarraituz, ikasleei lehia gustatzen ote zaien ere galdetu zaie (10. grafikoa). Lortutako batez besteko puntuazioek adierazi dute horren inguruko iritziak ez direla kirola egitea gustatzearen ingurukoak bezain positiboak. Eskola populazioaren multzoaren batez besteko puntuazioa 3,5 izan da (5etik); horrek esan nahi du lehia “na-


hiko” gustatzen zaiela. Batez besteko puntuazioen arabera, neskei lehia gutxiago gustatzen zaie mutilari baino. 0,6 puntuko aldea da, kirola egiteko zale-tasunari dagokionez zegoen aldearen antzekoa (0,5 puntuko aldea). 2017. urteko datuak gaur egungo datuen berdina izan ziren, lehia gustatzeari dagokionez zein generoen arteko konparaketari dagokionez.

10. grafikoa Lehia gustatzea, generoaren arabera (batez besteko puntuazioak).



Generoa eta prestakuntza zikloa aintzat hartuz (11. grafikoa), berretsi da lehiaren inguruko interesak gora egin duela, nesken zein mutilen kasuan, Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora arte (10-12 urte). Une horretatik aurrera, interes horrek behera egingen du, baina modu mailakatu eta nabarmenagoan egingen du behera nesken artean. 12 urtetik 16 urtera arte, lehia gustatzearen inguruko beherakada antzekoa da nesken eta mutilen artean, 0,2koa nesken kasuan eta 0,1koa mutilen kasuan. Horrez gain, 14-16 urterekin lehiaren inguruko interesa pixka bat handiagoa da 6-8 urteekin zeukatena baino, nesken zein mutilen artean.

11. grafikoa Lehia gustatzea, generoaren, prestakuntza zikloaren eta adinaren arabera (batez besteko puntuazioak).



NESKA	3,2	3,5	3,7	3,5	3,3
MUTILA	3,7	4	4,3	4,1	4,2
BIZKAIA	3,5	3,8	4	3,8	3,8

Zortzigarren taulan ikusten denez, ikasleen % 65,3k adierazi du lehiatzea gustatzen zaiola (% 37,7ri asko eta % 27,6ri nahiko). % 34,7k adierazi du lehiatzea ez zaiola batere gustatzen, gutxi edo erdipurdi gustatzen zaiola (% 5,8, % 9,7 eta % 19,2, hurrenez hurren). Generoen arabera analisiak argi utzi du bi kasuetan iritziak “asko” eta “nahiko” aukeren artean bildu direla. Lehen kasuan, ikusi da mutilei gehiago gustatzen zaiela lehiatzea (% 48,5, eta nesken ka-

suan % 26,3). Horrez gain, bi generoen kasuan ehuneko antzekoek aukeratu dute “nahiko” aukera (% 27 eta % 28,2, hurrenez hurren). Nesken % 22,0k adierazi du lehia ez zaiola batere gustatzen edo gutxi gustatzen zaiola (% 8,0 eta % 14, hurrenez hurren); mutilen artean, berriz, datua % 9,4koa da (%3,7k batere ez eta %5,7k gutxi). Lortutako emaitzak ikusita, berretsi da lehia mutilei gehiago gustatzen zaiela.

8. taula Lehia gustatzea, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

LEHIATZEA GUSTATZEN ZAIZU? (ERANTZUN KOP.: 2.067)						
		Ez zait batere gustatzen	Gutxi gustatzen zait	Erdipurdi gustatzen zait	Nahiko	Asko gustatzen zait
Guztira	Zenbaketa	119	201	396	571	780
	%	% 5,8	% 9,7	% 19,2	% 27,6	% 37,7
GENEROA						
Neska	Zenbaketa	80	140	247	270	263
	%	% 8,0	% 14,0	% 24,7	% 27,0	% 26,3
Mutila	Zenbaketa	39	61	149	301	517
	%	% 3,7	% 5,7	% 14,0	% 28,2	% 48,5
PRESTAKUNTZA ZIKLOA						
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	29	54	116	93	116
	%	% 7,1	% 13,2	% 28,4	% 22,8	% 28,4
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	25	39	82	95	158
	%	% 6,3	% 9,8	% 20,6	% 23,8	% 39,6
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	15	28	67	116	183
	%	% 3,7	% 6,8	% 16,4	% 28,4	% 44,7
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	31	32	58	123	164
	%	% 7,6	% 7,8	% 14,2	% 30,1	% 40,2
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	19	48	73	144	159
	%	% 4,3	% 10,8	% 16,5	% 32,5	% 35,9

KIROL JARDUERAREN EZARPEN SOZIALA


IDEIA NAGUSIAK

- * Eskola populazioaren % 90,5ek adierazi du eskola ordutegitik kanpo kirola egiten duela. % 88,6 neskek dira, eta %92,3 mutilak. % 9,5ek esan du eskola ordutegitik kanpo ez duela kirolik egiten (% 11,4 neskek dira, eta % 7,7 mutilak).
- * Kirola egitearen ehunekoek progresiboki behera egiten dute Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora arte (10-12 urte) mutilen artean, eta une horretan gorakada arina dago; Bigarren Hezkuntza bukatutakoan jardunaren tasak baxuagoak dira. Nesken artean, bestalde, kirola egitearen inguruko tasek behera egiten dute Lehen Hezkuntzako bigarren ziklora arte (8-10 urte), eta ondoren gora egin dute Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora arte (10-12 urte). Nesken artean, kirola egiteari lotutako mailek behera egiteak neurri handiagoan erasaten die titulartasun pribatu edo itunduko ikastetxera doazen ikasleei.
- * Kirola egiteko arrazoi nagusien artean ikasleek jarduera gustatzea (% 69,5) eta osasuna (% 7,4) aipatu dute. Datu horiek berresten dute ikasle gehienek kirola gustuko dutela kirolak berez dituen balioengatik, eta ez tresna modura, zenbait etekin lortzeko baliabide modura. Hala ere, kirola egiteko osasun arrazoiak duen garrantzia areagotu egiten da adinean gora joan ahala.
- * Bizkaiko ikasleei gustatu egiten zaie kirola egitea (% 86,3), 2017an bezalaxe.
- * Eskola populazioari nahiko gustatzen zaio lehiatzea (batez besteko puntuazioa 3,5ekoa da 5etik), eta interes hori pixka bat baxuagoa da nesken artean (0,6 puntu). Lehiatzeko interesik handiena Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan ikus daiteke (14-16 urte), eta etapa horretan mutilek interes handiagoa daukate neskek baino.

1.2. KIROL GEHIAGO EGIN NAHI IZATEA

Eskola populazioak egiten duen kirola baino gehiago egin nahi duen jakiteko, galdetegian horri buruzko itaun bat jaso zen (12. grafikoa). Emaitzek adierazi dute 10 ikasletik bostek gaur egun egiten duten kirola baino gehiago egin nahi dutela (% 52,1). Gogo hori handiagoa da nesken artean (% 53,8) mutilen artean baino (% 50,4). Datu interesgarria da, bi


12. grafikoa Kirol gehiago egiteko gogoia, generoaren arabera.




arrazoi direla medio. Lehen, ikasleek kirol gehiago egiteko interesa dutela berresten delako. Bigarrena, gogo hori nabarmenagoa delako nesken artean, eta neskek egiten duten kirolaren ehunekoak mutilenak baino pixka bat baxuagoak direlako. Interes hori pixka bat altuagoa zen 2017an (10 ikasletik 6), baina generoaren joera berdina da, eta neskek mutilek baino interes handiagoa dutela ikusi da.

Analisian prestakuntza zikloa eta adina gehituz gero (13. grafikoa), ikusi da gogo horren goranzko bilakaerak oso urrats antzekoak jarraitu dituela eskola etapa ia osoan, generoa edozein izanda ere. Hala ere, nesken eta mutilen arteko joera desberdintasunak Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte) agertzen dira, eta neskek kirol gehiago egiteko gogo handiagoa agertzen dute. Mutilen artean, kirol gehiago egin nahi izateko gogoia neurri txikian hazi da Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora arte (10-12 urte), eta orduan beheranzko joera hartzen du, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloaren amaierara arte (14-16 urte). 2017ko datuekin erkatuta pixka bat desberdinak dira, orduan Lehen Hezkuntzako zikloetan goranzko eta beheranzko joera ikusi baitzen, Bigarren Hezkuntzako etapan gorantz egiten jarraituz.

13. grafikoa Kirol gehiago egiteko gogoia, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.



14. grafikoa Praktikatzeari gustatuko litzaiekeen kirol modalitateak.



1.2.1. Praktikatzeari gustatuko litzaiekeen kirol modalitateak

Bizkaian kirol gehiago egin nahi duten ikasleen % 52,1ek egin nahiko lituzkeen kirol modalitate na-

gusiak dira futbola (% 14,9), saskibaloia (% 14,1), igeriketa (% 7,1), atletismoa (% 6,8) eta tenisa (% 5,6) (14. grafikoa). 2017an gertatu bezala, futbola eta saskibaloia dira gehien aukeratutako modalitateak.




1.2.2. Egin nahi diren kirol modalitateak ez egiteko arrazoiak

Ikusi denez, komunitate honek egiten duen kirola baino gehiago egin nahi du, eta zein modalitate egin nahiko lituzkeen ere aipatu da; hala, aipatutako kirolak ez egiteko arrazoiaren inguruan galdetu zaie (15. grafikoa). 2017ko datuek erakutsi ziguten moduan, gaur egun arrazoi nagusia denbora falta da (% 39).

Generoari dagokionez (9. taula), desberdintasun arinak daude, eta mutilekin konparatuz neskek denbora falta gehiago aipatu dute (4,8 puntu). Prestakuntza zikloari eta adinari dagokionez, denbora

falta adinarekin gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen da; Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte) ehuneko handiagoarekin agertzen da. 2017an, denbora faltak Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte) zuen garrantzirik handiena. Bi kasuetan, adinari lotutako ardura akademiko eta pertsonalak handitzeak eragotzi egin dezake kirol gehiago egiteko gogoia gauzatu ahal izatea. Beste jarduera batzuekin gainjartzea Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloan agertzen den arrazoi nagusietako bat da; etapa horren ezaugarrietako bat kirol eta aisialdiko jardueren aukera zabala eskaintzea da, eta, hala, ikasleek haien kirol eta aisialdi lehentasunak ezagutu eta argitzeko aukera izaten dute.

15. grafikoa Praktikatu nahi dituzten modalitateak ez praktikatzeko arrazoiak.



9. taula Kirol gehiago egin nahi duen eskola populazioak kirol gehiago ez egiteko arrazoiak, generoaren, prestakuntza zikloaren eta adinaren arabera.

ERGATIK EZ DUZU KIROL GEHIAGO EGITEN? (ERANTZUN ANITZAK: 1076)

		Osasuna/lesioa/ gaixotasun bat dela eta	Ez naiz trebea	Ez daukat denborarik	Nekatuta nago beste jarduerara batzuegatik (ikasketak, etab.)	Nire lagunek ez dute egiten	Garestia da	Ez dago instalazio egokirik	Ez dago aski plaza	Oso urrun dago	Aitak eta/edo amak ez dit uzten	Beste jarduerara batzuekin batera egokitu zait	Ez daki/Ez du erantzun	Beste arrazoi batzuk
Arrazoiak, guztira	Zenbaketa	38	75	420	67	15	37	14	36	36	33	95	162	48
	%	% 3,5	% 7	% 39	% 6,2	% 1,4	% 3,4	% 1,3	% 3,3	% 3,3	% 3,1	% 8,8	% 15,1	% 4,5
GENEROA														
Neska	Zenbaketa	15	35	223	31	2	22	3	20	20	16	48	73	30
	%	% 2,8	% 6,5	% 41,4	% 5,8	% 0,4	% 4,1	% 0,6	% 3,7	% 3,7	% 3	% 8,9	% 13,6	% 5,6
Mutila	Zenbaketa	23	40	197	36	13	15	11	16	16	17	47	89	18
	%	% 4,3	% 7,4	% 36,6	% 6,7	% 2,4	% 2,8	% 2	% 3	% 3	% 3,2	% 8,7	% 16,5	% 3,3
PRESTAKUNTZA ZIKLOA ETA ADINA														
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	3	9	54	6	3	7	2	14	5	3	37	52	12
	%	% 1,4	% 4,3	% 26,1	% 2,9	% 1,4	% 3,4	% 1	% 6,8	% 2,4	% 1,4	% 17,9	% 25,1	% 5,8
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	12	17	65	15	3	9	5	6	4	10	16	43	10
	%	% 5,6	% 7,9	% 30,2	% 7,0	% 1,4	% 4,2	% 2,3	% 2,8	% 1,9	% 4,7	% 7,4	% 20,0	% 4,7
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	10	30	136	12	3	5	2	7	6	9	15	36	9
	%	% 3,6	% 10,7	% 48,6	% 4,3	% 1,1	% 1,8	% 0,7	% 2,5	% 2,1	% 3,2	% 5,4	% 12,9	% 3,2
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	7	8	83	16	3	3	3	6	8	6	15	20	8
	%	% 3,8	% 4,3	% 44,9	% 8,6	% 1,6	% 1,6	% 1,6	% 3,2	% 4,3	% 3,2	% 8,1	% 10,8	% 4,3
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	6	11	82	18	3	13	3	3	13	5	12	11	9
	%	% 3,2	% 5,8	% 43,4	% 9,5	% 1,6	% 6,9	% 1,6	% 1,6	% 6,9	% 2,6	% 6,3	% 5,8	% 4,8

KIROL GEHIAGO EGIN NAHI IZATEA

IDEIA NAGUSIAK

- * Eskola populazioaren % 52,1ek esan du kirol gehiago egitea gustatuko litzaiokeela, 2017an baino % 10 gutxiago.
- * Neskek kirol gehiago neurri handiagoan egin nahi dute (% 53,8, mutilen kasuan % 50,4), 2017an bezala.
- * Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte) bildu dira kirol gehiago egiteko gogoaren ehuneko handienak. 2017an ehunekorik handiena Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan zegoen (8-10 urte). Une horretatik aurrera, eta Bigarren Hezkuntzako amaierara arte (14-16 urte), 2017an bezala, nesken artean kirola egiteko gogo handiagoa da.
- * Ikasleek egin nahi dituzten eta egiten ez dituzten kirol modalitateak futbola (% 14,9), saskibaloia (% 14,1), igeriketa (% 7,0) eta atletismoa (% 6,8) dira. 2017. urtean gehien eskatutako kirol modalitateak horiexek izan ziren. Nesken eta mutilen artean, egin nahi diren kirol modalitateen artean nagusiak futbola (% 12,6 eta % 13,9, hurrenez hurren) eta saskibaloia dira (% 11,9 eta % 15,4, hurrenez hurren). Horrez gain, nesken artean igeriketa (% 9,2) eta boleibola ere ageri dira (% 5,8). Eta, mutilen artean, atletismoa (% 7,5) eta esku pilota (% 6,2).
- * 2017an bezala, gaur egun gogo hori ez gauzatzeko arrazoi nagusia denbora falta da (% 39). Arrazoi hori gero eta garrantzitsuagoa da Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora arte (10-12 urte), eta orduan beharakada arina du Bigarren Hezkuntza bukatu arte.

1.3. ESKOLA KIROL JARDUERAREN INGURUNE SOZIALA

Hainbat arrazoi eta faktorek eragina izan dezakete kirola egin, kirola egiten hasi zein jarraitzean. Kirol jarduera gehien baldintzatzen duten faktoreen artean kirola egiten duen pertsonaren gertuko pertsonak daude. Pertsona horiek eragin nabarmena dute kirola egiten hastean edo jarraitzean; hortaz, pertsona horien babesa erabakigarria da ikasleek ezar ditzaketen kirol ohituretan. Eragin handiena daukaten eragileen artean senideak (aita, ama, neba-arrebak), lagunak, irakasleak eta entrenatzaileak daude. Horrez gain, ikasleentzat esanguratsuak diren beste hainbat pertsona ere badira.


1.3.1. Familia eta lagun ingurunearen kirol jarduna

16. grafikoan ikusten dugun moduan, ikasleen lagunaren % 90 inguruk kirola egiten du, mutilen zein nesken artean (% 89,9 eta % 87,3, hurrenez hurren).

Datua 2017ko txostenean lortutakoaren antzekoa da; orduan lagunak ziren kirol gehien egiten zuten inguruko pertsonak, eta orduan ere datua % 90 ingurukoa zen. Jarraian, ikasleek aita zein neba-arrebak identifikatzen dituzte kirol gehien egiten duten pertsona modura, bi kasuetan datua % 65,8koa da. Eta, azkenik, amak daude, % 56,4rekin. Datu horiek 2017ko txostenean lortutako datuen antzekoak dira. Hala ere, garrantzitsua da aita, ama zein neba-arreben artean kirola egiteak izan duen gorakada nabarmentzea, eta aiten kasuan ia 6 puntu egin du gora (2017an % 60,6 izatetik 2022an % 65,8 izatera), lau puntu amen kasuan (2017an % 52,2 izatetik 2022an % 56,4 izatera) eta puntu bat neba-arreben artean (2017an % 64,7 izatetik 2022an % 65,8 izatera).

Generoari dagokionez, ez da alde nabarmenik ikusi, eta aita eta amaren kirol jardueren ehunekoak pixka bat altuagoak dira nesken kasuan (% 66,9 eta % 59,3, hurrenez hurren) mutilen kasuan baino (% 65,8 eta % 56,4, hurrenez hurren).

16. grafikoa Kirola egiten duten familia eta lagun inguruneko pertsonak, generoaren arabera.




Prestakuntza zikloari eta adinari dagokionez (17. grafikoa), ikasleek prestakuntza ziklo guztietan adierazi dute lagunak direla kirol gehien egiten duten inguruneko pertsonak. Bereziki Lehen Hezkuntzako amaieratik (10-12 urte) Bigarren Hezkuntzaren amaierara (14-16 urte). Kirolaren ehunekoak handiagoak dira aiten artean amen artean baino adin guztietan, eta biek Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte) duten igoera nabarmendu behar da. Hala ere, neba-arrebak dira, lagunak atzetik, kirola egitearen ehunekorik altuenak dituztenak. Lehen Hezkuntzako lehen zikloan salbu (6-8 urte), kasu horretan amek ehuneko altuagoak dituztelako. Horrez gain, badirudi datu guztiek bilakaera berdi-

na dutela, gora egiten baitute Lehen Hezkuntzako zikloetan (6-12 urte) eta behera Bigarren Hezkuntzako zikloetan (12-16 urte).

Nabarmendu behar da 2017ko txostenarekin erkatuta, kirola egiten duten ikasleen inguruneko pertsonen ehunekoek, oro har, gora egin dutela. Bereziki aita eta amaren figuren artean, aiten kasuan 8 puntu egin baitu gora Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte), 2017an % 65,6 izatetik 2022an % 73,3 izatera. Eta 10 puntu baino gehiago Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (8-10 urte) amen artean, 2017an % 51,4 izatetik 2022an % 62,4 izatera.

17. grafikoa Kirola egiten duten familia eta lagun inguruneko pertsonak, prestakuntza zikloaren eta adinaren arabera.




1.3.2. Kirola egiteko babesaren pertzepzioa

Ikasleen lagun eta familia inguruak kirola egiteari ematen dion garrantzia eta horren bilakaera ezagutzeaz gain, garrantzitsua da jakitea ikasleek gertueko erreferentziazko pertsonen inguruan sentitzen duten pertzepzioaren berri izatea. Ikasleek kirola egin dezaten babes handiena ematen duten figurak, dirudenez, amak dira, % 89,4rekin (18. grafikoa). Ondoren datoz aitak (% 87,9) eta entrenatzaileak

(% 67,4). Lagunak ere kirola egiteko babes figura gisa antzematen dituzte (% 70,2), baita neba-arrebak ere (% 51,4). Puntuaziorik baxuena irakasleek jaso dute (% 43,1). Txosten honetan lortutako datuak 2017ko datuen antzekoak dira. Hala ere, bereziki garrantzitsua da ikasleek irakasleen figurarengandik jasotzen duten babes pertzepzioaren handitzea, ia 6 puntutan egin baitu gora (2017an % 37,9 izatetik 2022an % 43,1 izatera).

18. grafikoa Kirola egiteko babesaren pertzepzioa.



Generoari dagokionez, datuetan desberdintasun arinak ikusten dira ikasleek aitengandik eta amengandik jasotako babesari dagokionez (10. taula). Neskek mutilek baino babes handiagoa sentitzen dute amengandik (% 90 eta % 88,8, hurrenez hurren). Eta, bestalde, aurkakoa gertatzen da aitekin, mutilek gehiago antzematen baitute aiten babesari dagokionez (% 89,2 eta % 86,5, hurrenez hurren). Horrez gain, gainerako figura guztietan mutilek babes handiagoa antzematen dute neskek baino. Bereziki esanguratsua da entrenatzaileen arteko aldea, 10 puntuko aldea baitago (% 72,4 mutilen kasuan eta % 62,1 nesken kasuan).

Ikasleen inguruetatik antzematen duten babesaren pertzepzioaren jarraipenak aldaketak ditu prestakuntza zikloaren eta adinaren arabera. Aitaren figurari dagokionez, beherakada izan du Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (8-10 urte), eta berriz gora egiten du Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-

12 urte); Bigarren Hezkuntzako zikloetan beherantz egiten du (12-16 urte). Amaren figurak ere aitaren bilakaera bera du Lehen Hezkuntzan; hala ere, Bigarren Hezkuntzan, lehen zikloan behera egin arren (12-14 urte), berriz ere igoera arina du bigarren zikloan (14-16 urte). Antzeko bilakaera du lagunaren figurak ere, behera eta gora eginez prestakuntza zikloen eta adinaren arabera, eta bereziki garrantzitsua da Bigarren Hezkuntzan, lehen ziklotik (12-14 urte) bigarren ziklora (14-16 urte) dagoen igoera, ia 5 puntuko. Neba-arreben partetik jasotako babesari dagokionez, gora egiten du Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (8-10 urte), eta ehuneko berdinetan mantendu da Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklora arte (14-16 urte), orduan berriz ere behera egiten baitu. Entrenatzailearen figuraren babes pertzepzioa handitu egiten da Lehen Hezkuntzan zehar (6-12 urte). Hala ere, Bigarren Hezkuntzako zikloetan (12-14 urte) beherantzko bilakaera du.

10. taula Kirola egiteko ikasleen babes pertzepzioa, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera


KIROLA EGITEKO MOTIBAZIO/ BABESAREN PERTZEPZIOA (kop.: 2067)

		Aita	Ama	Neba-arrebak	Lagunak	Entrenatzailea	Irakaslea	Beste pertsona batzuk
Arrazoiak, guztira	Zenbaketa	1817	1848	1062	1452	1393	890	999
	%	% 87,9	% 89,4	% 51,4	% 70,2	% 67,4	% 43,1	% 48,3
GENEROA								
Neska	Zenbaketa	865	900	498	666	621	469	451
	%	% 86,5	% 90	% 49,8	% 66,6	% 62,1	% 46,9	% 45,1
Mutila	Zenbaketa	952	948	564	786	772	421	548
	%	% 89,2	% 88,8	% 52,9	% 73,7	% 72,4	% 39,4	% 51,4
PRESTAKUNTZA ZIKLOA								
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	369	378	198	269	241	226	147
	%	% 90,4	% 92,6	% 48,5	% 65,9	% 59,1	% 55,4	% 36
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	354	357	212	273	264	194	181
	%	% 88,7	% 89,5	% 53,1	% 68,4	% 66,2	% 48,6	% 45,4
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	368	373	217	298	320	172	256
	%	% 90	% 91,2	% 53,1	% 72,9	% 78,2	% 42,1	% 62,6
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	351	354	217	282	274	134	206
	%	% 86	% 86,8	% 53,2	% 69,1	% 67,2	% 32,8	% 50,5
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	375	386	218	330	294	164	209
	%	% 84,7	% 87,1	% 49,2	% 74,5	% 66,4	% 37	% 47,2

ESKOLA KIROL JARDUERAREN INGURUNE SOZIALA

IDEIA NAGUSIAK

- * Ikasleen gertueneko pertsonak kirola egiten dute. Ikasleen lagunen % 92,4k kirola egiten du. Jarraian, neba-arrebak eta aitak ageri dira, ehuneko berdinarekin (% 65,8), eta, azkenik, amak (% 56,4).
- * 10 ikasletik bederatzik aiten eta amen babesak antzematen du kirola egiteko.
- * 10 ikasletik zazpik, gutxi gorabehera, babesak jasotzen du bai entrenatzaileen partetik, bai lagunen partetik.
- * 2017tik, irakasleen partetik jasotako babesak nabarmen egin du gora, ia 6 puntutan (% 37,9tik % 43,1ra).



2. KIROL JARDUERA ANTOLATUA

2

Jarraian, ikasleek, hau da, 6 urtetik 16 urtera arteko gazteek egiten duten kirol jarduera antolatuaren emaitza nagusiak aztertuko dira.

2.1. DATU OROKORRAK

2.2. KIROL JARDUERA ANTOLATUAREN EZAUGARRIAK

2.2.1. Kirol jarduera antolatuen kopurua

2.2.2. Kirol jarduera antolatuen modalitate hedatuenak

2.2.3. Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programako kirol jarduera antolatuak

2.2.4. Eskola kirol antolaturako espazioak

2.3. KIROL JARDUERA ANTOLATUAREN DENBORA DIMENTSIOA

2.3.1. Kirol jarduera antolatuen maiztasuna

2.3.2. Jarduera antolatuan astero emandako ordu kopurua, guztira

2.3.3. Kirol jarduera antolatuan astero emandako orduak

2.3.4. Entrenamenduan astero emandako orduak

2.3.5. Entrenatzen den kirola modu espontaneoan egitea

2.4. LEHIA KIROL JARDUERA ANTOLATUAN

2.4.1. Lehiatzen diren ikasleak

2.4.2. Lehian astero emandako orduak

2.4.3. Lehiaren maiztasuna

2.4.4. Ikasleek lehiari ematen dioten garrantzia

2.5. KIROLA EGITEKO ANTZEMANDAKO OZTOPOAK

2.6. KIROLA EGITEN JARRAITZEKO ASMOA

2.7. KIROL JARDUERA ANTOLATUAN ERABILITAKO HIZKUNTZA


2. KIROL JARDUERA ANTOLATUA



2.1. DATU OROKORRAK


Antolaketa baten barruan eta jarduera gidatuko duen arduradun heldu baten zaintzapean, eskola adinean antolatuta eta eskolaz kanpo gutxienez as- tean behin egiten den kirola ulertzen da kirol jardue- ra antolatu gisa (CSD, 2011).

19. grafikoa Kirol antolatua egiten duten ikasleak.




Kirol antolatua egiten duten ikasleak % 75,3 dira (19. grafikoa). 2017ko txostenean jasotako datuaren an- tzekoa da, orduan datua % 75,2koa izan baitzen.

21. grafikoa Kirol antolatua egiten duten ikasleak, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.



NESKA	% 81,7	% 77,9	% 73,7	% 65,3	% 60,8
MUTILA	% 87,6	% 86,2	% 85,6	% 66,0	% 69,3
BIZKAIA	% 84,8	% 82,0	% 80,0	% 65,7	% 65,2

20. grafikoa Kirol antolatua egiten duten ikasleak, generoaren arabera.



Generoari dagokionez (20. grafikoa), nesken eta mutilen arteko aldea 7 puntukoa da. Mutilen % 78,7k kirol antolatua egiten du, eta nesken kasuan, berriz, datua % 71,7koa da. Nesken eta mutilen arteko por- tzentaje alde hori mutilen aldekoa zen 2017ko txos- tenean, baina 2022ko datuen arabera desberdinta- suna pixka bat txikiagoa da (11,9 puntutik 7 puntura jaitsiz).


Prestakuntza zikloari dagokionez (21. grafikoa), Bizkaian kirol jarduera antolatua Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) lortu du punturik gorena (% 84,8) eta 4,8 puntuko alde txikiarekin mantendu da Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora arte (10-12 urte). Ehuneko horrek nabarmen egiten du behera Bigarren Hezkuntzan, lehen zikloan, % 65,7, eta bigarren zikloan, % 65,2.

2017ko txostenean punturik gorena % 85,3koa izan zen, eta Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan izan zen. Pixkanaka beherakada egon zen Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklora arte, eta orduan % 58,9ra egin zuen behera.


Ikastetxeko titulartasunaren arabera (22. grafikoa), 2017ko txostenean jaso zen ikastetxe pribatu edo itunduetan ikasten duten ikasleek kirol antolatua egiteko ehuneko altuagoak dituztela (% 81,3) ikastetxe publikoetara doazen ikasleek baino (% 67,6). 13,7 puntuko aldea dago. Hala ere, 2022ko txoste-

nean, kirol antolatuaren ehunekoak handiagoak izan arren ikastetxe pribatu edo itunduetan (% 77,2) ikastetxe publikoetan baino (% 72,8), aldea nabarmen txikitu da 4,4 puntura.

22. grafikoa Kirol antolatua egiten duten ikasleak, titulartasunaren arabera.




23. grafikoa Kirol antolatua egiten duten ikasleak, prestakuntza zikloaren eta titulartasunaren arabera.



Prestakuntza zikloaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera kirol antolatua egiteari dagokionez (23. grafikoa), ikusi da ikastetxe publikoen kasuan kirol antolatua egitea irregularra dela. Lehen Hezkuntzako lehen zikloan egiten da horrelako kirola gehien, % 80,5. Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan datuak % 74,7 eta % 75 dira, hurrenez hurren. Hala ere, Bigarren Hezkuntza lehen zikloan % 64ra arte jaisten da, eta berriz ere gora egiten du, % 71,2ra, Bigarren Hezkuntzako

bigarren zikloan. Ikastetxe pribatu eta itunduei dagokionez, kirol antolatua egiteak behera egiten du Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara. Lehen Hezkuntzan desberdina da lehen zikloan (% 86,9) eta bigarren zikloan (% 88), eta berriz ere beherakada arina du, % 86,4ra, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan. Hala ere, beherakada nabarmena du, % 67,3ra arte, Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan, eta beherakada arina du ondoren, % 62,4ra, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan.

24. grafikoa Kirol antolatua egiten duten ikasleak, generoaren, prestakuntza zikloaren eta titulartasunaren arabera.



Generoaren, prestakuntza zikloaren eta ikastetxearen titulartasunaren aldagaiak aztertuz gero (24. grafikoa), beheranzko joera ikusten da ikastetxe pribatu edo itunduetan ikasten duten nesken artean. Hala ere, ikastetxe publikoetara doazen neska eta mutilen kasuan, eta ikastetxe pribatu edo itunduetan ikasten duten mutilen kasuan, beherakada hori adinean aurrera joan ahala ere gertatu arren, gorakada arina dago Bigarren Hezkuntzako lehen ziklotik (12-14 urte) Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklora (14-16 urte).

Ikastetxe publikoetara doazen neskek kirol antolatuko ehunekorik baxuenak dituztela berretsi da, 2017an gertatzen zen bezala, salbu eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte), orduan gora egiten baitu (% 69,1), eta ikastetxe pribatu edo itunduetara doazen nesken gainetik kokatzen da (% 56,9), baita ikastetxe pribatu edo itunduetara doazen mutilek baino pixka bat gorago ere (% 67,1).

Ikastetxe publikoetako neska eta mutilek egiten duten kirol antolatuaren bilakaera oso antzekoa

da. Kirola egiteari dagokionez behera egiten den une kritiko bat dago Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte), baina, 2017an ez bezala, 2022ko txostenean ikusi da Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan gora egiten duela (14-16 urte), nesken kasuan % 60,7 izatetik lehen zikloan (12-14 urte), bigarren zikloan % 69,1 izatera (14-16 urte). Eta mutilen kasuan, lehen zikloan (12-14 urte) % 68,2 izatetik bigarren zikloan (14-16 urte) % 75,4 izatera igaro da.

Ikastetxe pribatu edo itunduen kasuan, 2017ko txostenean antzeko eredia ikus daiteke, hau da, beherakada mailakatua nesken eta mutilen artean. Hala ere, 2022ko txostenean, kirol antolatuaren beherakada antzeman arren, ez da erregularra mutilen kasuan. Datua nahiko berdintsua da Lehen Hezkuntzako ziklo guztietan, Bigarren Hezkuntzako lehen ziklora iritsi arte (12-14 urte) (% 84tik % 64,5era); gorakada arina du Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte), orduan % 67,1era iristen baita.

2.2. KIROL JARDUERA ANTOLATUAREN EZAUGARRIAK

Atal honetan kirol antolatuen ezaugarriak deskribatu dira, eta epigrafe hauei lotutako zenbait datu nabarmen bildu dira: egiten diren kirol jardueren antolatuen kopurua, kirol modalitate hedatuenak, Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirola programako jardueren eskaintzan parte hartzea, jardueren antolatzen dituen eragile edo entitatea eta kirol jardueren egiteko espazioak.


2.2.1. Kirol jardueren antolatuen kopurua

2017an eta 2022an jasotako datuek Bizkaiko ikasleek egiten dituzten kirol jardueren antolatuen batezbesteko kopuruen inguruko datu desberdinak eman zituzten (25. grafikoa). 2017an, ikasleek egindako kirol jardueren antolatuen batezbesteko kopurua

1,4koa izan zen pertsona bakoitzeko. 2022an, batezbestekoa 1,1koa izan zen pertsona bakoitzeko, hau da, pertsona bakoitzak egindako kirol jardueren batezbestekoak beherakada arina izan zuen.


Bi txostenetan ikusi da antolatutako kirol jardueren batezbestekoari dagokion kurbak behera egin duela ikasleek adinean aurrera egin ahala. 2017an beherakada hori batez ere Lehen Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera ikusi da (8-10 urte). Lehen Hezkuntzako lehen zikloan egindako 1,71 jardueren batezbestekotik Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan 1,2 jarduerara igaro zen. 2022an, batezbestekoak modu mailakatuan egin du behera Lehen Hezkuntzako lehen ziklotik (6-8 urte) Bigarren Hezkuntzako lehen ziklora arte (12-14 urte), eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte) batezbesteko berdinean (0,7) mantendu da.

25. grafikoa Egindako kirol jardueren antolatuen batezbestekoa, prestakuntza zikloaren arabera.



Egindako jardueren kopurua ehunekoetan adierazteari dagokionez (26. grafikoa), ikusi da ikasleek % 63,3k kirol jardueren bakarra egiten duela, % 26,2k bi jardueren egiten dituela, % 7,4k hiru jardueren eta

% 2,8k lau kirol jardueren antolatura arte egiten dituela. Horrenbestez, eskola populazioaren % 89,5ek kirol jardueren antolatu bat eta bi artean egiten ditu.

26. grafikoa Kirol jarduera antolatuen kopurua.

2.2.2. Kirol jarduera antolatuen modalitate hedatuenak

2017ko zein 2022ko txostenean eskola ordutegitik kanpo modu antolatuan egiten zituzten kirol modalitate bat eta lau artean aukeratzeko eskatu zitzaizen ikasleei. Jarduera ohikoagotzat jotzen dira % 5etik gorako ehunekoak dituzten jarduerak; hori kontuan hartuta, jasotako emaitzen arabera (11. taula) bi txostenetan jarduera ohikoenak dira futbola (2017an % 34,1 eta 2022an % 25,22), igeriketa (2017an % 16,3 eta 2022an % 14,7) eta saskibaloia (2017an % 14,0 eta 2022an % 8,1).

Generoaren ikuspuntutik (12. taula eta 27. eta 28. grafikoak), ikusi da futbolak, Bizkaiko ikasleentzat modalitate nagusia izateaz gain, mutilen artean gehien egindako modalitatea izaten jarraitzen duela, 2017an % 58 eta 2022an % 40,3. Hala ere, ez da gauza bera gertatzen nesken kasuan; nesken kasuan, gehien egindako hiru jarduerak saskibaloia (2017an % 21,7 eta 2022an % 11,7), igeriketa (2017an % 18,4 eta 2022an % 17,4) eta, dantza ez denez kirol modalitate modura hartzen, 2017an gehien egindako hirugarren jarduera gimnastika erritmikoa izan zen (% 9,6) eta 2022an futbola (%7,4).


Bi txostenetan ikusi da saskibaloia eta igeriketa neska zein mutilen modalitate komunak direla. Mutilek igeriketari ematen diote lehentasuna (2017an %14,6 eta 2022an %12,4) saskibaloia ginetik (2017an %7,6 eta 2022an %5,1).

Txosten honetan jasotako hainbat datu ikusita pentsa daiteke kirol jardueran oraindik indarrean dauden zenbait genero estereotiporekin nolabait hautsi egin dela. Adibidez, 2017an futbola nesken artean gehien hedatutako laugarren modalitatea zen, eta 2022ko txostenean, aldiz, hirugarrena izatera igaroda. Horrek berresten du neskek hasi direla tradizionalki maskulinoak izan diren modalitateak aukeratzeko. Hala ere, mugikortasuna hori ez da aurkako noranzkoan gertatzen. Mutilek ez dituzte haien kirol modalitate garrantzitsuenetan tradizionalki femeni-notzat jotako jarduerak barne hartu.


11. taula Kirol jarduera modalitate hedatuenak.

2022	
Kirol modalitatea	Ikasleen %
Futbola	% 25,26
Igeriketa	% 14,7
Saskibaloia	% 8,11
Dantza	% 4,6
Atletismoa	% 4,4
Arte martzialak	% 4,3
Gimnastika erritmikoa	% 3,4
Kirol anitza	% 3,4
Esku pilota	% 2,5
Gimnasia	% 2,2
Eskubaloia	% 1,8
Eskalada	% 1,8
Patinajea	% 1,8

27. grafikoa Kirol jarduera antolatuen modalitate hedatuenak nesken artean.



28. grafikoa Kirol jarduera antolatuen modalitate hedatuenak mutilen artean.



12. taula Gehien egindako kirol modalitateen konparaketa, generoaren arabera (2017-2022).


NESKAK				MUTILAK			
2017		2022		2017		2022	
Saskibaloia	% 21,7	Igeriketa	% 17,4	Futbola	% 58,0	Futbola	% 40,3
Igeriketa	% 18,4	Saskibaloia	% 11,7	Igeriketa	% 14,6	Igeriketa	% 12,4
Dantza	% 17,6	Dantza	% 9,6	Saskibaloia	% 7,6	Saskibaloia	% 5,1
Gimnastika erritmikoa	% 9,6	Futbola	% 7,4	Esku pilota	% 4,7	Atletismoa	% 4,3
Futbola	% 6,0	Gimnastika erritmikoa	% 7,1	Taekwondoa	% 4,3	Esku pilota	% 3,9
Balleta	% 5,9	Atletismoa	% 4,4	Karatea	% 3,5	Arte martzialak	% 3,9
Atletismoa	% 5,6	Arte martzialak	% 4,1	Tenisa	% 3,4	Kirol anitza	% 3,1
Hipika	% 4,7	Kirol anitza	% 3,9	Judoa	% 3,1	Eskalada	% 2
Boleibola	% 4,4	Patinajea	% 3,2	Atletismoa	% 2,6	Gimnasioa	% 1,6
Padela	% 3,3	Hipika	% 2,4	Areto futbola	% 2,3	Eskubaloia	% 1,6
Patinajea	% 3,0	Eskubaloia	% 2,1	Kirol anitza	% 2,3	Txirrindularitza	% 1,6
Zunba	% 3,0	Eskalada	% 1,7	Surfa	% 2,3	Errugbia	% 1,2
Tenisa	% 2,9	Boleibola	% 1,1	Eskubaloia	% 2,0	Tenisa	% 1,2
Eskubaloia	% 2,7	Pala	% 1,1	Txirrindularitza	% 2,0	Arrauna	% 0,8

2.2.3. Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programako kirol jarduera antolatutak

Jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programa osatzen duten eta ikasleek egiten dituzten eskola kirol jarduera antolatutak deskribatuko dira.

Datuen arabera (29. grafikoa), 2017an antolatutako jarduera guztietatik % 43,7 Eskola Kirola programako parte ziren, eta 2022an beherakada egon da eta datua % 35,3koa izan da. 2017an % 37 ez zen programa horren parte, eta 2022an % 26,6. Eta ez zegoen informazio horren berri % 19,3n (2017) eta % 38,1ean (2022).

29. grafikoa *Ikasleen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programaren esparruan egiten diren kirol jarduera antolatutak.*




Datu hau aldatu egiten da generoaren arabera (30. grafikoa). Jarduerak Eskola Kirola programakoak direla berresten duten erantzunen ehunekoa handiagoa da mutilen kasuan bi txostenetan (2017an % 52,0 eta 2022an % 45,1); nesken kasuan ehunekoa txikiagoa da, eta % 34,0ra (2017) eta %31,8ra (2022) iritsi zen. Ez daki/Ez du erantzun aukeraren ehunekoak antzekoak dira bi generoetan.


Prestakuntza zikloari dagokionez (31. grafikoa), Eskola Kirola programako jardueren parte hartze ehunekoa Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan iritsi zen punturik gorenera, % 44rekin.

Nabarmendu behar da informazio hori interpretatu egin behar dela, gerta daitekeelako jarduerak Eskola Kirola programaren parte izateari buruzko datu hori ikasleek hobeto jakitea adinean aurrera egin ahala.


30. grafikoa *Ikasleen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programaren esparruan egiten diren kirol jarduera antolatutak, generoaren arabera.*



31. grafikoa Ikasleen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programaren esparruan egiten diren kirol jarduera antolatutak, prestakuntza zikloaren arabera.



32. grafikoa Ikasleen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programaren esparruan egiten diren kirol jarduera antolatutak, titulartasunaren arabera.




Ikastetxeen titulartasunari dagokionez (32. grafikoa), 2017ko txostenean ikasleen ikastetxeen titulartasunak ez zeukan, itxuraz, inolako eraginik Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola eskaintzan parte hartzean. Parte hartzearen ehunekoa % 43koa zen titulartasun publikoko ikastetxeetan, eta % 44koa titulartasun pribatu edo itunduetan. Hala ere, 2022ko txostenean ikusi da ehuneko horretan alde handiagoa dagoela; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiko Eskola Kirolaren eskaintzan parte hartzea handiagoa da ikastetxe pribatu edo itunduetan (% 42) ikastetxe publikoetan baino (% 35).

Kirol jarduera antolatuen entitate arduradunei dagokienez (33. grafikoa), 2017an zein 2022an ikasleek modu antolatuan egindako jardueren % 36 kirol

klubek antolatu zituzten, eta ondorengo entitate arduraduna ikastetxea da, % 25 (2017) eta % 34 (2022), eta, neurri txikiagoan, udal kiroldegia, % 15 (2017) eta % 21 (2022).

33. grafikoa Kirol jarduera antolatuen entitate arduradunak.



13. taula Kirol jarduera antolatuen entitate arduradunak, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

NORK ANTOLATU DU JARDUERA? (ERANTZUN KOP.: 2.344)							
		Ikastetxea	Kirol klubak	Udal kiroldegia	Gimnasioa	Beste batzuk	Ez daki/ Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	787	837	486	122	281	178
	%	% 33,5	% 35,7	% 20,7	% 5,2	% 11,9	% 7,5
GENEROA							
Neska	Zenbaketa	205	354	250	63	125	399
	%	% 19,0	% 32,8	% 23,2	% 5,8	% 11,6	% 37,0
Mutila	Zenbaketa	235	544	236	40	110	84
	%	% 18,5	% 42,9	% 18,6	% 3,1	% 8,6	% 6,6
PRESTAKUNTZA ZIKLOA							
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	202	162	188	30	89	10
	%	% 29,6	% 23,7	% 27,6	% 4,4	% 13,0	% 1,4
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	103	174	129	23	61	57
	%	% 18,4	% 31,2	% 23,1	% 4,1	% 10,9	% 10,2
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	96	144	90	15	48	48
	%	% 21,7	% 32,6	% 20,4	% 3,4	% 10,8	% 10,8
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	17	167	157	15	42	36
	%	% 5,3	% 52,3	% 49,2	% 4,7	% 13,1	% 11,2
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	12	189	38	39	41	27
	%	% 3,4	% 54,6	% 10,9	% 11,2	% 11,8	% 7,8

Generoari eta prestakuntza zikloari dagokienez (13. taula), 2017ko emaitzekin bat etorri, mutilek kirol klubek antolatutako kirol jardueren ehuneko handiagoa egiten dute neskek baino, %42,9 eta % 32,8. Neskak arinki gailentzen dira udal kiroldegiek antolatutako jardueretan (%23,2, mutilen kasuan % 18,6), eta ia berdintsu mantendu dira ikastetxeek antolatutako jardueren kasuan (nesken kasuan %19, mutilen kasuan % 18,5).

2017ko txostenean, Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloan zehar (6-10 urte) jarduerak batez

ere ikastetxeek antolatu zituzten (% 35 eta % 38,6, hurrenez hurren). Hala ere, 2022ko txostenean Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) zehar jarduerak ehuneko antzekoetan eragile hauek antolatu dituzte, hurrenkera honetan: ikastetxeak (% 29,6), udal kiroldegiak (% 27,6) eta kirol klubak (% 23,7). Eta Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (8-10 urte), jarduera gehienak kirol klubek antolatu dituzte (% 31,2). Gainerako hezkuntza etapetan kirol zentroek antolatzen dute kirol jarduera antolatuen ehunekorik handiena.

2.2.4. Eskola kirol antolaturako espazioak


Kirol antolatua egiteko lekuari dagokionez, 2017an hasitako joera berretsi da. 2022an ikasleen %48,8k udal kiroldegietan egin zuen kirola; %18,5ek ikastetxean bertan, eta, hala, 2017. urtearekin erkatuta, ia 8 puntu egin zuen behera (34. grafikoa).

14. taulan generoari, prestakuntza zikloari eta ikastetxeko titulartasunari buruzko datuak ageri dira. Neskek, batez ere, haien ikastetxean bertan (%21,3), udal kiroldegietan (%20,6) eta espazio naturaletan (%18) egiten dituzte kirol jarduerak. 2017ko txostenarekin erkatuta, bi lehen aukeretako nesken ehunekoak nabarmen egin du behera, eta espazio naturaletan antolatutako kirol jarduerak nabarmen egin dute gora. Mutilek, ostera, jarraitzen dute udal kiroldegiak lehen aukera modura erabiltzen (% 52,2) eta, bigarren aukera modura, ikastetxeak (% 17,2).

Lehen zein Bigarren Hezkuntzako zikloetan (Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa salbu), udal kiroldegietan kirol jarduerak antolatuak egiteak pixkanaka gora egin du, % 57,3ra iritsiz; bestalde, ikastetxeetan bertan kirol jarduerak antolatuak egiteak pixkanaka behera egin du Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) % 33,3 izatetik Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte) % 4 izan arte.

Ikasleen ikastetxeen titulartasuna garrantzitsutzat jo da kirol jarduerak antolatua egiteko espazioak aukeratzean. 2017an argitaratutako txostenean bezalaxe, udal kiroldegiak erabiltzea da ikastetxeen artean gehien erabilitako aukera, baina erabilera horrek gora egin du aurreko txostenarekin erkatuta % 54,1 ikastetxe publikoetan (2017an % 45,3) eta % 45,4 ikastetxe pribatu edo itunduetan (2017an % 38,8).

34. grafikoa Kirol antolatua egiteko espazioak.



14. taula Kirol jarduera antolatua egiteko espazioak, generoaren, prestakuntza zikloaren eta titulartasunaren arabera.
NON EGITEN DA JARDUERA? (ERANTZUN KOP.: 2344)

		Nire ikastetxean bertan	Udal kiroldegietan	Kalean	Gimnasio pribatuetan	Espazio naturaletan	Ez daki/ Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	434	1146	151	225	124	264
	%	% 18,5	% 48,8	% 6,4	% 9,5	% 5,2	% 11,2

GENEROA

Neska	Zenbaketa	215	484	64	123	182	130
	%	% 21,3	% 20,6	% 6,3	% 12,2	% 18,0	% 12,9
Mutila	Zenbaketa	219	662	87	93	64	134
	%	% 17,2	% 52,2	% 8,6	% 7,3	% 5,0	% 10,5

PRESTAKUNTZA ZIKLOA

Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	227	292	18	70	25	49
	%	% 33,3	% 42,8	% 2,6	% 10,2	% 3,6	% 7,1
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	106	263	47	51	32	58
	%	% 19,0	% 47,2	% 8,4	% 9,1	% 5,7	% 10,4
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	70	235	39	16	21	60
	%	% 15,8	% 53,2	% 8,8	% 1,3	% 4,7	% 13,6
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	17	183	22	37	16	44
	%	% 5,3	% 57,3	% 6,8	% 11,5	% 5,0	% 13,7
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	14	173	25	51	30	53
	%	% 4,0	% 50	% 7,2	% 14,7	% 8,6	% 15,3

TITULARTASUNA

Ikastetxe publikoa	Zenbaketa	63	502	94	84	71	113
	%	% 6,7	% 54,1	% 10,1	% 9,0	% 7,6	% 12,1
Ikastetxe pribatu edo itundua	Zenbaketa	371	644	57	198	53	151
	%	% 26,1	% 45,4	% 4,0	% 13,9	% 3,7	% 10,6

KIROL JARDUERA ANTOLATUAREN EZAUGARRIAK

IDEIA NAGUSIAK

- * Kirol antolatua egiten duten ikasleak % 75,3 dira; 2017ko txostenean jasotako datuaren antzekoa da (% 75,2).
- * 022ko datuen arabera, mutilen % 78,7k kirol antolatua egiten du, eta nesken kasuan, berriz, datua % 71,7koa da; aldea 2017an baino pixka bat txikiagoa da, 11,9 puntutik 7 puntura jaitsi baita.
- * Kirol antolatua gehien egiten duten ikasleak Lehen Hezkuntzako lehen zikloko (6- 8 urte) mutilak dira, % 87,6, eta gutxien egiten dutenak neskek dira, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14- 16 urte), % 60,8.
- * 2017an zein 2022an, kirol antolatua gehien egiten duen populazioa ikastetxe pribatu edo itunduetan dago, eta kirol antolatua Lehen Hezkuntzako zikloetan egiten da gehien (6-12 urte).
- * Populazioaren ehunekorik handienak kirol antolatuko jarduera bakarra egiten du, baina ehuneko hori handiagoa izan zen 2017an, % 66,8, 2022an baino, % 63,6, eta bi kasuetan behera egiten du adinean gora egin ahala.
- * 2017an zein 2022an, kirol jarduera antolatuen modalitate hedatuenak, mutilen kasuan, futbola, igeriketa eta saskibaloia dira, eta nesken kasuan saskibaloia, igeriketa, eta, 2017an neskek gehien egindako hirugarren jarduera gimnastika erritmikoa izan zen, eta 2022an futbola.
- * Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programaren eskaintzan parte hartzea handiagoa da ikastetxe pribatu edo itunduetan.
- * 2017an zein 2022an, ikasleek modu antolatuan egiten dituzten jardueren % 36 kirol klubek kudeatu dituzte.
- * Kirol antolatua egiteko espaziorik erabilienak udal kiroldegiak dira eskola adinaren etapa guztietan.

2.3. KIROL JARDUERA ANTOLATUAREN DENBORA DIMENTSIOA

Bizkaiko ikasleen kirol jarduera antolatuen denbora dimentsioaren irakurketa orokorra izate aldera, jarraian funtsezko zenbait aldagai aztertu dira, koordenatu horretan sakontzeko:

- Kirol antolatuari astero emandako saio kopurua edo maiztasuna
- Kirol antolatuari astero emandako ordu kopurua, guztira
- Kirol antolatua egiten den asteko egunak
- Entrenamenduari astero emandako ordu kopurua eta entrenamenduaren batez besteko iraupena


- Entrenatzen den kirola modu espontaneoan egitea

2.3.1 Kirol jarduera antolatuen maiztasuna

Kirol jarduera antolatuen maiztasuna funtsezko aldagai da jakiteko ikasleak zein neurritan diren kolektibo aktiboa.

Analisiaren emaitzek erakusten dutenez, % 36,7k astean 3-4 aldiz egiten du kirol antolatua; 2017an lortutako ehunekoa baino baxuagoa da (% 54,3). Bigarrenik, Ez daki/ez du erantzun aukera erantzun duen ikasleen ehunekoa aintzat hartu gabe (% 24,7), % 19,3k bi aldiz astean egiten du, eta 2017an bezala mantendu da; 5 eta 6 saio artean egiten dituzten ikasleen ehunekoak 5 puntu egin du gora, % 9,9ra iritsiz (35. grafikoa).

35. grafikoa Kirol jarduera antolatuan astero emandako dedikazioa.



Generoaren arabera lortutako datuei dagokienez (15. taula), bi generoetan asteroko jardunak behera egin du 2017ko datuekin alderatuta. 2017an, nesken kasuan % 48,9k 3-4 aldiko maiztasuna adierazi zuen, baina 2022an datua % 31,3koa izan zen. Mutilen kasuan, datua da % 59tik % 41,8ra igaro dela. Nabarmendu behar da, halaber, 2017an, 3-4 aldiko maiztasuna dela gehien egiten dena. Neskek gehiagotan aukeratu dituzte 2 aldiz astean eta astean behin aukerak mutilek baino (lehen aukera % 20,9, eta mutilen kasuan % 17,8; bigarren aukeran neskek % 10,5 eta mutilek % 4,2). Bestalde, mutilek 5-6 aldiz astean aukera gehiagotan aukeratu dute neskek baino (% 11,8 eta % 7,9).

Astean 3 eta 4 aldiz kirol antolatua egiten duten ikasleen ehunekoa aukerarik hautatuena da bai 2017an, bai 2022an. Hala ere, 2017an bezalaxe, ez da joera argirik ikusten, ehunekoa prestakuntza ziklo guztietan mantendu baita Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan salbu (8 urtetik 10 urtera), non beharakada nabarmena izan duen aurreko prestakuntza zikloarekin alderatuta, % 40,7tik % 30,8ra. 2017an bezalaxe, astean 5 eta 6 aldiz kirol antolatua egiteko maiztasunak gora egiten du prestakuntza zikloetan aurrera egin ahala, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte) % 14,4ra iritsi arte (5 puntu gutxiago 2017an baino).

15. taula Kirol jarduera antolatuei astean emandako dedikazioa, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

KIROL JARDUERA ANTOLATUAN ASTERO EMANDAKO DEDIKAZIOA (ERANTZUN KOP.: 1.557)							
		Behin	2 aldiz	3-4 aldiz	5-6 aldiz	6tik gora	Ez daki/Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	150	399	759	205	44	510
	%	% 7,3	% 19,3	% 36,7	% 9,9	% 2,1	% 24,7
GENEROA							
Neska	Zenbaketa	105	209	313	79	11	183
	%	% 10,5	% 20,9	% 31,3	% 7,9	% 1,1	% 28,3
Mutila	Zenbaketa	45	190	446	126	33	227
	%	% 4,2	% 17,8	% 41,8	% 11,8	% 3,1	% 21,3
PRESTAKUNTZA ZIKLOA							
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	34	107	166	31	8	62
	%	% 8,3	% 26,2	% 40,7	% 7,6	% 2	% 15,2
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	43	114	123	38	9	72
	%	% 10,8	% 28,6	% 30,8	% 9,5	% 2,3	% 18
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	39	79	172	32	5	82
	%	% 9,5	% 19,3	% 42,1	% 7,8	% 1,2	% 20
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	19	52	146	40	11	140
	%	% 4,7	% 12,7	% 35,8	% 9,8	% 2,7	% 34,3
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	15	47	152	64	11	154
	%	% 3,4	% 10,6	% 34,3	% 14,4	% 2,5	% 34,8

2.3.2 Kirol jarduera antolatuan astero emandako ordu kopurua, guztira


Eskola kirol jarduera antolatuaren asteroko maiztasunari buruzko datuak osatu egiten dira jarduera horietan astero emandako ordu kopuru guztia identifikatuz (entrenamendu orduak, partidak eta lehiaketak barne hartuz) (36. grafikoa).

2017ko emaitzei dagokienez, nabarmendu behar da ez daki/ez du erantzun aukera % 2,2tik % 24,7ra igo dela. Azken datu hori adinaren arabera banakaturaz, aurkitu da erantzun hori aukeratu zutela Lehen Hezkuntzako lehen zikloko (6-8 urte) ikasleen % 15,2k, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko (8-10 urte) ikasleen % 18k, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko (10-12 urte) ikasleen %20k, Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko (12-14 urte) ikasleen

% 34,3k, eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleen (14-16 urte) % 34,8k. Horregatik, asteko orduen maiztasunaren ordena bera mantendu arren, 5 ordu edo gehiagoko ehunekoak % 38,2 izatetik % 22,5 izatera pasatu dira, eta asteko lau orduko maiztasunaren ehunekoa % 20,4tik % 15,4ra.

Generoa kontuan hartuz (16. taula), kirol jarduera antolatuari mutilek eskaintzen dizkioten orduen kopuru osoa batez ere asteko 4 ordu edo gehiagotan biltzen da (% 27,8), 2017an bezalaxe, baina behe-rakada nabarmena izan du (2017an % 44,4), baliteke ez daki/ez du erantzun ataleko erantzunek gora egin izanagatik. Nesken kasuan, kirol jarduera antolatuko orduen ehunekorik altuena, ez daki/ez du erantzun aukera kenduta, astero 5 ordu edo gehiagokoa da (% 16,9, 2017an baino 14 puntu gutxiago).

36. grafikoa Kirol jarduera antolatuan astero emandako ordu kopurua, guztira.



16. taula Kirol jarduera antolatuei astean emandako ordu kopurua, guztira, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

KIROLA EGITEN ASTEAN EMANDAKO ORDU KOPURUA, GUZTIRA (ERANTZUN KOP.: 1.557)								
		Ordubete baina gutxiago	Ordubete	2 ordu	3 ordu	4 ordu	5 ordu edo gehiago	Ez daki/ Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	45	158	278	292	318	466	510
	%	% 2,2	% 7,6	% 13,4	% 14,1	% 15,4	% 22,5	% 24,7
GENEROA								
Neska	Zenbaketa	26	87	166	134	135	169	283
	%	2,6	% 8,7	% 16,6	% 13,4	% 13,5	% 16,9	% 28,3
Mutila	Zenbaketa	19	71	112	158	183	297	227
	%	% 1,8	% 6,7	% 10,5	% 14,8	% 17,2	% 27,8	% 21,3
PRESTAKUNTZA ZIKLOA ETA ADINA								
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	17	22	88	89	87	43	62
	%	% 4,2	% 5,4	% 21,6	% 21,8	% 21,3	% 10,5	% 15,2
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	20	52	69	67	58	61	72
	%	% 5	% 13	% 17,3	% 16,8	% 14,5	% 15,3	% 18
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	8	46	52	73	82	66	82
	%	% 2	% 11,2	% 12,7	% 17,8	% 20	% 16,1	% 20
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	---	21	36	35	54	122	140
	%	---	% 5,1	% 8,8	% 8,6	% 13,2	% 29,9	% 34,3
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	---	17	33	28	37	174	154
	%	---	% 3,8	% 7,4	% 6,3	% 8,4	% 39,3	% 34,8

Prestakuntza zikloa aintzat hartuz (16. taula), ikus daiteke 2017an hartutako joera mantendu egin dela, eta prestakuntza zikloak pasatu ahala, kirol antolatuari 5 ordu edo gehiago eskaintzen dizkieten ikasleek ehunekoak gora egin duela; Bigarren Hezkun-

tzako bigarren zikloan (14-16 urte) % 39,3 izatera iritsi da. Hala ere, deigarria da 2017an eta 2022an lortutako emaitzen artean tarte horretan bertan izandako aldea (% 61,7 eta % 39,3).

2.3.4 Kirol jarduera antolatuan astero emandako orduak


Soilik entrenamenduari astero eskaintako ordu kopurua aintzat hartuz gero (37. grafikoa), ikusten da % 46,8k tarte horri ordubete eta hiru ordu artean eskaintzen dizkiola; 2017. urtearekin erkatuta, 6 puntu egin du behera; % 22,6k 4 eta 6 ordu artean eskaintzen dizkio, horrek ere 12,4 puntu egin du behera aurreko analisiarekin erkatuta. Ez daki/ez du erantzun erantzun duten ikasleen gorakada nabarmendu behar da, % 2,7tik % 24,7ra igo baita.

17. taulan ikus daitekeen moduan, ikasleen kirol jarduera antolatua batez ere astelehenetan (% 51,3), asteazkenetan (% 52,2), ostegunetan (% 54,3) eta larunbatetan (% 52) biltzen da; ostiraletan kirol jarduera antolatua egiteak nabarmen egin du behera, 2017an % 54,7ra iristen zen eta 2022an, berriz, % 43,2ra.

Datuak generoaren arabera aztertuz gero (18. taula), ikusten da, 2017ko analisisian gertatzen zen bezala, mutilek denbora gehiago ematen dutela entrenamenduan neskek baino. 4 eta 6 ordu artean entrenatzen da mutilen % 26,1, eta nesken % 19. Horrez gain, astero 6 ordu baino gehiago entrenatzen da mutilen % 6,9 eta nesken % 4,8. Eta 1 eta 3 ordu artean entrenatzen da nesken % 47,9, eta mutilen % 45,7. Ehuneko guztiek behera egin dute 2017an lortutako datuekin erkatuta; baliteke hala gertatu izana ez daki/ez du erantzun aukerak gora egin duelako.

Prestakuntza zikloari dagokionez, 2017an lortutako datuen ildo beretik, Lehen Hezkuntzako zikloetan (6-12 urte) ordubete eta hiru ordu arteko dedikazioa nagusitu da kasu guztietan, % 63 inguru. Bestalde, 2017an Bigarren Hezkuntzan aukerarik hautatuena 4 eta 6 ordu arteko asteko entrenamendua izan zen arren, 2022an Bigarren Hezkuntzako bi zikloetan entrenamendurik aukeratuena ordubete eta 3 ordu artekoa izan da.

37. grafikoa Entrenamenduetan astero emandako ordu kopurua, guztira.



17. taula Kirol jarduera antolatuan astero emandako egunak.

ASTEKO ZEIN EGUNETAN EGITEN DUZU KIROL ANTOLATUA? (ERANTZUN KOP.: 1.557).

Astelehena		Asteartea		Asteazkena		Osteguna		Ostirala		Larunbata		Igandea	
Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
799	% 51,3	777	% 49,9	813	% 52,2	845	% 54,3	673	% 43,2	809	% 52	348	% 22,4

18. taula Entrenamenduetan astero emandako ordu kopurua, guztira, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

SOILIK ENTRENAMENDUARI ZENBAT ORDU ESKAINTZEN DIZKIOZU ASTEAN?					
		1-3 ordu	4-6 ordu	6 ordutik gora	Ez daki/Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	967	468	122	510
	%	% 46,8	% 22,6	% 5,9	% 24,7
GENEROA					
Neska	Zenbaketa	479	190	48	283
	%	% 47,9	% 19	% 4,8	% 28,3
Mutila	Zenbaketa	488	278	74	227
	%	% 45,7	% 26,1	% 6,9	% 21,3
PRESTAKUNTZA ZIKLOA					
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	253	85	8	62
	%	% 62	% 20,8	% 2	% 15,2
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	251	65	11	72
	%	% 62,9	% 16,3	% 2,8	% 18
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	232	80	15	82
	%	% 65,7	% 19,6	% 3,7	% 20
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	131	108	29	140
	%	% 32,1	% 26,5	% 7,1	% 34,3
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	100	130	59	154
	%	% 22,6	% 29,3	% 13,3	% 34,8

2.3.4. Entrenamenduen batez besteko iraupena

Entrenamenduen batez besteko iraupenari dagokionez (19. taula), ikasleen % 77k adierazi du entrenamendu bakoitzaren iraupena ordubete eta bi ordu artekoa dela; aukera hori 2017an baino 14,4 puntu altuagoa da. Nesken zein mutilen entrenamenduek ordubete eta bi ordu artean irauten dute, nesken % 73,5 eta mutilen % 80,2; gainerako aukerak oso datu baxuak lortu dituzte. Aukera ia guztiak % 10etik behera daude. Horrek esan nahi du 2017. urtearekin alderatuta joera aldatu egin dela, orduan

entrenamenduen batez besteko iraupena modu ekitatiboagoan banatzen baitzen generoen artean.

2017an egindako analisisan ez bezala, orduan Lehen Hezkuntzako lehenengo bi zikloetan ordubeteko entrenamenduak gailentzen baitziren (% 80,6 eta % 65,3), 2022an prestakuntza ziklo guztietan (6-16 urte), ordubete eta bi ordu arteko entrenamenduak dituzten ikasleen ehunekoa nagusitu da, eta pixkanaka gora egiten du Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa bukatu arte, % 84ra iritsiz.

19. taula Entrenamenduen batez besteko iraupena, generoaren, prestakuntza zikloaren eta adinaren arabera.

ZENBAT IRAUTEN DU ENTRENAMENDU BAKOITZAK? (ERANTZUN KOP.: 1.557)						
		Ordubete baino gutxiago	1 eta 2 ordu artean	2 eta 3 ordu artean	3 eta 4 ordu artean	4 ordutik gora
Guztira	Zenbaketa	159	1199	127	9	63
	%	% 10,2	% 77	% 8,2	% 0,6	% 4
GENEROA						
Neska	Zenbaketa	91	525	64	4	33
	%	% 12,7	% 73,5	% 8,9	% 0,6	% 4,6
Mutila	Zenbaketa	68	674	63	5	30
	%	% 8,1	% 80,2	% 7,5	% 0,6	% 3,6
PRESTAKUNTZA ZIKLOA						
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	76	237	4	0	29
	%	% 22	% 68,5	% 1,2	% 0	% 8,4
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	42	257	8	1	19
	%	% 12,8	% 78,6	% 2,4	% 0,3	% 5,8
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	27	279	17	2	2
	%	% 8,3	% 85,3	% 5,2	% 0,6	% 0,6
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	5	225	33	2	3
	%	% 1,9	% 84	% 12,3	% 0,7	% 1,1
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	9	201	65	4	10
	%	% 3,1	% 69,6	% 22,5	% 1,4	% 3,5

2.3.5. Entrenatzen den kirola modu espontaneoan egitea


38. grafikoan ikus daitekeen moduan, ikasleen % 73,7k entrenatzen den kirol modalitatea modu espontaneoan egiten du, eskola ordutegitik kanpo. Ez dago inolako desberdintasun nabarmenik 2017an egindako analisiarekin erkatuta; horrenbestez, eskola kirol antolatua ikasleen kirol ohituretan duen eragin potentziala finkatu egiten da, eta aisialdian txertatzen duten jardueraren zaletasuna indartzen laguntzen du.

2017. urtean bezala, genero aldagaiak alderdi honi dagokionez ere desberdintasunak ekarri ditu (39. grafikoa). Mutilen % 67,8k (2017an % 79,2) kirola modu espontaneoan egiten duela adierazi du, eta nesken % 78,7k; azken datu hori 2017an lortutako datua (% 67,6) baino pixka bat altuagoa da.


Prestakuntza zikloetan aurrera egin ahala, joerak behera egiten du (40. grafikoa). Bigarren Hezkun-

tzako bigarren zikloko ikasleek (14-16 urte) baieztatu dute aurreko zikloetan baino ohitura gutxiago dutela (% 63,7, eta Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko (8-10 urte) ikasleen datua % 78,9 da). Nabarmendu behar da 2017. urteko joera berdina izan arren, 2022an entrenatzen den kirola modu espontaneoan egiteko ohitura handiagoa dagoela Bigarren Hezkuntzan, eta etapa horretako bigarren zikloan 6,7 puntu gehiago lortu dira (14-16 urte).


38. grafikoa Entrenatzen den kirola modu espontaneoan egitea.



39. grafikoa Entrenatzen den kirolaren jardun espontaneo, generoaren arabera.



40. grafikoa Entrenatzen den kirola modu espontaneoan egitea, prestakuntza zikloaren arabera.



KIROL JARDUERA ESPONTANEOAREN DENBORA DIMENTSIOA

IDEIA NAGUSIAK

- * Ikasleen heren batek baino gehiagok (% 36,7) kirol antolatua egiten du, astean 3 eta 4 aldi artean.
- * Neska eta mutil gehienek astero 3-4 aldiz egiten dute kirola (mutilen % 41,8 eta nesken % 31,3).
- * Ikasleen adin tarte guztietan, kirol antolatua astean 3-4 aldiz egiten da.
- * Ikasleen % 22,5ek astean 5 ordu edo gehiago gordetzen ditu kirol antolatua egiteko; % 15,4k 4 ordu.
- * Mutilek neskek baino denbora gehiago ematen dute entrenatzen.
- * Ikasleen % 73,7k entrenatzen den kirol modalitatea egiten du eskolako ordutegitik kanpo.
- * Ohitura hori izatea adierazi duten nesken ehunekoak mutilena baino altuagoa da (% 78,7; mutilen kasuan, % 67,8).
- * Joera horrek behera egiten du adinean aurrera joan ahala.


2.4. LEHIA KIROL JARDUERA ANTOLATUAN

Hurrengo paragrafoetan lehiak kirol antolatuan duen presentziari, ezaugarriei eta ikasleentzat lehiak duen garrantziari buruzko emaitzak jaso dira.


2.4.1. Lehiatzen diren ikasleak

Kirol jarduera antolaturen bat egiten duten ikasleek %73,7 modalitatearen batean lehiatzen da (41. grafikoa). Datu horiek beherakada arina izan dute 2017az geroztik (% 74).

41. grafikoa Lehiatzen diren ikasleak.



42. grafikoa Lehiatzen diren ikasleak, generoaren arabera.




Kirol lehiaketa antolatuetako parte hartzea generoa aintzat hartuz (41. grafikoa) aztertuz gero, ikusten da mutilen (% 67,3) eta nesken (% 45,2) arteko desberdintasun portzentuala 22 puntukoa dela. 2017an alde hori 17,2 puntukoa izan zen.

Prestakuntza zikloaren eta adinaren arabera (43. grafikoa), Lehen Hezkuntzako lehen zikloko (6-8 urte) ikasleentzat lehiak ez du eraginik, soilik % 18 lehiatzen baita. Hala ere, etapa bereko bigarren zikloan lehiatzen diren ikasleek ehunekoak hirukoiztu egiten da (% 60,9). Lehiatzen diren ikasleek ehunekoak gora egiten jarraitzen du Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte), eta % 73,7ra iristen da. Adin horietan, joera 2017an bezalako izan arren, lehiakideen kopuruak % 16 egin du behera. 2017an ez bezala, oraingo honetan lehiakide kopurua antzekoa da Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte) eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte), % 73,7 eta % 75. 2017an beherakada arina egin zen etapa aldaketarekin.

Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklora igarotzean (14-16 urte), lehiakideen ehunekoak behera egiten du Lehen Hezkuntzako bigarren zikloaren mailara (8-10 urte). 2017an, beherakada ez zen horren nabarmena izan, eta aurreko txostenaren eta txosten honen artean lehiakideen ehunekoaren aldea % 17koa da.

43. grafikoa Egiten dituzten kirol antolatuetan lehiatzen diren ikasleen ehunekoa, prestakuntza zikloaren arabera.




2.4.2. Lehian astero emandako orduak

44. grafikoa ikus daitekeen moduan, lehiatzen diren ikasleen ia erdiek (% 48,5) 3 ordu eskaintzen di-

zkiote lehiari, heren batek hiru ordu baino gehiago eskaintzen dizkio eta % 12,1ek ordubete eta % 7k bi ordu.

44. grafikoa Lehian astero emandako orduak.




2.4.3. Lehiaren maiztasuna

Lehiaren maiztasunari dagokionez (45. grafikoa), 10 ikasletik zortzi astero lehiatzen dira; maiztasunik hedatuena da, 2017an bezalaxe.

Lehiari ikasleek eskaintzen dizkioten orduei dagokienez (20. taula), batez ere astean bi orduz egiten

dute (% 48,5). Eta hori nesken zein mutilen artean gertatzen da (% 49,7 eta % 47,8, hurrenez hurren). Prestakuntza zikloari dagokionez, datuek joera berdina jarraitzen dute, eta lehiari astero ematen dituzten orduak bi dira Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ia ziklo guztietan, salbu eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte), orduan lehiari astero ez baitu ordubeteko tarte gairatzen.

45. grafikoa Lehiaren maiztasuna



20. taula Kirol antolatutako lehiakorrean astean emandako orduak, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

ZENBAT ORDU ESKAINTZEN DIZKIOZU LEHIARI ASTERO? (ERANTZUN KOP.: 889)					
		Ordubete	2 ordu	3 ordu	3 ordutik gora
Guztira	Zenbaketa	289	431	61	108
	%	% 32,5	% 48,5	% 6,9	% 12,1
GENEROA					
Neska	Zenbaketa	93	161	28	42
	%	% 28,7	% 49,7	% 8,6	% 13
Mutila	Zenbaketa	196	270	33	66
	%	% 34,7	% 47,8	% 5,8	% 11,7
PRESTAKUNTZA ZIKLOA					
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	50	7	7	1
	%	% 76,9	% 10,8	% 10,8	% 1,5
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	115	60	7	17
	%	% 57,8	% 30,2	% 3,5	% 8,5
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	70	138	14	19
	%	% 29	% 57,3	% 5,8	% 4,6
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	32	114	16	38
	%	% 16	% 57	% 8	% 19
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	22	112	17	33
	%	% 12	% 60,9	% 9,2	% 17,9

Datuak generoa aintzat hartuz erkatuz gero (21. taula), ikus daiteke mutilen % 85 astero lehiatzen dela, eta nesken kasuan, berriz, % 69,4. Baina gainerako maiztasunak aintzat hartuz gero (hamabostero, hi-

lero, hiru hilabeterik behin edo urtero), orduan neskek gailentzen dira. Horrenbestez, mutilak maiztasun handiagoarekin lehiatzen dira.

21. taula Lehiaren maiztasuna, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

ZENBATERO LEHIATZEN ZARA? (ERANTZUN KOP.: 889)						
		Astero	Hamabost egunik behin	Hilero	Hiru hilerik behin	Urtero
Guztira	Zenbaketa	705	49	58	47	30
	%	% 79,3	% 5,5	% 6,5	% 5,3	% 3,4
GENEROA						
Neska	Zenbaketa	225	24	31	31	13
	%	% 69,4	% 7,4	% 9,6	% 9,6	% 4
Mutila	Zenbaketa	480	25	27	16	17
	%	% 85	% 4,4	% 4,8	% 2,8	% 3
PRESTAKUNTZA ZIKLOA						
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	37	5	10	10	3
	%	% 56,9	% 7,7	% 15,4	% 15,4	% 4,6
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	155	13	11	11	9
	%	% 77,9	% 6,5	% 5,5	% 5,5	% 4,5
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	195	11	16	11	8
	%	% 80,9	% 4,6	% 6,6	% 4,6	% 3,3
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	161	10	14	8	7
	%	% 80,5	% 5	% 7	% 4	% 3,5
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	157	10	7	7	3
	%	% 85,3	% 5,4	% 3,8	% 3,8	% 1,6



2.4.4. Ikasleek lehiari ematen dioten garrantzia

Lehia nahiko edo oso garrantzitsua da kirola egite-rakoan (22. taula). Ikasleen erdiek modu positiboan hartzen dute lehiaren presentzia. Eta ia heren batek adierazi duenez, ez da batere garrantzitsua (% 15,4) eta garrantzia txikia dauka (% 14,3).

Emaitzak generoaren arabera banatuz gero, nesken % 21,8rentzat lehia nahiko garrantzitsua da, eta % 17,3rentzat ikus daiteke oso garrantzitsua dela. Mutilei dagokienez, % 28,5ek adierazi du nahiko garrantzitsua dela, eta % 33,7k adierazi du oso garrantzitsua dela.

Prestakuntza zikloari dagokionez, ikusi da lehiak oso garrantzia txikia duela (% 20,5) edo ez dela batere garrantzitsua (% 26,6) Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleentzat (6-8 urte). Hala ere, prestakuntza zikloetan aurrera egin ahala, ikasleek kirola egiteko lehiari ematen dioten garrantziak ere gora egiten du. Igoera hori "asko" erantzunean ikusten da; izan ere, Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) % 7,5ekoa da, eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte) % 27,3ra arte egiten du gora.

22. taula Lehiaren garrantzia, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

ZURE USTEZ, LEHIA GARRANTZITSUA DA KIROLA EGITEKO? (ERANTZUN KOP.: 1.557)						
		Ez da batere garrantzitsua	Garrantzi txikia du	Erdipurdiko garrantzia du	Nahiko garrantzia du	Garrantzi handia du
Guztira	Zenbaketa	240	223	292	395	407
	%	% 15,4	% 14,3	% 18,8	% 25,4	% 26,1
GENEROA						
Neska	Zenbaketa	153	132	152	156	124
	%	% 21,3	% 18,4	% 21,2	% 21,8	% 17,3
Mutila	Zenbaketa	87	91	140	239	283
	%	% 10,4	% 10,8	% 16,7	% 28,5	% 33,7
PRESTAKUNTZA ZIKLOA						
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	92	71	96	61	26
	%	% 26,6	% 20,5	% 27,7	% 17,6	% 7,5
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	63	46	69	63	86
	%	% 19,3	% 14,1	% 21,1	% 19,3	% 26,3
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	31	40	36	100	120
	%	% 9,5	% 12,2	% 11	% 30,6	% 36,7
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	27	27	46	72	96
	%	% 10,1	% 10,1	% 17,2	% 26,9	% 35,8
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	27	39	45	99	79
	%	% 9,3	% 13,5	% 15,6	% 34,3	% 27,3

Kirol antolatua egiteko lehiak duen garrantziaren inguruan lortutako batezbesteko orokorra 5etik 3,3koa da (23. taula). Horrek garrantzi handiagoa hartzen du mutilen artean, 3,6 punturekin, eta nesken artean 2,9 puntura iristen da. Prestakuntza zikloen arabera

lortutako puntuazioek berresten dute lehiak garrantzi handiena duen une gorena Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte) dagoela (3,7), eta beharrezko joera arin batekin mantentzen da hurrengo zikloetan, 3,6 eta 3,5 hurrenez hurren.

23. taula Lehiaren garrantziaren batez besteko puntuazioak, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

ZURE USTEZ, LEHIA GARRANTZITSUA DA KIROLA EGITEKO?		
	Batezbestekoa	Desbiderapen estandarra
Guztira	3,3	1,4
GENEROA		
Neska	2,9	1,4
Mutila	3,6	1,3
PRESTAKUNTZA ZIKLOA ETA ADINA		
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	2,6	1,2
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	3,2	1,4
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	3,7	1,3
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	3,6	1,3
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	3,5	1,2

2.5. KIROL ANTOLATUA EGITEKO ANTZEMANDAKO OZTOPOAK


Txosten honetan aztertzeko aldagai interesgarrietako bat populazioak kirol jarduera antolatua egiteko aurkitzen dituen oztopoek osatzen dute. Oztopo horiek kirola egiten jarraitzeko zailtasun eta mehatxu bihurtzen dira.

Kirola egiteak ez du esan nahi oztopo horien eragina modu jarraituan pairatzen ez denik. Ohikoena da kirolariek gaitasuna izatea edo garatzea oztopo horiek kirol ibilbidean duten eragina ezabatzeke edo gutxitzeko, eta, hala, kirola egiten jarraitzen dute. Horregatik, ikerketa honetan kirola modu antolatuan zein antolatu gabe egitean pertsonak dituzten zailtasun horiek identifikatuko dira.


46. grafikoan ikus daitekeen moduan, eskola populazioaren hiru laurdenek kirol antolatua egiten jarraitzeko oztoporen bat antzematen dute. Datu horrek 20 puntu behera egin du 2017tik. 2017an gertatu zen moduan, generoak ez du eraginik zailtasun horiek antzematean. Datuak parekoak dira nesken eta mutilen kasuan antzemandako oztopoei dagokienez.

Datuak prestakuntza zikloaren arabera aztertuz gero (47. grafikoa), kirol antolatua egiteko oztoporik gutxien antzematen dituzten ikasleak Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren (6-10 urte) zikloak dira, bai 2017an (% 22,3 Lehen Hezkuntzako lehen zikloan, 6-8 urte, eta % 28,5 Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan, 8-10 urte) bai 2022an (% 25,6 Lehen Hezkuntzako lehen zikloan, 6-8 urte, eta % 21,1 Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan). 2017an zein azken txosten honetan, Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera (10-12 urte) oztopo horiek gehiago antzematen dira. 2017an ziklo horretan datua % 53,6koa izan zen, eta 2022an % 30,9koa. Bigarren Hezkuntzako bi zikloetan balio horiek % 27,6 (lehen zikloa, 12-14 urte) eta % 32,9 (bigarren zikloa, 14-16 urte) dira. Lehen Hezkuntzako lehenengo bi zikloei (6-10 urte) dagokienez oztopoak antzemateak gora egin arren, igoera hori ez da horren nabarmena 2017an bezala, orduan Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte) % 58,8 baitzen, eta % 59,9 Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte). Oztopo horien pertzepzioak behera egin duela ikusten da, horrek esan nahi du oztopoak ez direla existitzen edo kirola egiten duten pertsonak horiei aurre egiteko trebetasun gehiago dituztela.

46. grafikoa Kirol jarduera antolatua egiteko oztopoak aurkitzen dituzten ikasleak, generoaren arabera.



47. grafikoa Kirol jarduera antolatua egiteko oztopoak aurkitzen dituzten ikasleak, prestakuntza zikloaren arabera.



Oztopoak dira aztertu beharreko beste gai bat, nori erasaten dioten ez ezik baita tipologia ere (24. taula). Kirola egiteari uzteko ikasleen arrisku nagusia lesioak, gaixotasunak izatea da. Faktore horiek, modu puntualean bada ere, ikasleek kirola egiten jarraitzea mehatxatzerira irits daiteke.

Generoari dagokionez, kirola egiteko eta egiten jarraitzeko oztopoen pertzepzioak pareko forma du oraindik ere mutilen eta nesken kasuan, eta alde nabarmena dago mutilek gaixotzeko edo lesiona-

tzeko duten pertzepzioaren eta neskek gaitasunik ezaren inguruan duten pertzepzioaren artean. Mutilen artean lesionatzeko beldurra % 37,1ekoa da, eta nesken artean % 32,4koa. “Ez naiz trebea” izeneko oztopoa ikusiz gero, argi ikusten da nesken eta mutilen artean 4 puntuko aldea dagoela. Oztopo hori eta osasunari erreferentzia egiten dion oztopoa dira bi generoen artean alde nabarmena daukaten bi oztopo bakarrak. Gainerako arrazoietan ez da alde nabarmenik antzeman.

24. taula Antzemandako oztopo motak, generoaren, prestakuntza zikloaren eta titulartasunaren arabera.

KIROLA EGITEKO ANTZEMANDAKO OZTOPO MOTAK													
		Osasuna (lesioak, katarroa...)	Ez naiz trebea	Ez daukat denborarik	Nekea beste jarduerara batzuegatik (ikasketak, etab.)	Nire lagunek ez dute egiten	Garestia da	Ez dago instalazio egokirik	Ez dago aski plaza	Oso urrun dago	Beste jarduerara batzuekin batera egokitu zait	Beste batzuk	Ez daki/Ez du erantzun
Arrazoiak, guztira	Zenbaketa	146	44	40	54	4	9	14	10	9	22	30	34
	%	% 35,1	% 10,6	% 9,6	% 13	% 1	% 2,2	% 3,4	% 2,4	% 2,2	% 5,3	% 7,2	% 8,2
GENEROA													
Neska	Zenbaketa	58	24	16	22	2	2	7	7	4	11	13	13
	%	% 32,4	% 13,4	% 8,9	% 12,3	% 1,1	% 1,1	% 3,9	% 3,9	% 2,2	% 6,1	% 7,3	% 7,3
Mutila	Zenbaketa	88	20	24	32	2	7	7	3	5	11	17	21
	%	% 37,1	% 8,4	% 10,1	% 13,5	% 0,8	% 3	% 3	% 1,3	% 2,1	% 4,6	% 7,2	% 8,9
PRESTAKUNTZA ZIKLOA													
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	15	8	9	11	3	4	6	6	3	9	0	3
	%	% 19,5	% 10,4	% 11,7	% 14,3	% 3,9	% 5,2	% 7,8	% 7,8	% 3,9	% 11,7	% 0	% 3,9
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	19	7	7	10	1	2	5	2	2	3	5	6
	%	% 27,5	% 10,1	% 10,1	% 14,5	% 1,4	% 2,9	% 7,2	% 2,9	% 2,9	% 4,3	% 7,2	% 8,7
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	44	11	9	6	0	1	0	1	1	4	10	14
	%	% 43,6	% 10,9	% 8,9	% 1,5	% 0	% 1	% 0	% 1	% 1	% 4	% 9,9	% 13,4 38
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	38	8	3	12	0	1	0	0	1	0	4	7
	%	% 51,4	% 10,8	% 4,1	% 16,2	% 0	% 1,4	% 0	% 0	% 1,4	% 0	% 5,4	% 9,5
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	30	10	12	15	0	1	3	1	2	6	11	4
	%	% 31,6	% 10,5	% 12,6	% 15,8	% 0	% 1,1	% 3,2	% 1,1	% 2,1	% 6,3	% 11,6	% 4,2

KIROLA EGITEKO ANTZEMANDAKO OZTOPOAK

IDEIA NAGUSIAK

- * Lehiatzen den ikasle kopurua mantendu egin da; 2017an % 74 eta 2022an % 73,3.
- * Generoari dagokionez, mutilak gehiago lehiatzen dira neskek baino (% 67,3 eta % 45,2, hurrenez hurren).
- * Prestakuntza zikloari dagokionez, gehien lehiatzen diren ikasleak Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklokoak (10-12 urte) eta Bigarren Hezkuntzako lehen ziklokoak dira (12-14 urte).
- * Ikasleen % 48,5 astean hiru orduz aritzen dira lehian, eta % 33 are gehiago (astero hiru ordu baino gehiago).
- * Mutilek garrantzia handiagoa ematen diote lehiari neskek baino (% 33,7 eta % 17,3, hurrenez hurren).
- * Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera (10-12 urte) hasten dira antzematen lehian jarraitzeko oztopoak; bi generoetan gehien eragiten duen oztopoa osasunari dagokiona da (nesken artean % 32,4 eta mutilen artean % 37,1).



2.6. KIROL ANTOLATUA EGITEN JARRAITZEKO ASMOA

25. taulan ikus daitekeen moduan, Bizkaiko ikasleek kirol antolatua egiten jarraitzeko asmo argia daukate, % 91,4ko puntuazioarekin. Ez da desberdintasunik antzeman neska eta mutilen artean. Bestalde,

erantzunak aldatu egiten dira prestakuntza zikloen eta adinaren arabera, 26. taulan ikus daitekeen moduan. Hala, ehunekorik altuenak Lehen (% 93,6) zein Bigarren (% 94) Hezkuntzako lehen zikloetan daude, eta ondoren dator Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte) (% 92,4). Beherakada Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan ikusten da (8-10 urte), % 85,6ko ehunekoarekin; oraindik balio altua du.

25. taula Kirol antolatua egiten jarraitzeko ikasleen asmoa, generoaren, prestakuntza zikloaren eta titulartasunaren arabera.

DATORREN URTEAN KIROL ANTOLATUA EGITEN JARRAITZEKO ASMOA DAUKAZU? (ERANTZUN KOP.: 1.557)				
		Bai	Ez	Ez daki/ Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	1423	25	109
	%	% 91,4	% 1,6	% 7
GENEROA				
Neska	Zenbaketa	649	7	61
	%	% 90,5	% 1	% 8,5
Mutila	Zenbaketa	774	18	48
	%	% 92,1	% 2,1	% 5,7
PRESTAKUNTZA ZIKLOA				
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	324	5	17
	%	% 93,6	% 1,4	% 4,9
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	280	10	37
	%	% 85,6	% 3,1	% 11,3
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	300	5	22
	%	% 91,7	% 1,5	% 6,7
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	252	3	13
	%	% 94	% 1,1	% 4,9
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	267	2	20
	%	% 92,4	% 0,7	% 6,9

KIROLA EGITEN JARRAITZEKO ASMOA

IDEIA NAGUSIAK

- * **Kirol antolatua egiten duten Bizkaiko ikasleen % 91,4k datorren urtean kirol antolatua egiten jarraitzeko asmoa agertu du.**
- * **Ez dago genero desberdintasunik kirol antolatua egiten jarraitzeko asmoan.**
- * **Puntuaziorik altuenak Lehen Hezkuntzako lehen zikloan zein Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan daude.**
- * **Puntuazioek beherakada arina izan dute Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan, eta % 85,6ko ehuneko altuan kokatu dira.**


2.7. KIROL JARDUERA ANTOLATUAN ERABILITAKO HIZKUNTZAO

Azken urteetan, kirolak garrantzi handia hartu du hainbat hizkuntza ikasi eta erabiltzeko tresna modura (González et al., 2021). Kasu honetan, Bizkaiko kirol antolatuko entrenatzaileen euskara erabilera aztertu da, 2017. urteko datuekin erkatuta (48. grafikoa). Egin ziren galderak bi hizkuntzetan (gaztelania eta euskara) banatu ziren, eta bi erabilera maiztasunetan (beti erabiltzen du hizkuntza hori edo batez ere hizkuntza hori erabiltzen du). Azal dutakoa aintzat hartuz, 2022ko datuek errealitate antzekoa agertu dute bi hizkuntzen ohiko erabilerari dagokionez; gehien erabilitakoa gaztelania da, % 34,7, eta oso gertutik dator euskara, % 34,2rekin. Hizkuntza erabileraren bi maiztasunak aintzat hartuz, joera bera mantendu da; % 50,9k gaztelania erabiltzen du (% 34,7k beti, % 16,2k batez ere) eta % 49,1ek euskara erabiltzen du (% 34,2k beti, % 14,9k batez ere). Datuak 2017an lortutakoekin erkatuz gero, ikusten dugu euskararen erabile-


ran igoera izan dela (% 28,9k beti, % 12,9k batez ere), eta gaztelaniaren erabilerak behera egin du (% 40,1ek beti, % 14,9k batez ere). Gaineratu behar da 2017an “Ez daki/ez du erantzun” erantzun modura gehitu zela (% 3,1), eta gai hori kontuan hartu behar da datuak interpretatzerakoan.

Datuak generoaren arabera aztertuz gero (49. grafikoa), ikusten da neskek neurri handiagoan azaltzen dutela entrenatzaileek beti euskara erabiltzen dutela haiekin komunikatzeko (% 34,3 eta mutilen kasuan % 33,9). Bestalde, entrenatzaileak haiekin beti gaztelaniaz komunikatzen direla erantzutean, mutilek puntuazio altuagoak lortu dituzte (% 37,4; neskek, berriz, % 31,70). Datuak modu globalean aztertzerakoan (“beti” eta “batez ere” erantzunak aintzat hartuz), ikusi da entrenatzaileak haiekin euskaraz komunikatzen direla erantzun duten nesken ehunekoa handiagoa dela (% 51,6; mutilen kasuan % 46,9). Bestalde, komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza gaztelania bada, mutilek puntuazio altuagoa ematen dute (% 53,1; nesken kasuan % 48,7).

48. grafikoa 2017 eta 2022ko datuen arteko konparazioa, entrenatzaileak ikasleekin komunikatzeko erabiltzen duen hizkuntzari dagokionez.



49. grafikoa Entrenatzaileak ikasleekin komunikatzeko erabiltzen duen hizkuntza, sexuaren arabera.




Prestakuntza zikloi dagokienez (50. grafikoa), ikusi da kirol entrenatzaileen euskara erabilerak presentzia handiagoa duela Lehen Hezkuntzan, eta balio-


rik altuenak Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte) lortzen dituela. Gaztelania erabiltzeari dagokionez, bestalde, daturik altuenak Bigarren Hezkuntzako bi zikloetan lortu dira (% 58,1 bigarrean eta % 47,8 lehenengoan), eta Lehen Hezkuntzan presentzia askoz txikiagoa da (% 18,5 lehen zikloan, 6-8 urte, % 26,6 bigarrean, 8-10 urte; eta % 28,7 hirugarrean, 10-12 urte).

Fokua ikasleengan jartzeari dagokionez (51. grafikoa), ikusi da 2022ko datuetan % 39k beti gaztelania erabiltzen zuela; % 33k azaldu du beti euskaraz mintzatzen dela entrenatzailearekin. Puntuazio globalak aintzat hartuz gero, ikus dezakegu entrenatzaileekin komunikatzeko gaztelania erabiltzearen aldeko joera handiagoa dagoela (% 54,8, eta euskararen erabilerari dagokionez % 45). 2017ko datuekin erkatzean, ikusi da euskararen erabilerak gora egin duela (27,6 beti, 10,5 batez ere), eta gaztelania erabiltzeak beheranzko joera duela (% 43,3 beti, % 13,6 batez ere).

50. grafikoa Entrenatzaileak ikasleekin komunikatzeko erabiltzen duen hizkuntza, prestakuntza zikloaren arabera.




51. grafikoa 2017 eta 2022ko datuen arteko konparazioa, entrenatzaileak ikasleekin komunikatzeko erabiltzen duen hizkuntzari dagokionez.




Entrenatzailearekin komunikatzeko ikasleek erabiltzen duten hizkuntza aztertzerakoan ikasleen generoa kontuan hartuz (52. grafikoa), ikus daiteke euskaraz erabiltzen duten nesken ehunekoa handiagoa dela (% 34,30; mutilen kasuan datua % 32,30ekoa da). Halaber, mutilek beti gaztelaniaz hitz egiteko ehuneko handiagoa daukate (% 40,80, nesken kasuan % 37).

Prestakuntza zikloi buruzko analisiari dagokionez (53. grafikoa), ikusi da entrenatzaileekin komunikatzeko ikasleek euskaraz erabiltzea ohikoagoa dela Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan (% 43,7 bigarren zikloan eta % 54,1 hirugarren zikloan). Horrez gain, euskararen presentziarik baxuena Bigarren Hezkuntzako zikloetan dago (% 24,6 lehenengoan eta % 12,5 bigarreanean). Gaztelaniaren erabilerari dagokionez, egoera aldatu egiten da, eta Bigarren Hezkuntzako zikloetan ohikoagoa da (%49,6 lehenengoan, % 65,1 bigarreanean).


52. grafikoa Entrenatzailearekin komunikatzeko ikasleek erabiltzen duten hizkuntza, generoaren arabera.



53. grafikoa Entrenatzailearekin komunikatzeko ikasleek erabiltzen duten hizkuntza, prestakuntza zikloaren arabera.




54. grafikoa Ikasleek kirol antolatuko kideekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza.



Bestalde, eskola kirol antolatua egitean ikasleek haien berdinekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza aztertu da (54. grafikoa). Kasu honetan, 2022ko datuetan desberdintasunak nabarmenak dira; % 44,9 gaztelaniaz komunikatzen dira haien berdinekin, eta % 26,3 euskaraz. 2017ko datuekin konparatuz aztertuz gero, errealitatea errepikatu egiten da; % 46,2 gaztelaniaz komunikatzen ziren, % 21,7 euskaraz. Hala ere, euskararen erabilera % 5 inguru hazi dela ikusi da.


Generoaren aldagaia gehituz gero (55. grafikoa), datuak ez dira ia aldatu, eta kideekin komunikatzeko gehien erabilitako hizkuntza gaztelania da (% 41,1 nesken kasuan eta % 48,1 mutilen kasuan). Euskararen erabilerrari dagokionez, nabarmen murriztu da; % 25,80 nesken artean eta % 27 mutilen artean.

55. grafikoa *Ikasleek kirol antolatuko kideekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza, generoaren arabera.*



Nabarmendu behar da ikasleek kirol antolatuko kideekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza aztertzean desberdintasunak aurkitu direla adinaren eta prestakuntza zikloen arabera (56. grafikoa). Batetik, euskararen erabilerak behera egin du Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (% 18,50) zein Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (%10), eta nabarmen egin du gora Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, % 45,6. Bestalde, ikasleek haien artean komunikatzeko gaztelania nabarmen erabiltzen dute Bigarren Hezkuntzako zikloetan (% 57,1 lehen zikloan, % 71,6 bigarrean).

56. grafikoa *Ikasleek kirol antolatuko kideekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza, prestakuntza zikloaren arabera.*



KIROL JARDUERA ANTOLATUAN ERABILITAKO HIZKUNTZA

IDEIA NAGUSIAK

- * **Entrenatzaileek modu orekatuan erabiltzen dituzte bi hizkuntzak; gaztelaniari dagokionez, ehunekoa % 34,7koa da, eta euskarari dagokionez, % 34,2.**
- * **Entrenatzaileek euskara erabiltzea hedatuago dago Lehen Hezkuntzako zikloetan; 10 eta 12 urte artean lortzen dira baliorik altuenak (% 51,4). Bigarren Hezkuntzan, aldiz, gaztelaniaren erabilera askoz hedatuago dago, bigarren zikloan % 58,1era iritsi arte.**
- * **Ikasleek entrenatzaileekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, gaztelaniak % 39 lortu du, eta euskarak % 33.**
- * **Berdinen arteko komunikaziorako, desberdintasuna askoz handiagoa da; % 44,9k gaztelania erabiltzen du, eta % 26,3k euskara.**



3. ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUERA

3.1. DATU OROKORRAK

3.2. ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUERAREN EZAUGARRIAK

- 3.2.1. Antolatu gabeko kirol modalitate hedatuenak
- 3.2.2. Antolatu gabeko kirol jarduerak egiteko espazioak
- 3.2.3. Antolatu gabeko kirol jarduerak egiteko kideak

3.3. ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUERAREN DENBORA DIMENTSIOA

- 3.3.1. Antolatu gabeko kirol jardueren maiztasuna
- 3.3.2. Antolatu gabeko kirol jardueretan astero izandako dedikazioa (orduetan)
- 3.3.3. Antolatu gabeko kirol jarduerak egiten den asteko egunak

3.4. ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUERAK EGITEKO ANTZEMANDAKO OZTOPOAK

3.5. ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUERAK EGITEN JARRAITZEKO ASMOA

3. ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUERA



3.1. DATU OROKORRAK


Eskola ikasleen % 67,50ek adierazi du antolatu gabeko kirola egiten duela, hau da, bere kontura; % 32,5ek, berriz, ez du egiten (57. grafikoa). 2017ko txostenarekin erkatuta, antolatu gabeko kirol jarduerak behera egin du.

Antolatu gabeko kirol jarduera antzekoa da generoen artean: % 66,20 nesken kasuan eta % 68,70 mutilen kasuan; mutilen kasuan pixka bat altuagoa da (58. grafikoa). Hala ere, kirol jarduera antolatuetan parte hartzea handiagoa da bi generoetan (ikus Eskola populazioa kirol antolatuaren arabera), eta generoen arteko aldea handiagoa da antolatu gabeko kirol jarduerarekin alderatzean. Mutilen kasuan, kirol jarduera antolatuak 10 puntutan gainditzen du antolatu gabeko kirol jarduera. Nesken artean, desberdintasuna 5,5 puntukoa da kirol antolatuaren alde.


Prestakuntza zikloaren arabera desberdintasunei dagokienez (59. grafikoa), antolatu gabeko kirol jarduera gehien egiten den unea (% 70,4) Le-

hen Hezkuntzako bigarren zikloa da, eta nabarmen egiten du behera Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (% 64,8). Neskei dagokienez, antolatu gabeko kirol jarduera (% 70,2) Lehen Hezkuntzako lehen zikloan egiten da gehien (6-8 urte), eta behera egiteko joera du (% 64,4) Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora arte (10-12 urte). Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloaren eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloaren artean (12-14 urte) igoera arina dago (% 65,3), baina berriz ere behera egiten du (% 64,2) Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte). Mutilei dagokienez, antolatu gabeko kirola Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloan egiten da gehien (8-12 urte), %73,8 eta %69,8 hurrenez hurren, eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan egiten da gutxien, % 65,4. Aipatu behar da, 2017. urteko txostenarekin erkatuta, kirol tipologia horrek beherakada nabarmena izan duela Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan 30 puntuko alde nabarmena egon da 2017ko txostenaren alde, 20 puntukoa Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte) eta 12koa Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte).


57. grafikoa Antolatu gabeko kirola egiten duten ikasleak.



58. grafikoa Antolatu gabeko kirola egiten duen eskola populazioa, sexuaren arabera.



59. grafikoa Antolatu gabeko kirola egiten duen eskola populazioa, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.




NESKA	% 70,2	% 67,2	% 64,4	% 65,3	% 64,2
MUTILA	% 67,3	% 73,8	% 69,8	% 67,9	% 65,4
BIZKAIA	% 68,6	% 70,4	% 67,2	% 66,7	% 64,8


Ikasleen ikastetxearen titulartasunak ez du aldaketarik egiten (60. grafikoa) antolatu gabeko kirol jarduera egiteari dagokionez. 2017 eta 2022 arteko konparazio analisiak, antolatu gabeko kirol jarduera egiteak behera egin duen arren, erakutsi du oraindik ere ikastetxe pribatu edo itunduetan eragin handiagoa dutela antolatu gabeko kirol jardueran.

Antolatu gabeko kirol jarduera desberdina da eskola populazioaren prestakuntza zikloaren eta ikastetxearen titulartasunaren arabera (61. grafikoa). Ikastetxe pribatu edo itunduetan, ziklo guztietan, jardun horren praktika handiagoa da ikastetxe publikoetan baino. Ikasleek antolatu gabeko kirol gehien egiten duten tarteak ikastetxe pribatu edo itunduetako Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte) da (% 75,6). Etapa horretan, ikastetxe publikoetako jardunaren ehunekoa % 64,3koa da. Horrez gain, mailarik baxuenak Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (% 63,2) gertatzen dira; ikastetxe pribatu edo itunduetan, ostera, jardueraren ehunekorik baxuena Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan gertatzen da (% 65). Ikastetxe pribatu edo itunduetan ematen den erregistrorik baxuena (% 65) ikastetxe publikoetan ematen den daturik altuenaren parekoa da (% 65,5). Nabarmendu behar da ehuneko horiek ez datoz-

la bat hezkuntza zikloekin. Ikastetxe publikoetan eraginik handiena Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan ikusten da; itunduetan, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan gertatzen da, lehenago komentatu bezala.


60. grafikoa Antolatu gabeko kirola egiten duten ikasleak, titulartasunaren arabera.



61. grafikoa Antolatu gabeko kirola egiten duten ikasleak, prestakuntza zikloaren eta titulartasunaren arabera.


Titulartasunaren, prestakuntza zikloaren eta generoaren ikuspuntutik (62. grafikoa), ikusi da ikastetxe pribatu edo itunduetan mutilak direla antolatu gabeko kirol gehien egiten dutenak, etapa guztietan, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan salbu (14-16 urte). Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) ikastetxe publikoetako nesken eta ikastetxe pribatu edo itunduetako mutilen arteko ehunekoak antzekoak dira, % 71,7 eta % 72,9, hurrenez hurren. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan 10,7 puntuko desberdintasuna dago ikastetxe pribatu edo itunduetako mutilen (% 78,8) eta ikastetxe publikoetako mutilen artean (% 68,1), eta azken horiei egiten die kalte. Hirugarren

zikloan antolatu gabeko kirol gutxien ikastetxe pribatu edo itunduetako neskek egiten dute (%58,4), eta desberdintasuna hamar puntukoa da ikastetxe publikoetako neskekin erkatuta. Bigarren Hezkuntzako lehen ziklotik aurrera (12-14 urte), desberdintasun handiak desagertzen hasten dira. Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte), tipologia hau gutxien egiten dutenak ikastetxe publikoetako mutilak dira, eta gehien egiten dutenak ikastetxe itundu edo pribatuetako mutilak. Hala ere, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan ikastetxe publikoetako mutilek daukate ehunekorik altuena; ikastetxe publikoetako neskek eta ikastetxe pribatu eta itunduetako mutilek dute daturik txikiena.

62. grafikoa Antolatu gabeko kirola egiten duten ikasleak, generoaren, prestakuntza zikloaren eta titulartasunaren arabera.


KIROL JARDUERA ANTOLATUA. DATU OROKORRAK

IDEIA NAGUSIAK

- * Eskola ikasleen % 67,50ek bere kontura egiten du kirola. Ehunekoa kirol antolatua egiten duten ikasle kopurua baino baxuagoa da % 75,30.**
- * Antolatu gabeko kirolak du daturik altuena, % 70,4, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (8-10 urte). Antolatu gabeko kirol gehien mutilek egiten dute derrigorrezko hezkuntzako etapa guztietan, Lehen Hezkuntzako lehen zikloan salbu (6-8 urte), orduan neskek gehiago egiten baitute.**
- * Derrigorrezko hezkuntzako etapa guztietan ikastetxe pribatu edo itunduetako ikasleak dira haien kontura kirol gehien egiten dutenak. Generoan desberdintasun nabarmenak ageri dira; antolatu gabeko kirol gehien praktikatzen dutenak ikastetxe pribatu edo itunduko mutilak dira, nabarmen.**

3.2. ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUERAREN EZAUGARRIAK


Atal honetan antolatu gabeko kirol jardueraren ezaugarriak azalduko dira. Horretarako, atal hauek aztertuko dira:

- Egiten duten antolatu gabeko kirol jardueren kopurua
- Antolatu gabeko kirol jardueren modalitate hedatuenak
- Antolatu gabeko kirola egiteko espazioak
- Antolatu gabeko kirola egiteko kideak

Antolatu gabeko kirola jardueren kopurua

Prestakuntza zikloaren arabera ikasleek egiten dituzten antolatu gabeko kirol jardueren kopuruari dagokionez (63. grafikoa), 2017 eta 2022ko batezbestekoen konparazio grafikoak antzeko joera agertu du, antolatu gabeko kirol jarduerak behera egin duten arren. 2022an, kirol jardueraren batezbestekorik altuena Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) jaso da. Zentzua dauka, adin horretan ikastetxetik edo kirol espazioetatik kanpoko kirol jarduerak ohikoagoak direlako.

63. grafikoa Antolatu gabeko kirol jardueren batezbestekoa, prestakuntza zikloaren arabera.



3.2.1. Antolatu gabeko kirol modalitate hedatuenak

26. taulan ikus daitekeen moduan, ikasleen artean antolatu gabeko kirol modalitate hedatuenak futbola (% 16,1), txirrindularitza (% 15,9) eta mendia dira (% 13,2). Generoen artean (28. eta 29. taula) modalitate hedatuenak horietan dira, baina alderantzizko ordenan; nesken artean ordena da txirrindularitza (% 15,3), mendia (% 11,9) eta futbola (% 7,7), eta mutilen artean futbola (% 8,7), txirrindularitza (% 7,5) eta mendia (% 7,1). Bi generoetan igeriketa da lehen hiru modalitateen atzetik datorrena; nesken kasuan % 5,2koa da datua, eta mutilen kasuan % 3,84.

Generoari dagokionez (27. eta 28. taulak), nesken artean skatea (% 2,3) eta dantza (% 1,2) ageri dira, eta mutilen artean ez da horrelakorik ageri. Alderantziz, mutilek esku pilota (% 1,87) eta tenisa (% 1,03) aipatu dute, eta neskek, ordea, ez.

26. taula Antolatu gabe egindako kirol modalitateak.

GUZTIRA	ZENBAKETA	IKASLEEN %	ERANTZUNEN %
Futbola	333	% 16,1	% 15,3
Txirrindularitza	330	% 15,9	% 15,2
Mendia	274	% 13,2	% 12,6
Korrika egitea	161	% 7,7	% 7,4
Saskibaloia	139	% 6,7	% 6,4
Gimnastika	118	% 5,7	% 5,4
Igeriketa	110	% 5,3	% 5,0
Patinajea	74	% 3,5	% 3,4
Surfa	50	% 2,4	% 2,3
Tenisa	36	% 1,7	% 1,6

27. taula Nesken artean antolatu gabe gehien egindako kirol modalitateak.

NESKAK	ZENBAKETA	NESKEN %	ERANTZUNEN %
Txirrindularitza	153	% 15,3	% 25,9
Mendia	119	% 11,9	% 20,1
Futbola	77	% 7,7	% 13,0
Igeriketa	52	% 5,2	% 8,8
Patinajea	52	% 5,2	% 8,8
Saskibaloia	24	% 2,4	% 4,0
Skatea	23	% 2,3	% 3,8
Korrika egitea	15	% 1,5	% 2,5
Dantza	12	% 1,2	% 2,2
Surfa	8	% 0,8	% 1,35

28. taula Mutilen artean antolatu gabe gehien egindako kirol modalitateak.


MUTILAK	ZENBAKETA	MUTILEN %	ERANTZUNEN %
Futbola	93	% 8,7	% 18,1
Txirrindularitza	81	% 7,5	% 15,8
Mendia	76	% 7,1	% 14,8
Igeriketa	41	% 3,8	% 8,0
Saskibaloia	37	% 3,4	% 7,2
Korrika egitea	32	% 2,9	% 6,2
Patinajea	27	% 2,5	% 5,2
Esku pilota	20	% 1,8	% 3,9
Tenisa	11	% 1,0	% 2,1
Surfa	11	% 1,0	% 2,1

3.2.2. Antolatu gabeko kirol jarduerak egiteko espazioak

Ikasleek antolatu gabeko kirol jarduerak egiten dituzten espazioak aztertuz gero (64. grafikoa), horrelako jardueren agertoki nagusi modura espazio publiko irekiek duten garrantzia ikusten da. Horien artean hiriko jarduna nabarmendu behar da, nagusia baita (% 41,7); horrez gain, espazio naturalak ere aipatu behar dira (% 22,6). Kirola modu espontaneoan gutxien egiten diren espazioak gimnasio pribatuak (% 2,4) eta ikastetxeak dira (% 6,1). 2017. urtearekin alderatuta, espazio naturalek eta etxeak berak presentzia irabazi dute antolatu gabeko kirol jarduerak egiteko toki modura.

Datu hauek ez dira ia aldatu generoaren arabera (29. taula). Nesken % 41ek antolatu gabeko kirola hirian egiten du, eta mutilen % 42,9k. Espazio naturalei dagokienez, nesken % 19,2k eta mutilen % 21,2ek espazio horietan egiten dute kirola. Aurretik aipatutakoen ondoren datorren espazioa udal kiroldegia da; nesken % 12,5ek eta mutilen % 12,8k erabiltzen dute. Joera Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ziklo guztietan ikusi da, Lehen hezkuntzako bigarren zikloan salbu (8-10 urte), orduan espazio naturalek (% 22,3) presentzia handiagoa baitute hiriak baino (% 18,6).

64. grafikoa Antolatu gabeko kirol jarduerak egiteko espazioak.




29. taula Antolatu gabeko kirola egiteko espazioak, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

ANTOLATU GABEKO KIROLA EGITEKO LEKUA (ERANTZUN KOP.: 2.279)								
		Ikastetxea	Udal kiroldegia	Kalean	Gimnasio pribatuetan	Etxean	Espazio naturaletan	Ez daki/ Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	140	301	951	56	218	517	96
	%	% 6,1	%13,2	% 41,7	% 2,4	% 9,5	% 22,6	% 4,2
GENEROA								
Neska	Zenbaketa	42	135	440	25	118	206	46
	%	% 3,9	% 12,5	% 41,0	% 2,3	% 11,0	% 19,2	% 4,2
Mutila	Zenbaketa	98	166	511	31	100	251	50
	%	% 8,2	% 12,8	% 42,9	% 2,6	% 8,4	% 21,1	% 4,2
PRESTAKUNTZA ZIKLOA								
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	54	69	278	9	117	188	15
	%	% 8,5	% 10,9	% 44,1	% 1,4	% 2,6	% 29,8	% 2,3
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	41	76	210	11	46	120	32
	%	% 7,6	% 14,1	% 18,6	% 2,1	% 8,5	% 22,3	% 5,9
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	28	61	163	5	36	45	26
	%	% 7,6	% 16,7	% 44,7	% 1,3	% 9,8	% 27,4	% 7,1
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	9	41	179	7	50	69	19
	%	% 2,4	% 10,9	% 47,8	% 1,8	% 13,3	% 18,4	% 5,0
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	8	54	121	24	69	95	4
	%	% 2,1	% 14,4	% 32,2	% 6,4	% 18,4	% 25,3	% 1,0

3.2.3. Antolatu gabeko kirol jarduera egiteko kideak

Txosten honetan interesgarritzat jotako gaietako bat eskola adinean kirola egiteko erreferentziatzko gizarte eragileen garrantzia da. Hain zuzen ere, kirol antolatuaren eta antolatu gabeko kirolaren bitartez eskola adineko ikasleek eraikitzen eta zaintzen duten mundu soziala ezagutzea interesgarria da. Atal honetan ikasleek kirola haien kontura egiten

dutenean zein pertsonekin dauden jakitea da xedea. 65. grafikoari erreparatu gero, 2017. urtearekin alderatuta, lagunekin batera antolatu gabeko kirola egiteak garrantzia galdu du, % 38,8 izatetik % 30,5 izatera igaro baita, eta aitaren (% 29,4) eta amaren (%13) figurek garrantzia hartu dute. Emaitzek erakutsi dutenez, ikasle gehienek lagunekin (% 30,4) eta gurasoekin (% 29,4) egiten du antolatu gabeko kirola. Nabarmendu behar da ikasleen % 11,3k bakarrik egiten duela kirola.

65. grafikoa Antolatu gabeko kirola egiteko kideak.


Generoari dagokionez (30. taula), mutilek kirola lagunekin batera egiteko joera handiagoa daukate (% 36,1) eta neskek, berriz, sarriago egiten dute kirola gurasoekin (% 29,3) lagunekin baino (% 24,1). Gurasoekin batera kirola egiteko ehunekoa parekoa da bi generoetan. Nesken % 15,9k amarekin egiten du kirol antolatua, eta mutilen kasuan soilik %9,8k egiten du. Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloan ikasleek kirol gehiago egiten dute gurasoekin lagunekin baino. Lagunen protagonismoak

gora egiten du adinak aurrera egin ahala, hain zuzen ere, Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera (% 36,8), eta etapa horretan gurasoekin kirola egiteak nabarmen egiten du behera (% 3,0). Kirola bakarrik egiteko aukerak adinarekin egiten du gora; Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan aukera hori esponentzialki hazten da (% 17,6). Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan aukera horrek % 29,6ra arte egiten du gora.



30. taula Antolatu gabeko kirola egiteko konpainia, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

ANTOLATU GABEKO KIROLA EGITEKO KONPAINIA (ERANTZUN KOP.: 2.279)							
		Aita	Ama	Neba-arrebak	Lagunak	Bakarrik	Beste pertsona batzuk
Guztira	Zenbaketa	670	295	225	695	258	151
	%	% 29,3	% 12,9	% 9,8	% 30,4	% 11,3	% 6,6
GENEROA							
Neska	Zenbaketa	315	171	108	259	136	83
	%	% 29,3	% 15,9	% 10,1	% 24,1	% 12,6	% 7,7
Mutila	Zenbaketa	355	119	117	436	122	58
	%	% 29,4	% 9,8	% 9,6	% 36,1	% 10,1	% 4,8
PRESTAKUNTZA ZIKLOA							
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	233	136	84	120	16	21
	%	% 36,9	% 21,5	% 13,3	% 19,0	% 2,5	% 3,3
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	186	71	53	145	34	47
	%	% 34,7	% 13,2	% 9,8	% 27,0	% 6,3	% 8,7
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	111	28	38	134	31	22
	%	% 3,0	% 7,6	% 10,4	% 36,8	% 8,5	% 6,0
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	78	33	30	138	66	29
	%	% 20,8	% 8,8	% 8,0	% 36,8	% 17,6	% 7,7
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	62	22	23	135	111	22
	%	% 16,5	% 5,8	% 6,1	% 36	% 29,6	% 5,8

ANTOLATU GABEKO KIROLAREN EZAUGARRIAK

IDEIA NAGUSIAK

- * Modu librean egiten diren kirol jardueren batezbestekoa Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) iristen da puntu gorenera (1,4 batez beste). Etapa horretatik aurrera, beherakada nabarmena da Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora arte (10-12 urte). Etapa horretatik aurrera nahiko maila erregularrean mantentzen da.
- * Gehien egindako kirol modalitateak futbola (% 16,1), txirrindularitza (% 15,7) eta mendia (% 13,2) dira. Bi generoetan mantendu da kirol horien lehentasuna, nahiz eta lehentasun ordenan aldaketak egon.
- * Antolatu gabeko kirola egiteko gehien erabilitako espazioak aire libreko espazioak dira, esaterako kalea (% 41,7) eta espazio naturalak (% 22,7).
- * Derrigorrezko Hezkuntzako neskek eta mutilek batez ere kalean edo espazio naturaletan egiten dute kirola haien kontura, eta gehien erabilitako hirugarren aukera udal kiroldegia da.
- * Ikaslek batez ere lagunekin eta gurasoekin egiten dute antolatu gabeko kirola. Lagunen kasua pixka bat altuagoa da (% 30,5) gurasoena baino (% 29,4).
- * Mutilek lagunekin antolatu gabeko kirola egiteko joera handiagoa daukate neskek baino (% 36,1; nesken kasuan, % 24,1 da). Bi kasuetan aitaren figura nabarmentzen da jarduera horietarako konpainia modura. Hala ere, neskek ama gehiago aipatu dute mutilek baino (% 15,9; mutilen kasuan, % 9,8).
- * Lagunen protagonismoak adinarekin gora egiten du, eta Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik (10-12 urte) Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko amaierara arteko (14-16 urte) ikasleentzat erreferentziazko eragile sozial bihurtzen dira.

3.3. ANTOLATU GABEKO KIROLAREN DENBORA DIMENTSIOA

Jarraian, ikasleek haien kontura, entitate edo erakunde oro alde batera utzita, egiten dituzten kirol jardueren dedikazioa xehetasunez aztertuko da. Hain zuzen ere, honako datu hauek jakin nahi dira:

- antolatu gabeko kirol jarduera egiteko maiztasuna.
- astero jarduera horietan ematen dituzten orduak, guztira.
- jarduera horiei astean zehar eskaintzen dizkieten egunak.

Ikasleen kirol ohiturei buruzko beste txosten batzuetan planteatu bezala (Kirol Kontseilu Gorena, Alimentum fundazioa eta Deporte Joven fundazioa, 2011; Bizkaiko Foru Aldundia, 2017), garrantzitsua da noizbehinkako antolatu gabeko kirola eta antolatu gabeko kirol jarraitua edo asterokoa bereiztea. Bizkaiko Foru Aldundiaren azterlanean (2017) ezarritakoaren haritik, noizbehinkako antolatu gabeko kirolak hamabost egunik behin modu librean egiten diren jarduerari egiten die erreferentzia; edo hilean behin egiten diren jarduerari; edo, nagusiki, oportetean; edo noizbehinka (astean behin baino gutxiago).


Bestalde, antolatu gabeko kirol jarduera jarraituak edo asterokoak gutxienez astean behin egiten diren kirol jarduerak biltzen ditu. Txosten honetan, antolatu gabeko kirol jarduera jarraituak egunero egiten diren jarduerak bildu ditu; edo astero 3 eta 5 egun artean; edo astero 1 edo 2 egun artean (ez asteburuetan); edo soilik asteburuetan.

3.3.1. Antolatu gabeko kirol jardueraren maiztasuna

Antolatu gabeko kirol jarduera modu espontaneoan egiteko maiztasunari dagokionez (66. grafikoa), batez ere asteburuetan gertatzen da (% 20,1), ez 2017an bezala, orduan astero egun bat edo biko baitzen maiztasuna (ez asteburuan), % 19,5koa. Hala ere, 2022an astero egun batean edo bitan egiten duten ikasleen ehunekoa esanguratsua da (% 16,1), eta % 15,6k astero 3-5 egun artean egiten du kirola bere kontura. Kirol jarduera antolatuen denbora dimentsioa askoz handiagoa da; kasu horretan, kirola astero 3-4 egunez egiten dutenen ehunekoa % 36,7 da.

Hala ere, maiztasunen garrantzia gogoan izan behar da, ehuneko txikiagoak izan arren, kontuan hartu beharreko datuak ere badirelako. Jardunen % 13,7 astean behin baino gutxiagotan gertatzen dira, % 12,1 batez ere oportetean eta % 9,7 egunero.

66. grafikoa Antolatu gabeko kirol jardueraren maiztasuna.




Datuak generoaren arabera aztertuz gero (67. grafikoa), argi dago kirol jarduera jarraituak aukerarik ohikoenak direla bi generoetan; % 60,53 nesken kasuan eta % 71,2 mutilen kasuan. Bada, aipatu behar da neskek soilik asteburueta maiztasuna adierazten dutela lehen aukera gisa (% 23,2), eta ondoren dator astean behin edo bitan egiteko aukera (% 19,2). Datu garrantzitsua da kirola eguneroko egiteko aukera ez dela agertzen neskek lehenetsitako aukeren artean (% 6,4). Egoera desberdina da mutilen artean, kasu horretan lehen aukera kirola astean behin edo bi aldiz egitea baita (% 21,6); ondoren dator astean 3-5 eguneko aukera (% 19,38), eta hirugarren postuan dago asteburueta aukera, % 17,4rekin, eta % 12,7k eguneroko egiten du kirola.

Bestalde, 31. taulari erreparaturik gero, neskek egiten duten kirol jardueren noizbehinkako maiztasunari

dagokion ehunekoa (% 39,6) mutilena (% 28,6) baino handiagoa dela ikus dezakegu.

Bestalde, genero eta urtearen arabera antolatu gabeko kirol jardueraren maiztasunak izan duen bilakaera aztertuz gero, 67. grafikoa ikus dezakegu esanguratsuen dela neskek asteburueta egiten duten jardunak % 3,9ko igoera izan duela, eta 2022an % 23,2ra iritsi dela. Neskei dagokienez, oporretan egiten den kirolak 2017. urtearekin alderatuta behera egiten duela ikus dezakegu, eta nesken ehuneko handiago batek (% 16,3) adierazi du astean behin baino gutxiago egiten duela kirola. Mutilen kasuan, nabarmenena da antolatu gabeko kirola astean 3-5 aldiz egiten dutela erantzun dutenen igoera handia da, % 19,4ra iritsiz.

67. grafikoa Antolatu gabeko kirol jardueraren maiztasunaren aukera nagusiak, generoaren arabera.



Antolatu gabeko kirol jardueraren maiztasunaren analisiarekin jarraituz, prestakuntza zikloaren arabera (31. taula), ikus dezakegu oro har antolatu gabeko kirol jardura jarraitua edo asterokoa dela hedatuena. Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) ikasle gehienek soilik asteburu egiten dute kirola, %27,9. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (8-10 urte) kirol jardura astero behin edo bi aldiz egitera igo da (% 21,6), baina nabarmena da, halaber, ikasleen % 17,3k noizbehinka egiten duela (aste behin baino gutxiago). Joera Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte) hasten da aldatzen, orduan ehunekoak orekatuago baitaude. Hain zuzen ere, ikasleen % 19,5ek astean behin edo bi aldiz egiten

du kirola, % 18,9k bakarrik asteburu eta % 17,5ek astero 3-5 aldiz.

Deigarria da Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte) jardun mota horretan (3-5 egun astero) ematen den beherakada; % 2,4ko jarduna baino ez du izan. Adin tarte horretan, gehiengoak (% 27,8) antolatu gabeko kirola noizbehinka baino ez du egiten, hau da astean behin. Hala ere, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan, kirol jardura antolatuak antzeko ehunekoak izan arren (% 34,3; astero 3-4 egun), antolatu gabeko kirol jardueran igoera antzeman da; 3-5 aldiz % 26,1ek egiten du, eta 1-2 aldiz % 23,4k.


31. taula Antolatu gabeko kirol jardura egiteko maiztasuna, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUERAREN MAIZTASUNA (ERANTZUN KOP.: 2.279)									
		Egunero	3-5 egun astean	1-2 egun astean	Bakarrik asteburu	15 egun behin	Hilean behin	Batez ere oporretan	Noizbehinka (aste behin baino gutxiago)
Arrazoiak, guztira	Zenbaketa	223	357	367	460	106	73	277	314
	%	% 9,7	% 15,6	% 16,1	% 20,1	% 4,6	% 3,2	% 12,1	% 13,7
GENEROA									
Neska	Zenbaketa	69	123	206	249	50	41	159	175
	%	% 6,4	% 11,4	% 19,2	% 23,2	% 4,6	% 3,8	% 14,8	% 16,3
Mutila	Zenbaketa	154	234	261	211	56	31	120	139
	%	% 12,7	% 19,3	% 21,6	% 17,4	% 4,6	% 2,5	% 9,9	% 11,5
PRESTAKUNTZA ZIKLOA									
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	43	46	108	176	54	30	69	104
	%	% 6,8	% 7,3	% 17,1	% 27,9	% 8,5	% 4,7	% 10,9	% 16,5
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	52	58	116	88	23	25	81	93
	%	% 9,7	% 10,8	% 21,6	% 16,4	% 4,2	% 4,6	% 15,1	% 17,3
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	60	64	71	69	9	8	35	48
	%	% 16,4	% 17,5	% 19,5	% 18,9	% 2,4	% 2,1	% 9,6	% 13,1
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	49	91	84	64	8	2	35	104
	%	% 13,1	% 2,4	% 22,4	% 17,1	% 2,1	% 0,5	% 9,3	% 27,8
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	19	98	88	63	11	8	49	29
	%	% 3,4	% 26,1	% 23,4	% 16,8	% 2,9	% 2,1	% 13,0	% 7,7

Antolatu gabeko kirolaren maiztasunaren konparazio analisia prestakuntza zikloaren arabera eginez gero (68. grafikoa), ikus dezakegu Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloan (6-10 urte) astero-ko maiztasunak/maiztasun jarraituak 2017an eta 2022an bezala jarraitzen duela. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte) eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (12-14 urte), berriz, ikusten

da asteroko maiztasunak/maiztasun jarraituak gora egin duela 2022an. Noizbehinkako maiztasunaren datuei dagokienez, egonkor mantendu dira 2017an eta 2022an, salbu eta Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte) eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte), horietan beherakada egon baita 2022an, 2017. urteari dagokionez.

68. grafikoa Antolatu gabeko kirolaren maiztasun jarraitua versus noizbehinkakoa, prestakuntza zikloaren arabera.



3.3.2. Antolatu gabeko kirol jardueran astero izandako dedikazioa (ordueta)

Antolatu gabeko kirol jardueraren denbora dimentsioan sakontzeko, ikasleek jarduera mota horretan astero ematen dituzten orduen kopuruari buruzko informazioa jaso da (69. grafikoa).


Ikusi denez, ikasleen % 30,2k astero bi ordu ematen ditu antolatu gabeko kirola egiten; ehuneko horrek 4,5 puntu egin du gora 2017. urtearekin erkatuta. Horrez gain, astero ordubete baino gutxiago horretan ematen duten ikasleen ehunekoa nabarmendu behar da, 2022an % 22,3 izan da, eta 2017an, berriz, % 14. Bestalde, antolatu gabeko kirol jarduera bost orduz edo gehiagoz egiten duten ikasleen ehunekoak ere behera egin duela ikusi da; 2022an % 18,1 izan da, eta 2017an % 26,8 izan zen. 2022an eta 2017an astero 3 eta 4 ordu horretan ematen dituzten ikasleen ehunekoa egoera egonkorrean dago.

Generoari dagokionez (32. taula), desberdintasunak antzeman dira nesken eta mutilen artean. Nesken % 31,3k astero bi ordu ematen ditu antolatu gabeko kirola egiten, eta % 28,4k astero ordubete baino

gutxiago. Haien kontura kirola egiten emandako orduen kopurua mutilena baino handiagoa da. Nahiz eta % 29,2k astero bi orduz egin, mutilen %24,7k astero bost orduz edo gehiagoz egiten du. Esan daiteke neskek, oro har, mutilek baino gehiago lotzen dituztela denbora tarte txikiagoak antolatu gabeko kirol jarduerekin (ordubete, bi ordu, hiru ordu baino gutxiago).

Horrez gain, astero bi orduko maiztasuna da Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloan (6-10 urte) antolatu gabeko kirol jarduera egiteko aukerarik hedatuena. Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte) astero bost ordu edo gehiagoko dedikazioak gora egin du (% 17,1), baina hedatuena astero bi ordukoa da, adin tarte horretan % 31,3ra iritsiz. Bestalde, Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte) antolatu gabeko kirolean emandako denbora anitzagoa da. % 26,1ek astero bi ordu ematen ditu horretan, eta beste % 25,4k bost ordu edo gehiago. Joera horri eutsi egiten zaio Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan, eta puntu bat behera egin du bost ordu edo gehiagoko dedikazioak (% 24,4). Ziklo horretan populazioaren % 25,4k astero bi ordu ematen ditu horretan.

69. grafikoa Antolatu gabeko kirol jardueran astero izandako dedikazioa (ordueta).



32. taula Antolatu gabeko kirol jardueretan astean (orduetan) izandako dedikazioa, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.


ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUERAREN ASTEROKO IRAUPENA (ERANTZUN KOP.: 1.395)						
		Ordubete baino gutxiago	2 ordu	3 ordu	4 ordu	5 ordu edo gehiago
Guztira	Zenbaketa	311	421	248	162	253
	%	% 22,3	% 30,2	% 17,8	% 11,6	% 18,1
GENEROA						
Neska	Zenbaketa	188	207	123	72	72
	%	% 28,4	% 31,3	% 18,6	% 10,9	% 10,9
Mutila	Zenbaketa	123	214	125	90	181
	%	% 16,8	% 29,2	% 17,1	% 12,3	% 24,7
PRESTAKUNTZA ZIKLOA						
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	63	98	48	36	35
	%	% 22,5	% 35	% 17,1	% 12,9	% 12,5
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	76	93	52	28	32
	%	% 27	% 33,1	% 18,5	% 10	% 11,4
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	57	86	47	38	47
	%	% 20,7	% 31,3	% 17,1	% 13,8	% 17,1
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	54	71	50	28	69
	%	% 19,9	% 26,1	% 18,4	% 10,3	% 25,4
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	61	73	51	32	70
	%	% 21,3	% 25,4	% 17,8	% 11,1	% 24,4

3.3.3. Antolatu gabeko kirola egiten den asteko egunak

Antolatu gabeko kirolean astero emandako egunei lotuta lortutako erantzun ehunekorik altuenak, garrantziaren arabera ordenan, larunbatei (% 71), igandeei (% 65,7) eta ostiralei (% 38,7) dagozkie (70. grafikoa).

Joera hori nesken zein mutilen artean errepikatzen da (33. taula), eta nesken artean dedikazio handieneko asteko egunak oso antzekoak dira, % 66,9 (larunbata) eta % 66,3 (igandea). Prestakuntza zikloei dagokienez, joera mantendu egiten da; antolatu gabeko kirola egiteko lehentasun nagusia asteburuetan da, eta beherakada arina izan du Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte).

70. grafikoa Antolatu gabeko kirolean astero emandako egunak.



33. taula Ikasleek antolatu gabeko kirolean astero emandako egunak, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.
ZENBAT IRAUTEN DU ENTRENAMENDU BAKOITZAK? (ERANTZUN KOP.: 4.322)

		Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Guztira	Zenbaketa	466	461	476	471	540	991	917
	%	% 33,4	% 33	% 34,1	% 33,8	% 38,7	% 71	% 65,7

GENEROA

Neska	Zenbaketa	163	172	171	167	187	443	439
	%	% 24,6	% 26	% 25,8	% 25,2	% 28,2	% 66,9	% 66,3
Mutila	Zenbaketa	303	289	305	304	353	548	478
	%	% 41,3	% 39,4	% 41,6	% 41,5	% 48,2	% 74,8	% 65,2

PRESTAKUNTZA ZIKLOA ETA ADINA

Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	66	83	74	86	87	219	225
	%	% 23,6	% 29,6	% 26,4	% 21,1	% 31,1	% 78,2	% 80,4
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	87	87	83	92	96	208	180
	%	% 31	% 31	% 29,5	% 32,7	% 34,2	% 74	% 64,1
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	104	83	98	91	110	196	164
	%	% 37,8	% 30,2	% 35,6	% 33,1	% 40	% 71,3	% 59,6
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	108	105	111	102	129	194	178
	%	% 39,7	% 38,6	% 40,8	% 37,5	% 47,4	% 71,3	% 65,4
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	101	103	110	100	118	174	170
	%	% 35,2	% 35,9	% 38,3	% 34,8	% 41,1	% 60,6	% 59,2

ANTOLATU GABEKO KIROLAREN DENBORA DIMENTSIOA

IDEIA NAGUSIAK

- * Kirola modu espontaneoan egitea batez ere asteburuetan gertatzen da (% 20,1).
- * Nesken eta mutilen artean, maiztasunean aldea dago. Neska gehienek soilik asteburuetan egiten dute kirola haien kontura (% 23,2). Hala ere, mutil gehienek aste barruan 1-2 egunetan egiten dute (% 21,6).
- * Adinak aurrera egin ahala, antolatu gabeko kirola egitea ohikoagoa da. Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte) maiztasunak gora egin duela ikusi da; % 26,1ek 3-5 egunetan egiten du, eta % 23,4k 1-2 egunetan.
- * Ikasleen % 30,2k bi ordu ematen ditu astero antolatu gabeko kirola egiten. Garrantzitsuak dira, halaber, astero ordubete baino gutxiago (% 22,3) eta 5 ordu edo gehiago (% 18,1) ematen dituzten ikasleak.
- * Horrez gain, astero bi orduko maiztasuna da Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloan antolatu gabeko kirol jarduera egiteko aukerarik hedatuena. Antolatu gabeko kirol jarduera egiteko denborak gora egiten du adinarekin.
- * Antolatu gabeko kirol jarduera asteburuetan egiten da gehien. Batez ere larunbatetan (% 71), igandeetan (% 65,7) eta ostiraletan (% 38,7). Joera partekatua da nesken zein mutilen kasuan.

3.4. ANTOLATU GABEKO KIROLA EGITEKO ANTZEMANDAKO OZTOPOAKA


Eskola kirol antolatuan bezalaxe, kirola haien kontura egiten duten ikasleei oztopo edo zailtasunik antzematen ote duten galdetu zaie eta, egonez gero, zein motatakoa den (71. grafikoa). Kirola haien kontura egiten duten ikasleen % 51,7k azaldu du ez duela kirola egiteko zailtasun edo oztoporik antzeman; zifra horrek ez du bat egiten 2017koarekin, orduan oztoporik antzematen ez zuen ikasleen ehunekoa % 54,8 baitzen.

Oztoporen bat antzematen duela adierazi duen % 41,7 horretan desberdintasun txiki bat ikusi da generoari dagokionez (72. grafikoa). Nesken % 25,7k zailtasunen bat dauka; mutilen kasuan, %21,4 da da-


tua. Horren haritik, 2017ko txostenarekin erkatuta dagoen aldea aipatu egin behar da; orduan bi generoen kasuan zailtasun ehunekoa askoz handiagoa zen; nesken % 43,2k oztopoak edo zailtasunak ziztuzten, eta mutilen % 40,2k. Hain zuzen ere, bi generoen kasuan zailtasunek behera egin dute nabarmen, eta haien arteko desberdintasunak mantendu egin dira.

Bestalde, 73. grafikoa ikusten den moduan, antolatu gabeko kirol jarduera egiteko oztopoak antzemateak une garrantzitsu bat du Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleen artean (6-8 urte), % 25,7ra iritsiz; hurrengo hezkuntza zikloetan behera egiten du eta berriz ere gora egiten du Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera (10-12 urte), % 28,6ra iritsiz Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleen artean (14-16 urte).


71. grafikoa Antolatu gabeko kirol jarduera egiteko antzemandako oztopoak, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.



72. grafikoa Antolatu gabeko kirol jarduera egiteko antzemandako oztopoak, generoaren arabera.



73. grafikoa Antolatu gabeko kirol jarduera egiteko antzemandako oztopoak, prestakuntza zikloaren arabera.



Ikasleek kirola egiten jarraitzeko antzemandako oztopoei dagokienez (34. taula), aipatu behar dira denbora falta (% 26,6), osasunari lotutako gaiak (% 16,8), beste jarduera batzuetatik ondorioztatutako nekea (% 15,3), proposatutako jardueran ondo moldatzen ez dela pentsatzea (% 8,6) eta beste jarduera batzuetako ordutegiekin bat etortzea (% 5,8).

Erantzunen aukeretan planteatutako gainerako gaiak ez dira garrantzitsutzat jo (ez dago instalazio egokirik, instalazioak oso urrun daude, kostua handia da, etab.), eta denek % 5 baino ehuneko txikiagoa dute. Horrenbestez, horrek guztiak erakusten digu ikasleek oztopo gisa antzematen dituztela bakoitzak aldi bakoitzean bizi dituen zirkunstantzia pertsonalak, eta ez duela inolako loturarik erakundeek edo inguruneak eskainitako baldintzekin.

Kirola egiteko oztopoak antzematean generoaren desberdintasunei dagokienez, ikusi da bi generoetako pertsonak denbora falta adierazi dutela lehenik eta behin, baina haien artean aldea 7 puntukoa da, hau da, nesken % 30ek oztopo hori aipatu du lehen postuan, eta mutilen kasuan, berriz, % 22,9k. Hala ere, osasunari, lesioei, gaixotasunei eta abarri buruzko gaiak badirudi kezka iturri handiagoa direla mutilentzat (% 21) neskentzat baino (% 12,9); nekea-

rekin aurkakoa gertatzen da (nesken % 18 eta mutilen %11,5) (34. taula).

Ikasleen hezkuntza zikloari erreparatuz gero, ikusi da denbora falta dela hezkuntza ziklo guztietan gehien aipatutako oztopoa, eta kasu guztietan % 20,5eko langa gainditzen duela, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan salbu (10-12 urte), orduan bigarren postuan jartzen baitute, baina, hala ere, erantzuna % 21,2ra iristen da.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleen artean (10-12 urte) lehen postuan lesionatzeko beldurra eta osasunari lotutako gaiak ageri dira, % 30,8 hartuz, eta alde handiarekin, 19,7 puntukoa, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek (6-8 urte) adierazi zutenarekin alderatuta, % 11,1ekin eta 18,3 puntuko aldearekin Lehen Hezkuntzako bigarren ziklokoekin (8-10 urte) alderatuta, % 12,5.

Azkenik, nabarmendu behar da Bigarren Hezkuntzako ikasleek beste jarduera batzuen (ikasketak, etab.) ondoriozko nekea oztopo gisa adierazi dutela. Kasu horretan, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleek (14-16 urte) bigarren lekuan jarri dute, % 22, eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko (12-14 urte) ikasleek hirugarren tokian jarri dute, erantzunen %15,4 hartuz.



34. taula Antolatu gabeko kirol jarduera egiteko antzemandako oztopoak, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.
ZEIN DIRA OZTOPO HORIEK?

Arrazoiak, guztira	Zenbaketa	Osasuna/lesioa/ gaixotasun bat dela eta	Ez naiz trebea	Ez daukat denborarik	Nekatuta nago beste jarduera batzuegatik (ikasketak, etab.)	Nire lagunek ez dute egiten	Garestia da	Ez dago instalazio egokirik	Ez dago aski plaza	Oso urrun dago	Aitak eta/edo amak ez dit uzten	Beste jarduera batzuekin batera egokitu zait	Ez daki/Ez du erantzun	Beste arrazoi batzuk
	%	% 16,8	% 8,6	% 26,6	% 15,3	% 1,2	% 0,6	% 4,3	% 1,8	% 2,8	% 0,6	% 5,8	% 6,4	% 9,2

GENEROA

Neska	Zenbaketa	22	13	51	32	2	1	8	2	7	0	10	9	13
	%	% 12,9	% 7,6	% 30	% 18,8	% 1,2	% 0,6	% 4,7	% 1,2	% 4,1	% 0	% 5,9	% 5,3	% 7,6
Mutila	Zenbaketa	33	15	36	18	2	1	6	4	2	2	9	12	17
	%	% 21	% 9,6	% 22,9	% 11,5	% 1,3	% 0,6	% 3,8	% 2,5	% 1,3	% 1,3	% 5,7	% 7,6	% 10,8

PRESTAKUNTZA ZIKLOA ETA ADINA

Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	8	2	15	7	2	2	9	3	0	1	7	4	12
	%	% 11,1	% 2,8	% 20,8	% 9,7	% 2,8	% 2,8	% 12,5	% 4,2	% 0	% 1,4	% 9,7	% 5,6	% 16,7
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	7	7	12	8	1	0	2	2	3	0	3	5	6
	%	% 12,5	% 12,5	% 21,4	% 14,3	% 1,8	% 0	% 3,6	% 3,6	% 5,4	% 0	% 5,4	% 8,9	% 10,7
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	16	7	11	7	0	0	0	0	0	0	2	5	4
	%	% 30,8	% 13,5	% 21,2	% 13,7	% 0	% 0	% 0	% 0	% 0	% 0	% 3,8	% 9,6	% 7,7
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	12	4	21	10	0	0	2	1	2	1	3	6	3
	%	% 18,5	% 6,2	% 32,3	% 15,4	% 0	% 0	% 3,1	% 1,5	% 3,1	% 1,5	% 4,6	% 9,2	% 4,6
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	12	8	28	18	1	0	1	0	4	0	4	1	5
	%	% 14,6	% 9,8	% 34,1	% 22	% 1,2	% 0	% 1,2	% 0	% 4,9	% 0	% 4,9	% 1,2	% 6,1

ANTOLATU GABEKO KIROLA EGITEKO ANTZEMANDAKO OZTOPOAK

IDEIA NAGUSIAK


- * Kirola haien kontura egiten duten ikasleen % 76,6k ez du inolako zailtasunik antzeman antolatu gabeko kirola egiteko. Soilik % 23,4k adierazi du baietz.
- * Antolatu gabeko kirola egiteko oztopoen pertzepzioak gora egiten du adinarekin. Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera, oztopoak antzematen dituzten ikasleen ehunekoak gora egiten du Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte) % 28,6ra iritsi arte.
- * Ikasleek kirola egiten jarraitzeko antzemandako oztopoei dagokienez, aipatu behar dira denbora falta (% 26,6), osasunari lotutako gaiak (% 16,8), beste jarduera batzuetatik ondorioztatutako nekea (% 15,3), proposatutako jardueran ondo moldatzen ez dela pentsatzea (% 8,6) eta beste jarduera batzuetako ordutegiekin bat etortzea (% 5,8).
- * Denbora falta badirudi kezka dela bai neskontzat, bai mutilentzat, baina ehunekoan aldea nabarmena da. Neskek % 30ean aipatzen dute, eta mutilek % 22,9n.
- * Bakoitzak etapa bakoitzean bizi dituen zirkunstantzia pertsonalak oztopo gisa bizi dituzte ikasleek, eta ez dute zerikusirik inguruak eta erakundeek eskaintzen dizkieten baldintzekin.

3.5. ANTOLATU GABEKO KIROLA EGITEN JARRAITZEKO ASMOA


74. grafikoan ikus daitekeen moduan, 2022an antolatu gabeko kirola egiten zuten ikasleen % 87,4k adierazi du datorren urtean kirola bere kontura egiten jarraitzeko asmoa duela. Zifra horrek bikoiztu egiten du 2017an egindako txostenean lortutako ehunekoak, orduan kirola egiten jarraitzeko asmoa zuen populazioa % 41,7koa baitzen. Kirola egiten jarraitzeko asmorik ez dutela erantzun dutenen zifra ere esanguratsua da, % 1,9; 2017an zifra hori % 54,8koa izan zen. Ez daki/ez du erantzun dutenen ehunekoaren igoera ere nabarmena izan da; 2022an % 10,8ra iritsi da.

Generoari dagokionez (75. grafikoa), ehunekoak ez dira aldatu antolatu gabeko kirola egiten jarraitzeko asmoari dagokionez, eta pixka bat baxuagoak dira nesken kasuan 2022an zein 2017ko aurreko txostenean.

74. grafikoa Datorren urtean antolatu gabeko kirola egiten jarraitzeko asmoa.




75. grafikoa Hurrengo urtean antolatu gabeko kirola egiten jarraitzeko asmoa, generoaren arabera.



Azkenik, prestakuntza zikloaren datuei erreparatuz (76. grafikoa), ikusi da datuak egonkor mantendu direla, eta bereziki altuak direla Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloan (6-10 urte), % 91,4 eta % 86,8 datuekin, hurrenez hurren. Hurrengo bi ziklo-

tan beherakada arina dute, eta Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte) % 89,9ra iristen da; horrek argi erakusten du eskola ikasleek antolatutako kirola egiten jarraitzeko asmoa dutela, hau da, haien kontura.

76. grafikoa Hurrengo urtean antolatutako kirola egiten jarraitzeko asmoa, prestakuntza zikloaren arabera.



ANTOLATU GABEKO KIROLA EGITEN JARRAITZEKOASMOA

IDEIA NAGUSIAK

- * **Antolatu gabeko kirola egiten duen ikasle populazioaren % 87,4k adierazi du hurrengo urtean kirola bere kontura egiten jarraitzeko asmoa duela.**
- * **Ehunekoak mantendu egiten dira generoari eta prestakuntza zikloari dagokienez; horrenbestez, ondorioztatu behar da gaur egun antolatu gabeko kirola egiten duten ikasleek kirola egiten jarraitzeko asmoa dutela.**



4. KIROL JARDUERAREN INDIZEA

4.1. DATU OROKORRAK



4. KIROL JARDUERAREN INDIZEA



4.1. DATU OROKORRAK

Bizitza estilo ez-osasungarrien, sedentarismoaren eta kirolaren errealtaterara gerturatzeko asmoz, antolatutako eta antolatu gabeko kirol jardueren astero izandako dedikazioaren aldagaiei erreparatuko zaie, Bizkaian ikasle komunitatearen kirol jardunaren adierazle modura. Sedentarismoak ohiko jarduera fisikorik gabeko bizitza estiloa dakar, mugimendurik gabea; komenigarriena, aldiz, gutxienez astean hiru aldiz 30 minutuz jarduera fisikoa egitea da. 30 minutu horiek egunean zehar banatu daitezke, ahal dela 10 minutu baino gutxiagokoak izango ez diren jarduera fisikoko tartetan; eguneroko jardueretan oinarritutako jarduera izan daiteke, esaterako erritmo onean oinez ibiltzea, eskailerak igotzea, etab.

Kirol Kontseilu Gorenak, Alimentum fundazioak eta Deporte Joven fundazioak (2011) esandakoarekin bat etorrituz, ikerketa honek Bizkaiko eskola ikasleen kirol jardunaren indizea kalkulatu du; horri esker, eskola populazioen arteko konparazioak egin ahalko dira. Parametro horiek jarraituz, Bizkaiko eskola populazioaren kirol jardunaren joera edo bilakaeraren analisia egitea lortu nahi da.

Horretarako, eskola ordutegitik kanpo antolatutako eta antolatu gabeko kirol jardunari astero eskainitako ordu kopuru osoa erabili da. Hezkuntza Fisikoan emandako orduak indize honen kalkulutik kanpo utzi dira, ordu horiek eskola populazioaren curriculum akademikoaren barruan jaso baitira. Proposatutako indizeak Bizkaiko eskola ikasleek antolatutako eta antolatu gabeko kirola egiten astero ematen dituzten orduak lau profiletan antolatzen ditu:

35. taula Eskola populazioaren profilak Bizkaian, antolatutako eta antolatu gabeko kirola egiten astero izandako dedikazioaren arabera.

Eskola populazio aktiboa	Astean 5 ordu edo gehiago
Modu moderatuan aktiboa den eskola populazioa	Astean 4 ordu
Modu moderatuan sedentarioa den eskola populazioa	Astean 3 ordu
Eskola populazio sedentarioa	Astean bi ordu baino gutxiago

Iturria: Kirol Kontseilu Gorena, Alimentum fundazioa eta Deporte Joven fundazioa (2011, 46. or.).

Hala ere, azterlan honetan planteatutako tipologia aintzat hartu dira 35. taulan aipatutako kirol jardueraren lau mailak, eta, gainera, inolako kirol egiten ez dutela adierazi duten ikasleak ere kontuan hartu dira. Ondorioz, bost profileko tipologia sortu da (ikus 36. taula). Azken ikasle talde hori ere aintzat hartu beharko litzateke kirol jardueraren edozein indizetan, nekez bidera daitekeen sedentarismo maila duen populazio modura. 2022. urtearen kasuan, eskola populazioaren % 9,5 izango litzateke.

36. taula Kirol jardueraren indizearen eta tipologiaen konparazioa 2022

	2017	2022	2022 tipologia
Eskola populazio aktiboa	60,4	66,5	60,2
Aktiboa, modu moderatuan	12,2	10	9
Sedentarioa, modu moderatuan	8,8	9,7	8,8
Sedentarioa	18,6	13,7	12,5
Kirol jarduerarik ez	Ez dago eskuragarri		9,5
GUZTIRA	100	100	100

Kirol jardueraren indizearen konparazio analisia egiteko helburuarekin jarraituz, oraingoan kirol egiten ez duen % 9,5 hori aintzat hartu gabe, Bizkaian eskola populazio aktiboaren datuek gora egin dute % 60,4tik % 66,5era, populazio sedentarioa, hau da, astean kirol jardueraren bat egiten bi ordu baino gutxiago ematen duen populazioa, murriztuz.

Eskola populazioak jarduera fisikoaren edo kirol modalitate baten inguruan hartzen duen erabakietan testuinguruak edo gertuko inguruneak ere eragina dauka. Adin horretan berdinen edo parekoen taldeak erreferente bihurtu ohi dira eta, horrenbestez, lagunek eragina daukate kirolera gerturatzean. Jarduera fisiko jakin bat proposatzeko parte hartzea, lankidetzeta eta, are gehiago, onarpena ere behar dira. Berdinen taldean adingabe eta nerabeen ohitura asko konfiguratzeko, tabako eta alkoholaren kontsumoa, bideo-jokoak, sare sozialak; kirol modalitate bat egiteko edo ez egiteko erabakiak baldintzatzen dituzte. Jarduera fisiko eta/edo kirol modalitate bat egiteko berdinen taldearen gonbidapena, imitazioa edo kutsatzea gako dira eskola ikasleen artean kirol jarduera handiagoa edo txikiagoa ulertzeko.


77. grafikoa kirol jardueraren indizea ikus daiteke, genero aldagaiaren arabera. 2017ko txostenaren joera berean, azken hiru marrek irudikatzen duten sedentarisinoa larriagoa da nesken artean, bereziki kirolik egiten ez duten nesken artean (% 7). Kirol jardueraren intentsitatearen aldea generoen artean ere nabarmena da. Kirol jarduera biziena (astean 5 ordu edo gehiago), mutilen kasuan mutil guztien % 72,9 hartzen du; nesken kasuan, berriz, nesken ia % 60 hartzen du.

Prestakuntza zikloari dagokionez (78. grafikoa), datuek erakutsi dute kirol jarduera bizienak gora egin duela prestakuntza zikloetan aurrera egin ahala; horrek esan nahi du adinarekin kirol jardueraren intentsitatea ere handitu egiten dela. Adin goiztiarrenek ez daukate kirola egiteko ordu asko, eta horrek badu zentzua; hala ere, kirol jarduerarako inflexio puntua Lehen Hezkuntzako bigarren


zikloan (8-10 urte) gertatzen dela nabarmentzea interesgarria da. Datua garrantzitsua da, kirola adin goiztiarretan sustatzea giltzarri baita osasun fisiko eta psikologiko ona mantentzeko. Hala, Olivoren hitzetan (2012): “Haurtzaroan aktiboak izan diren pertsonek probabilitate handiagoa daukate helduaroan sedentarioak ez izateko” (16. or.). Arrazoizko jarduera mailak mantentzen dituzten pertsonek, bereziki helduaroan eta zahartzaroan, gaixotasun kronikoak izateko probabilitate txikiagoa daukate.

79. grafikoa kirol jardueraren indizearen mailak ikus daitezke, ikastetxearen arabera. Bi titulartasun moten arteko alde txikiekin, badirudi ez dagoela alde handirik ikastetxe baten eta beste batzuen artean (publikoa edo pribatu-iturpekoa), baina badirudi sedentarisinoak eragin handiagoa daukala ikastetxe publikoetan.


77. grafikoa Kirol jardueraren indizea, generoaren arabera.



78. grafikoa Kirol jardueraren indizea, prestakuntza zikloaren arabera.




79. grafikoa Kirol jardueraren indizea, titulartasunaren arabera.



KIROL JARDUERAREN INDIZEA

IDEIA NAGUSIAK

- * **Sedentariaz eskola ikasleen % 21,3n ageri da; kirol egiten ez duten ikasleekin batera (% 9,5), sedentariaz, maila desberdinetan, 10 ikaslelik hirutan jar daitezke.**
- * **Generoari dagokionez, mutilen kirol jardueraren indize aktiboagoa daukate, % 73ren ingurukoa.**
- * **Prestakuntza zikloaren arabera, kirol jardueraren intentsitate handienak Lehen Hezkuntzako bigarren ziklotik aurrera du inflexio puntua (8-10 urte).**
- * **Ikastetxearen titulartasuna ez da aintzat hartu beharreko elementuetako bat kirol jardunaren indizea baloratzean, bi ikastetxe motetan ehunekoak parekoak baitira.**





5. KIROLIK EGITEN EZ DUTEN IKASLEAK

5.1. DATU OROKORRAK

5.2. KIROLIK EZ EGITEKO ARRAZOIAK

5.3. KIROLIK EGITEN EZ DUTEN IKASLEEN KIROL HISTORIA

5.3.1. Orain kirolik egiten ez duten eskola ikasleek lehen egiten zuten kirol antolatuaren entitate arduraduna

5.3.2. Orain kirolik egiten ez duen eskola populazioaren kirol jardueraren jarraitutasuna, utzi aurretik

5.3.3. Kirol jarduera uzteko arrazoi nagusiak

5. KIROLIK EGITEN EZ DUTEN IKASLEAK




5.1. DATU OROKORRAK


Denontzako kirol jardueraren puntutik, Bizkaian eskola populazioaren jardunak beherakada arina izan du (% 5,1) 2017ko txostenean aurkeztutako datuekin erkatuta (80. grafikoa). Eskola populazioaren % 9,5ek adierazi du ez duela kirol egiten. Generoari dagokionez (81. grafikoa), neskek ehuneko handia-

goa osatzen dute (% 5,5) kirol egiten ez duten mutilek baino (% 3,9). Ikasleen multzoan kirol egiten ez dutenen ehunekorik altuenak Bigarren Hezkuntzako zikloetan agertzen dira, lehen zikloan (12-14 urte) zein bigarren zikloan (14-16 urte) (82. grafikoa). Zikloetan zehar neska eta mutilen arteko ehuneko desberdintasun txikiek ez dute posible egiten berriazko arrazoiak adieraztea.


80. grafikoa Kirol egiten ez duten ikasleak.



81. grafikoa Kirol egiten ez duten ikasleak, generoen arabera.



82. grafikoa Kirol egiten ez duten ikasleak, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.




Bizkaian ikasleak joaten diren ikastetxeen titulartasuna ez da elementu bereizlea kirolik egiten ez duten populazioa hartzeari dagokionez. 83. grafikoan alde txikia antzematen da.

Kirolik egiten ez duten ikasleak eta ikasle horiek ikasten duten ikastetxearen titulartasuna eta prestakuntza zikloa batera aztertuz gero (84. grafikoa), ikusten da Bigarren Hezkuntzako zikloak paper protagonista hartzen duela kirolik egiten ez duten ikasleentzako artean. Kirolik egiten ez duten ikasleentzako ehunekoak ikastetxe pribatu edo itunpekoetan egin dute gora gehien, eta 12 urtetik aurrera kirola egiteari uzteko ideia indartu egiten da horrela.


Kirolik egiten ez duten ikasleentzako analisia generoaren aldagaia sartuz gero (85. grafikoa), nabarmen

na da ikastetxe pribatu edo itunpekoetan Bigarren Hezkuntzako zikloetako neskei erasaten diela gehien igoerak, ikastetxe horietako Bigarren Hezkuntzako zikloetako mutilen pareko ehunekoetan.


83. grafikoa Kirolik egiten ez duten ikasleak, titulartasunaren arabera.



84. grafikoa Kirolik egiten ez duten ikasleak, prestakuntza zikloaren eta titulartasunaren arabera.



85. grafikoa Kirolik egiten ez duten ikasleak, generoaren, prestakuntza zikloaren eta titulartasunaren arabera.



KIROLIK EGITEN EZ DUTEN IKASLEAK

IDEIA NAGUSIAK


- * Eskola populazioaren % 9,5ek adierazi du ez duela kirolik egiten.
- * Talde horretatik, % 5,5 neskak dira, eta% 3,9 mutilak.
- * Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloari (14-16 urte) dagokio kirol jardunik ezaren ehunekorik altuena, bereziki ikastetxe pribatu eta itunpekoetan.
- * Kirolik egiten ez duten ikasleen presentzia nabarmenagoa da Bigarren Hezkuntzako ziklotik aurrera ikastetxe pribatu edo itunpekoetan.

5.2. KIROLIK EZ EGITEKO ARRAZOIAK

Kirolik ez egiteko emandako arrazoen artean (86. grafikoa) daude kirola egitea ez gustatzearekin lotutakoak (% 11,2), denborarik ezari lotutakoak (% 17,3) edo beste jarduera batzuek eragindako nekea (% 8,2). Arrazoi horiek guztiek badirudi atzera egiten ari direla. Hala ere, ez daki/ez du erantzun aukeraren ehunekoaren igoerak errealitate hau ezkutatu dezake, 2017an % 17,5 izatetik % 29,5era igo baita.

Eskola populazioak adierazitako hiru arrazoi nagusiek (37. taula), ez daki/ez du erantzun aukera salbu, lotura daukate kirola egiteko denbora falta-rekin, prestakuntza ziklo guztietan salbu eta Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan (10-12 urte), orduan arrazoi nagusia trebea ez izatea baita. Horrez gain, lehenetasun pertsonalak agertzen dira, eta badirudi horiek ohitura eta bizitza estilo sedentarioei lotutako zenbait arrazoi ezkutatu ahal dituztela.

86. grafikoa Kirolik ez egiteko arrazoi nagusia.




37. taula Kirolik ez egiteko arrazoiak, prestakuntza zikloaren arabera.

KIROLIK EZ EGITEKO ARRAZOI NAGUSIAK						
		Ez zait gustatzen	Ez naiz trebea	Ez daukat denborarik	Nekatuta nago beste jarduera batzuegatik	Ez daki/ Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	22	15	34	16	58
	%	% 11,2	% 7,7	% 17,3	% 8,2	% 29,6
PRESTAKUNTZA ZIKLOA						
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	2	2	4	1	6
	%	% 7,1	% 7,1	% 14,3	% 3,6	% 21,4
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	5	3	6	2	15
	%	% 13,9	% 8,3	% 16,7	% 5,6	% 41,7
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	6	7	3	1	13
	%	% 17,6	% 20,6	% 8,8	% 2,9	% 38,2
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	4	2	12	5	13
	%	% 8,7	% 4,3	% 26,1	% 10,9	% 28,3
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	4	1	9	7	11
	%	% 9,6	% 1,9	% 17,3	% 13,5	% 21,2

Horrez gain, generoari dagokionez (87. grafikoa), aipatutako arrazoi guztiak gehiago ageri dira nesken

kasuan, ez gustatzeari dagokiona salbu, kasu horretan presentzia handiagoa baitu mutilen kasuan.

87. grafikoa Kirolik ez egiteko arrazoi nagusiak, generoaren arabera.


KIROLIK EGITEN EZ DUTEN IKASLEAK. DATU OROKORRAK

IDEIA NAGUSIAK

- * Eskola jardueratik kanpo kirolik egiten ez duten ikasleen arrazoiak denbora faltaren eta beste jarduera batzuen ondoriozko nekearen artean mugitzen dira.
- * Mutilen % 14,6ri ez zaio kirola egitea gustatzen, ezta nesken %8,6ri ere ez.
- * Neskek denbora faltaren ehuneko handiagoa daukate (% 19,3) eskola ordutegitik kanpo kirolik ez egiteko arrazoi modura.

5.3. KIROLIK EGITEN EZ DUTEN IKASLEEN KIROL HISTORIA

Kirolrik egiten ez duen eskola populazioaren ezau-garriak deskribatzean garrantzitsua da jakitea lehenago kirola egin ote duen eta, horrenbestez, kirola egiteari utzi dion populazio segmentu bat den, edo, aldiz, kirola inoiz egin ez duen populazioa ote den; kasu horretan, etorkizunean kirola egiten hasteko aukera askoz zailagoa da. Komunitate horren aurretiazko historia ezagutzeak ahalbidetuko du aurretik kirolen bat egiten zuten ikasleek kirola egitea berreskuratzeko proposamenak planteatzea.


Gaur egun kirolrik egiten ez duen eskola populazioaren % 57,6k aurretiaz kirolen bat egiten zuen (88. grafikoa). % 43,4k ez du kirolrik egiten eta ez du inoiz egin. Une honetan kirolrik egiten ez duten baina lehenago, uneren batean, kirola egiten zuten ikasleen artean hautatutako aukera nagusia kirol antolatua da; aurretiaz antolatu gabeko kirola edo kirola haien kontura egiten zuten ikasleak soilik % 14,3 ziren. Datuak desberdin ikusten dira 2017ko ikuspegitik, item guztietan aldeak baitaude. Kirolrik ez egitearen kasuan, % 37,7tik % 43,4ra igaro da. Kirola egiten dutenen kasuan, jardun antolatua % 51,4tik % 42,3ra igaro da, eta antolatu gabeko kirol jardunaren kasuan, baina haien kontura egiten dena, % 7,4tik % 14,3ra igaro da.

38. taulan ikus daitekeen moduan, lehenago kirol antolatua egiten zuten nesken ehunekoa (% 44,7) mutilena baino % 5 baino pixka bat handiagoa da

(% 39). Datu honek hausnarketarako gonbidapena egiten du, kirol antolatua tresna modura hartzeko eskola ordutegitik kanpo kirola egitea luzatzeko edo kirola egiteari uzteko disuasio elementu modura.

Horren haritik, kirol klubek (% 27,7), ikastetxeek (% 25,3) eta, neurri txikiagoan, udal kiroldegiek (% 15,7) betebeharrak erabakigarria daukate kirol jarduna ikasleen artean sustatzeko, lehenago kirola egiten zutenen kirol jardunaren erakunde arduradun nagusiak baitira (89. grafikoa). 2017ko datuak eta gaur egungoak erkatuz gero, kirol jarduna sustatzeko behera egin du udal kiroldegi eta ikastetxeetan; izan ere, kiroldegiek ia 14 puntuko beherakada izan dute eta ikastetxeek, berriz, 11 puntuko.

88. grafikoa Lehenago kirola egiten zuten ikasleak, eta egindako kirol mota.



38. taula Lehenago egindako kirol mota, generoaren arabera.


LEHEN KIROL EN BAT EGITEN AL ZENUEN ESCOLA ORDUTEGITIK KANPO?				
		Bai, antolatutakoa.	Bai, antolatu gabeko kirola, nire kontura.	Ez
Guztira	Zenbaketa	83	28	85
	%	% 42,3	% 14,3	% 43,4
GENEROA				
Neska	Zenbaketa	51	15	48
	%	% 44,7	% 13,2	% 42,1
Mutila	Zenbaketa	32	13	37
	%	% 39	% 15,9	% 45,1

5.3.1. Orain kiroltik egiten ez duten eskola ikasleek lehen egiten zuten kirol antolatuaren entitate arduraduna

Lehenago egindako kirol antolatuaren entitate arduradunak generoaren arabera aztertuz gero, desberdintasunak argiak dira (39. taula). Nesken kasuan, ikastetxeek eta kirol klubek portaera berdina izan dute (% 15,6); mutilak, aldiz, gutxiago joaten dira ikastetxeetara (% 9,6) eta kirol klubetara (% 12). Da-

turik nabarmenena udal kiroldegien kasuan ikusten den aldea da, eta ia 8 puntu eta erdiko desberdintasuna dago nesken (% 12) eta mutilen artean (% 3,6). 2017ko datuekin erkatuta, ikastetxeek eta udal kiroldegiek beheranzko joera daukate, batez ere nesken kasuan; udal kiroldegien kasuan 10 puntu galdu dituzte, eta 7,6 puntu ikastetxeen kasuan. Mutilen kasuan ere, ehunekoek beheranzko aldaketak izan dituzte, baina ez dira horren nabarmenak.

89. grafikoa Lehenago egindako kirol antolatuaren entitate arduraduna.



39. taula Lehenago egindako kirol antolatuaren entitate arduraduna, generoaren arabera.

KIROL ANTOLATUAREN BARRUAN EGITEN ZENUEN KIROLA NORK ANTOLATZEN ZUEN?							
		Ikastetxea	Kirol kluba	Udal kiroldegia	Gimnasioa	Beste batzuk	Ez daki/ Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	21	23	13	7	12	7
	%	% 25,3	% 27,7	% 15,7	% 8,4	% 14,5	% 8,4
GENEROA							
Neska	Zenbaketa	13	13	10	5	7	3
	%	% 15,6	% 15,6	% 12,0	% 6,0	% 8,4	% 3,6
Mutila	Zenbaketa	8	10	3	2	5	4
	%	% 9,6	% 12	% 3,6	% 2,4	% 6,0	% 4,8

5.3.2. Orain kirolik egiten ez duen eskola populazioaren kirol jardueraren jarraitutasuna, utzi aurretik

Utzi aurreko kirol jarraitutasunari dagokionez (40. taula), ikusi da mutilek kirola uzteko joera dutela batez ere 1-5 urte artean kirola utzi eta gero; aurretiaz 1-2 urtez kirola egin dutenak % 20,5 dira, eta 3-5 urte artekoak % 46,2. Nesken kasuan, datuek adierazten dutenez kirola egiteari utzi aurreko kirol jardueraren jarraitutasun tarte bakoitzak % 25 inguruko ehunekoa hartzen du. Hala ere, Bigarren Hezkuntzako prestakuntza zikloari dagozkion emaitzei erreparaturaz gero, ikusten da abandonuen erdia baino ge-

hiagok aurretiaz 1-5 urtez egin duela kirola; ikusten denez, oso populazio txikiak egiten du kirola 6 urte baino gehiagoz, zehazki % 34,8k.

Datu horiek 2017ko datuekin erkatuz gero, argi dago aldaketa handienak mutilen artean ematen direla; izan ere, kirola egiteari utzi aurreko kirol jarduna gaur egun handiagoa izatea da joera. Datu horrek argi uzten digu mutilen % 0k kirola egiteari utzi aurretik 10 urte baino gehiagoko jarraitutasuna zuela; gaur egun, berriz, datua % 28,2koa da. Datu hori ere esanguratsua da emakumeen kasuan; izan ere, tarte horrek 14 puntutan egin du hobera, % 8tik % 22,6ra.

40. taula Kirol jarduera utzi aurretik jardueraren jarraitutasuna, generoaren, prestakuntza zikloaren eta adinaren arabera.

		1- 2 URTE BITARTEAN	3- 5 URTE BITARTEAN	6- 10 URTE BITARTEAN	10 URTE BAINO GEHIAGO
Guztira	Zenbaketa	7	16	8	4
	%	% 20	% 45,7	% 22,9	% 11,4
GENEROA					
Neska	Zenbaketa	17	27	14	14
	%	% 27,4	% 27,4	% 22,6	% 22,6
Mutila	Zenbaketa	8	18	2	11
	%	% 20,5	% 46,2	% 5,1	% 28,2
PRESTAKUNTZA ZIKLOA					
Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)	Zenbaketa	13	26	11	11
	%	% 22,9	% 41,9	% 17,4	% 17,4


5.3.3. Kirol jarduera uzteko arrazoi nagusiak

Kirolik egiten ez duten ikasleek kirola uzteko aipatu dituzten arrazoi nagusiei dagokienez (90. grafikoa), salbu eta ez dakitenak edo erantzun ez dutenak (% 27,4) edo beste batzuk (% 12,3), % 17,9k azaldu du ez zitzaiola gustatzen egiten zuen kirola, % 9,4k osasun, gaixotasun edo lesio arrazoiak aipatu ditu, eta % 7,5ek beste jarduera batzuen ondorioz nekatuta dagoela aipatu du (ikasketak, etab.).


Uneren batean kirola egiten zuten baina gaur egun kirolik egiten ez duten ikasleak berreskuratzeko

aukera aztertze aldera, hurrengo urtean kirolen bat egiteko asmoa duten ikasleak % 40,4 dira (91. grafikoa); kirol jarduera berreskuratzeko asmorik ez dutela adierazi dutenen proportzio berdintsua da. Generoari dagokionez (41. taula), badirudi hurrengo urtean kirolen bat egiteko asmoa dutela adierazi dutenak mutilak direla (% 47,5); hurrengo urtean kirolen bat egin nahi dutela adierazi duten neskek, berriz, % 40,7 dira. Berriz ere ehuneko horiek zuhurtziaz hartu behar dira, zein asmo duten ez dakitela adierazi duten ikasleen ehunekoa altua delako.

90. grafikoa Kirol jarduera uzteko arrazoi nagusiak.



91. grafikoa Hurrengo urtean kirola egiteko asmoa.



41. taula Hurrengo urtean kirola egiteko asmoa, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.
DATORREN URTEAN KIROLA EGITEKO ASMOA DAUKAZU? (ERANTZUN KOP.: 193)

		Bai	Ez	Ez daki/Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	84	31	78
	%	% 43,5	% 16,1	% 40,4

GENEROA

Neska	Zenbaketa	46	18	49
	%	% 40,7	% 15,9	% 43,4
Mutila	Zenbaketa	38	13	29
	%	% 47,5	% 16,3	% 36,3


PRESTAKUNTZA ZIKLOA

Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	15	1	12
	%	% 53,6	% 3,6	% 42,9
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	12	4	20
	%	% 33,3	% 11,1	% 55,6
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	17	4	12
	%	% 51,5	% 12,1	% 36,4
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	16	10	18
	%	% 36,4	% 22,7	% 40,9
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	24	12	16
	%	% 46,2	% 23,1	% 30,8

Kirol jarduera uzteko arrazoi edo motiboekin batera, ezinbestekoa da jakitea zein alderditan eragin daitekeen ohitura hori berreskuratzeko (92. grafikoa). Bi generoek gehien aipatutako arrazoiaren artean kirola gustatzea egonenez, zentzuzkoa da ikustea kirolik egiten ez duen taldearen % 22,6k gustatzen zaion kirola egin beharko lukeela, baina denbora falta ez

da agertzen alderdi aipatuenen artean, eta alderdi txikiago bihurtu da. Lehen alderdi horri, kirola gustatzea (% 22,6) kirolarekiko jarrera edo lehentasunen inguruko elementu bat gehituz gero, adibidez trebea izatea (% 12,9), orduan esan dezakegu kirol jarduera berreskuratzeko kirolarekiko jarrera alderdiak landu behar direla.

92. grafikoa Kirola egitera animatuko lituzketen alderdiak



KIROLIK EGITEN EZ DUTEN IKASLEEN KIROL HISTORIA

IDEIA NAGUSIAK

- * Orain kirolik egiten ez duten ikasle populazioaren % 57,6k adierazi du aurreko eskola etapetan kirola egin duela.
- * Lehenago kirol antolatua egiten zuten nesken ehunekoa mutilena baino pixka bat altuagoa da (% 44,7; mutilen kasuan, % 39).
- * Kirola egiteari utzi aurreko kirol jardueraren entitate arduradun nagusiak kirol klubak eta ikastetxeak ziren.
- * Kirola uzteko adierazitako arrazoi nagusia kirola egitea gustuko ez izatea da (% 17,9).



6. KIROL JARDUERA PANDEMIAREN ONDOREN

6.1. DATU OROKORRAK

6.1.1. Pandemiaren ondoren eskola ikasleek kirola egiten ez jarraitzeko arrazoi nagusiak

6.1.2. Aldaketak kirol jardueran pandemiaren ondoren

6.2. PANDEMIAREN ONDOREN KIROLA EGITEN HASI DIREN IKASLEEK GEHIEN EGINDAKO KIROL MODALITATEAK

6.2.1. Pandemiaren ondoren kirola egiteko erabilitako espazioak

6.3. PANDEMIAREN ONDOREN HASITAKO KIROL ANTOLATUA

6. KIROL JARDUERA PANDEMIAREN ONDOREN



6.1. DATU OROKORRAK


2022ko inkestan ikasleei zuzendutako galdera sorta bat ere prestatu zen, COVID-19aren pandemiaren ondorioz pandemia aldiarekin erkatuta kirol ohituraren aldaketan berri izateko.

Pandemiaren aurretik eta ondoren kirola egiten duen eskola populazioaren konparazio analisiak (93. grafikoa) pandemiak eskola populazioan izan duen eraginaren balantze positiboa jaso du. Kirol jarduerak % 15eko igoera izan du, eta eskola populazioan, oro har, % 78,7 izatetik % 93,8 izatera pasatu da.


Pandemiak kirol jardueran izan duen eragina hobeto ulertzeko aipatu behar da posible dela pandemiaren aurretik kirol egiten ez zutela adierazi duten ikasleetako askok (% 21,3) inolako kirol egitea oso gazteak zirelako; horrenbestez, kirol jarduerak gora egitea ez zaio pandemiaren eraginari leporatu behar. Pandemia aurretik eskola populazioaren laginaren adin banaketa erakusten duen 94. grafikoa arabera, pandemia aurretik kirol egiten ez zutenen % 42,2k 6 urte edo gutxiago zituen. Pandemiaren ondoren eskola populazioaren artean kirol jarduerak gora egin izana partzialki horregatik izan daiteke.

Pandemiaren aurretik eta ondoren neska eta mutilen arteko kirol jarduera konparatzean, grafikoak erakusten du igoera handiagoa izan dela nesken artean (95. grafikoa).


93. grafikoa Pandemiaren aurretik eta ondoren kirola egiten duen eskola populazioaren konparazioa, oro har eta generoaren arabera.



94. grafikoa Pandemiaren aurretik kirol egiten ez duela adierazi duen eskola populazioaren adin banaketa.



95. grafikoa Pandemiaren aurreko eta ondorengo kirol jardueraren konparazioa, generoaren arabera.



6.1.1. Pandemiaren ondoren eskola ikasleek kirola egiten ez jarraitzeko arrazoi nagusiak


Pandemiaren ondoren kirola egiten ez jarraitzeko aipatutako arrazoiaren artean (96. grafikoa), egoera horretan dagoen eskola populazioak kirolik egiten ez duten ikasleek aipatutako arrazoiaren antzekoak adierazi dituzte. Ikasleen ehuneko altu batek ez daki adierazten edo ez du erantzun zein diren kirolik ez egiteko arrazoiak; jarraian, arrazoi nagusiak dira kirol jarduera ez dela erakargarria (Ez zait gustatzen, % 20) eta denbora falta beste jarduera batzuegatik (% 16).

Pandemiaren ondoren kirola egiten ez jarraitzeko arrazoiak ez dakizkitela adierazi duten ikasleen ehu-


neko altua aintzat hartuz (% 34), kirol jardueratik urruntzeari lotutako desberdintasunek osatzen dute neskek adierazitako arrazoi nagusia (% 22,4). Pandemiaren ondoren kirola egiten ez jarraitzeko arrazoi modura denbora faltaren ehunekorik handiena (% 18,4) neskek adierazi dute (97. grafikoa).

Prestakuntza zikloari dagokionez (42. taula), begirada batez ere Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte) jarri behar da. Ikasle horiek denbora falta aipatu dute arrazoi aipagarri modura pandemiaren ondoren kirol jardueraren bat uzteko.

96. grafikoa Pandemiaren ondoren eskola ikasleek kirola egiten ez jarraitzeko arrazoiaren ehunekoa (116).



97. grafikoa Pandemiaren ondoren eskola ikasleek kirola egiten ez jarraitzeko arrazoen ehunekoa, generoaren arabera (116).



42. taula Pandemiaren ondoren eskola ikasleek kirola egiten ez jarraitzeko arrazoiak, prestakuntza zikloaren arabera (116)

PANDEMIAREN ONDOREN KIROLA EGITEN EZ JARRAITZEKO ARRAZIOIAK (ERANTZUN KOP.: 100)

Arrazoiak, guztira	Zenbaketa	Ez zitzaidan gustatzen	Osasuna/lesioa/gaixotasun bat	Denbora faltagatik	Lagunek egiteari utzi diote	Aitak/ amak ez dit uzten jarraitzen	Jardueren ordutegietan aldatetak	Garestiegia da	Ez dago instalazio egokirik	Ez dago instalaziorik gertu	Nahiago dut jarduerak aire libreak egin	Beste batzuk	Ez daki/Ez du erantzun
		%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
	Zenbaketa	23	4	19	4	1	7	1	1	2	---	14	40
	%	% 23	% 4	% 19	% 4	% 1	% 7	% 1	% 1	% 2	---	% 14	% 40

PRESTAKUNTZA ZIKLOA


Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	Ez zitzaidan gustatzen	Osasuna/lesioa/gaixotasun bat	Denbora faltagatik	Lagunek egiteari utzi diote	Aitak/ amak ez dit uzten jarraitzen	Jardueren ordutegietan aldatetak	Garestiegia da	Ez dago instalazio egokirik	Ez dago instalaziorik gertu	Nahiago dut jarduerak aire libreak egin	Beste batzuk	Ez daki/Ez du erantzun
		%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
	Zenbaketa	---	---	1	1	1	1	---	---	---	---	---	---
	%	---	---	% 25	% 25	% 25	% 25	---	---	---	---	---	---
	Zenbaketa	2	---	1	---	---	---	---	---	1	---	3	9
	%	% 12,5	---	% 6,2	---	---	---	---	---	% 6,2	---	% 18,7	% 56,2
	Zenbaketa	6	2	---	1	---	---	---	1	---	---	1	9
	%	% 33,3	% 11,1	---	% 5,5	---	---	---	% 5,5	---	---	% 5,5	% 50
	Zenbaketa	6	2	6	---	1	2	---	---	1	---	2	13
	%	% 20,6	% 6,8	% 20,6	---	% 3,4	% 6,8	---	---	% 3,4	---	% 6,8	% 44,8
	Zenbaketa	9	---	11	2	---	4	---	---	---	---	8	7
	%	% 27,2	---	% 33,3	% 6,06	---	% 12,1	---	---	---	---	% 24,2	% 21,1

6.1.2. Aldaketak kirol jardueran pandemiaren ondoren

Pandemiak aldaketak ekarri ditu gizartearen jokabide eta ohituretan, eta kirol jardueraren kasuan ere berdin gertatu da. Kirola egiten duten eskola ikasleek % 28,3n aitortu dute pandemiaren ondoren kirol jarduera aldatu egin dela (98. grafikoa).

Pandemiaren ondoren kirol jardueran aldaketa handiagoak adierazi dituzte neskek (% 35), mutilek baino (% 22,5) (41. taula).

98. grafikoa Aldaketa eskola populazioaren kirol jardueran pandemiaren ondoren.



43. taula Aldaketa eskola populazioaren kirol jardueran pandemiaren ondoren, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

PANDEMIAREN ONDOREN KIROL JARDUERA ALDATU AL DUZU? (ERANTZUN KOP.: 1.526)			
		Bai	Ez
Guztira	Zenbaketa	432	1094
	%	% 28,3	% 71,7
GENEROA			
Neska	Zenbaketa	247	458
	%	% 35	% 65
Mutila	Zenbaketa	185	636
	%	% 22,5	% 77,5
PRESTAKUNTZA ZIKLOA			
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	59	197
	%	% 23	% 77
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	91	205
	%	% 30,7	% 69,3
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	99	218
	%	% 31,2	% 68,8
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	88	226
	%	% 28	% 72
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	95	248
	%	% 27,7	% 72,3

6.2. PANDEMIAREN ONDOREN KIROLA EGITEN HASI DIREN IKASLEEK GEHIEN EGINDAKO KIROL MODALITATEAK

Pandemiaren ondoren kirol jarduera egiten hasi den eskola populazioaren gaineko eragin positiboak aukera ematen du identifikatzeko zein diren populazio segmentu hori erakartzea lortu duten kirol modalitateak.

Gehiengoak tradizionalki egiten dituzten kirol modalitateak erakarri dute populazio segmentu hori (44. taula). Galdera honen erantzunen % 34,5 futbolarak, igeriketak eta saskibaloiak hartu dute.

Generoaren arabera (45. eta 46. taulak), aldakuntza bat gertatu da, modalitate lehenetsi modura neskek erakartzen dituen kirol modalitatea dantza delako, eta pandemiaren ondoren kirol bat egitea erabaki duten mutilen kasuan, berriz, futbola da.

44. taula Pandemiaren ondoren kirola egiten hasi diren ikasleek gehien egindako kirol modalitateak.

GUZTIRA	ZENBAKETA	IKASLEEN %	ERANTZUNEN %
Futbola	69	% 3,3	% 15,5
Igeriketa	50	% 2,4	% 11,2
Saskibaloia	34	% 1,6	% 7,6
Kirol anitza	31	% 1,4	% 6,9
Dantza	24	% 1,1	% 5,4
Atletismoa	19	% 0,9	% 4,2
Gimnasioa	14	% 0,6	% 3,1
Gimnastika erritmikoa	10	% 0,4	% 2,2
Txirrindularitza	9	% 0,4	% 2,0
Boleibola	7	% 0,3	% 1,5

45. taula Pandemiaren ondoren kirola egiten hasi diren neskek gehien egindako kirol modalitateak.

NESKAK	ZENBAKETA	NESKEN %	ERANTZUNEN %
Dantza	24	% 13,1	% 5,4
Igeriketa	23	% 12,6	% 5,1
Saskibaloia	21	% 11,5	% 4,7
Kirol anitza	19	% 10,4	% 4,2
Futbola	12	% 6,5	% 2,7
Atletismoa	10	% 5,4	% 2,2
Gimnastika erritmikoa	9	% 4,9	% 2,0
Gimnasioa	9	% 4,9	% 2,0
Boleibola	5	% 2,7	% 1,1

46. taula Pandemiaren ondoren kirola egiten hasi diren mutilen gehien egindako kirol modalitateak.

MUTILAK	ZENBAKETA	MUTILEN %	ERANTZUNEN %
Futbola	57	% 33,5	% 12,8
Igeriketa	27	% 15,8	% 6,0
Kirol anitza	12	% 7,0	% 2,7
Saskibaloia	11	% 6,4	% 2,4
Atletismoa	9	% 5,2	% 2,0
Karatea	6	% 3,5	% 1,3
Gimnasioa	5	% 2,9	% 1,1
Esku pilota	4	% 2,3	% 0,9


6.2.1. Pandemiaren ondoren kirola egiteko erabilitako espazioak

Pandemiaren ondoren kirola egiteari ekin dion populazioak kirola egiteko erabiltzen dituen espazioen artean udal kiroldegia (% 39,8) eta ikastetxea (% 20,6) gailentzen dira gainerako espazioen gainetik. Kaleak paper txikiagoa hartu du (% 11,7), gimnasio pribatuarekin (% 9,2) batera (99. grafikoa).

Pandemiaren ondoren kirola egiteari ekin diotenen kirola egiteko erabilitako espazioei dagokionez mutil eta nesken arteko konparazio analisisian (47. taula) desberdintasun nagusia gimnasioaren modalitatean ageri da. Neskak % 11,41ean gehitu dira gimnasioaren modalitatara; mutilen kasuan, datua % 6,8 da. Gainerako espazioetan erabilera ehunekoak an-

tzekoak dira nesken eta mutilen artean, baina esan daiteke mutilek ehuneko pixka bat handiagoak ditzutela ikastetxeen eta udal kiroldegien kasuan. Hala ere, esan behar da datu horien atzean ez daki/ez du erantzun aukeraren ehunekoa egon daitekeela.

99. grafikoa Pandemiaren ondoren hasitako kirola egiteko espazioak.



47. taula Pandemiaren ondoren hasitako kirola egiteko espazioak, generoaren, prestakuntza zikloaren eta adinaren arabera.

KIROL JARDUERA EGITEKO LEKUAK (ERANTZUN KOP.:) 359							
		Ikastetxea	Udal kiroldegia	Kalean	Gimnasio pribatuak	Espazio naturalak	Ez daki/ Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	74	143	42	33	20	47
	%	% 20,6	% 39,8	% 11,6	% 9,1	% 5,5	% 13,09
GENEROA							
Neska	Zenbaketa	34	69	21	21	9	30
	%	% 18,4	% 37,5	% 11,4	% 11,4	% 4,8	% 16,3
Mutila	Zenbaketa	40	74	21	12	11	17
	%	% 22,8	% 42,2	% 12	% 6,8	% 6,2	% 9,7
PRESTAKUNTZA ZIKLOA							
Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	55	75	5	18	7	7
	%	% 32,3	% 4,1	% 2,9	% 10,5	% 10	% 10
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	8	29	6	5	3	8
	%	% 13,5	% 49,1	% 10,1	% 8,4	% 5,08	% 13,5
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	6	18	12	1	1	14
	%	% 11,5	% 34,6	% 23,0	% 1,9	% 1,9	% 26,9
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	2	9	12	2	4	7
	%	% 5,5	% 25	% 33,3	% 5,5	% 11,1	% 19,4
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	3	12	7	7	5	11
	%	% 6,5	% 26,0	% 15,2	% 15,2	% 10,8	% 23,9


6.3. PANDEMIAREN ONDOREN HASITAKO KIROL ANTOLATUA

Pandemiaren ondoren kirol jarduera antolatuari buruzko datuak ikustean (100. grafikoa), zehazki Eskola Kirola programaren barruan, ikusten da ikasleen soilik % 23,9k hartu duela parte Eskola Kirolaren barruko kirol antolatuan. Datu horiek ez daki/ez du erantzun aukeraren ehunekoarekin aztertuz gero, zuhurtziaz hartu behar dira; izan ere, ehunekoa altua da, zehazki % 36,5koa; laginaren heren bat baino gehiago da.


Datu horiek generoaren arabera banatuz gero (101. grafikoa), datuek erakusten dute neskek ez dutela Eskola Kirola programaren barruan antolatutako jarduera horietan parte hartzeko joerarik; izan ere, parte hartzerik ezaren kasuan, nesken datua % 47,8koa da, eta mutilena, berriz, %30,8. Desberdintasun horiek Eskola Kirola programaren parte hartzean ere ikusten dira; mutilen parte hartzea % 30,3 da, eta nesken parte hartzea, berriz, % 17,9ra mugatzen da. Halaber, datu horien haritik, ez daki / ez du erantzun aukeraren ehunekoa oso altua da.

Eskola Kirola programaren barruko kirol jarduera berriari buruzko datuak modu estratifikatuan prestatuntza zikloekin lotuta aztertuta (102. grafikoa), ikusi da Lehen Hezkuntzako lehen bi zikloetan programak ezarpen handiagoa duela, % 28,6 lehen zikloan eta % 33,8 bigarren zikloan. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, programa horretan parte hartzeko datuak baxuak dira; bi zikloetan ez da % 20ra iristen.


100. grafikoa *Ikasleen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programaren esparruan egiten diren kirol jarduerak.*



101. grafikoa *Ikasleen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programaren esparruan egiten diren kirol jarduerak, generoaren arabera.*



102. grafikoa *Pandemiaren ondoren egiten hasi diren kirol jarduerak eta, ikasleen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programaren esparruan egiten direnak, prestatuntza zikloaren eta adinaren arabera.*



Baldin eta, bestalde, datuak ikastetxe moten arabera aztertuz gero (103. grafikoa), ikusten da ikastetxe pribatu eta itunpekoetan Eskola Kirola programa horretan parte hartzea handiagoa dela, % 26,26 eta % 21,11. Hala ere, beste datuak ere aintzat hartu behar dira; izan ere, bi ikastetxe motetan erantzunen heren bat baino gehiago ez daki/ez du erantzun aukera izan da. Eta itunpeko ikastetxe eta ikastetxe pribatuetan, galderari lotutako erantzun negatiboak 7 puntutan gainditzen du ikastetxe publikoetakoa.


Pandemiaren ondoren hasitako kirol jarduerak antolatzen dituzten entitateei dagokienez (48. taula), ikastetxeek, kirol klubek eta udal kiroldegiek hartzen dituzte ehunekorik handienak (% 22, % 23,1 eta % 20,3, hurrenez hurren).

Generoari dagokionez, ikastetxeen kasuan mutilek gehiago hartzen dute parte, ia 9 puntuko aldearekin. Kirol klubek kasuan, ehunekoetan aldea handiagoa da; izan ere, 13 puntuko aldea dago nesken eta mutilen artean (% 16,8 eta % 30,2, hurrenez hurren). Udal kiroldegien kasuan, nesken parte hartzea handiagoa da, 7 puntuko aldearekin (% 23,9 eta % 16,5, hurrenez hurren).

Prestakuntza zikloen arabera datuekin jarraituz, ikusi da Lehen Hezkuntzako zikloetan (6-12 urte),

pandemiaren ondoren hasitako kirol jarduerak kirol klubek antolatzen dituztela, eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloaren kasuan (6-8 urte) parte hartzearen ia % 60 izatera iritsi dira. Adinean aurrera egin ahala, ikastetxeek indarra galtzen dute; izan ere, Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) parte hartzea % 33,5 izatetik % 4ra jaitsi da Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte). Gainera, adinean aurrera egin ahala, gimnasioetan kirola egiteak gora egiten du; izan ere, Lehen Hezkuntzako lehen zikloan (6-8 urte) % 5,9 izatetik % 13,3ra igo da Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte).

103. grafikoa Pandemiaren ondoren egiten hasi diren kirol jarduerak eta, ikasleek arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programaren esparruan egiten direnak, titulartasunaren arabera.



48. taula Pandemiaren ondoren hasitako kirol jardueren entitate arduradunak, generoaren eta prestakuntza zikloaren arabera.

KIROL JARDUERAK NORK ANTOLATZEN DITU? (ERANTZUN KOP.: 359)

		Ikastetxea	Kirol kluba	Udal kirol-degia	Gimnasioa	Beste batzuk	Ez daki/ Ez du erantzun
Guztira	Zenbaketa	79	83	73	23	50	51
	%	% 22	% 23,1	% 20,3	% 6,4	% 13,9	% 14,2

GENEROA

Neska	Zenbaketa	32	31	44	15	30	32
	%	% 17,3	% 16,8	% 23,9	% 8,1	% 16,3	% 17,3
Mutila	Zenbaketa	46	53	29	8	20	19
	%	% 26,2	% 30,2	% 16,5	% 4,5	% 11,4	% 10,8

PRESTAKUNTZA ZIKLOA

Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (6-8 urte)	Zenbaketa	56	34	45	10	18	4
	%	% 33,5	% 59,8	% 26,9	% 5,9	% 10,7	% 2,3
Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa (8-10 urte)	Zenbaketa	14	17	9	3	9	7
	%	% 23,7	% 28,8	% 15,2	% 5,0	% 15,2	% 11,8
Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloa (10-12 urte)	Zenbaketa	6	13	6	3	4	20
	%	% 11,5	% 25	% 11,5	% 5,7	% 7,6	% 38,4
Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa (12-14 urte)	Zenbaketa	8	7	---	---	9	12
	%	% 22,2	% 19,4	---	---	% 25	% 33,3
Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa (14-16 urte)	Zenbaketa	2	12	6	6	10	8
	%	% 4,4	% 26,6	% 13,3	% 13,3	% 22,2	% 17,7

KIROL JARDUERA PANDEMIAREN ONDOREN

IDEIA NAGUSIAK

- * Pandemiaren ondoren kirola egiten duten mutilek zein neskek gora egin dute pandemiaren aurretik kirola egiten zutenekin alderatuta. Bereziki nesken artean (% 76,5etik % 92,2ra).
- * % 28,3k ez du kirol jarduera aldatu pandemiaren ondoren. Aldatu duten gehienak neskak dira (% 35).
- * Pandemiaren ondoren kirola egiten hasi direnek gehien egiten dituzten modalitateen artean daude futbola (% 15,5), igeriketa (% 11,2) eta saskibaloia (% 7,6).
- * Pandemiaren ondoren hasitako kirol jarduerarako gehien erabilitako espazioa udal kiroldegia da (% 39,8).
- * Kirol horren % 24 Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programari dagokio.







7. ONDORIOAK

7. ONDORIOAK



Bizkaiko eskola populazioaren % 90,5ek kirola egiten du. Datu horiek positiboak diren arren, beherakada arina izan dute 2017an egindako txostenarekin erkatuta. Horren ondorioz, kiroliek egiten ez duen taldeak gora egin du, %9,5. Horrez gain, txosten honetan bereizi egin dira kirola modu antolatuan egiten duten ikasleak eta antolatu gabeko kirola egiten duten ikasleak (modu librean edo espontaneoan). Hala, kirol jarduera antolatuak ikasleen jardun osoaren % 75,3 hartzen du; antolatu gabeko jarduera gainditzen du (% 67,5). Azken datu horrek aldaketa nabarmena dakar 2017. urtearekin alderatuta, orduan Bizkaiko ikasleen % 80k baino gehiagok kirola bere kontura egiten zuela adierazi baitzuen.

Kirola egiteko ikasleek aipatutako arrazoi nagusia kirola gustatzea da (% 86,8). Hala, ikasleen % 80k baino gehiagok azaldu du kirola egitea nahiko edo asko gustatzen zaiola. Datu horiek aurreko txostenaren ildo beretik doaz, eta kirola egiteari berezko balioa ematen diote, eta ez kanpoko etekin bat lortzeko tresna modura. Lehiaren gaineko zaletasunari dagokionez, aurreko txostenarekin erkatuta ez da aldaketarik egon. Hala, egiaztatu da lehiatzea gustuko duten ikasleen ehunekoak txikiagoa izaten jarraitzen duela kirola egitea gustatzen zaienen ehunekoarekin erkatuta (% 65,3). Halaber, kirola egitea zein lehia gustuko izatea oraindik ere handiagoak dira mutilen kasuan nesken kasuan baino.

Ikasleen gizarte ingurunea faktore garrantzitsua da kirola egiten hasteko eta jarraitzeko. Ikasleen lagunen % 92,4k kirola egiten du, baita neba-arreben eta/edo gurasoen % 65,8k ere. Amen ehuneko pixka bat baxuagoa da (% 56,4). Nabarmendu behar da ikasleen inguruko figura guztietan kirola egiteak gora egin duela aurreko txostenarekin erkatuta. Bidenabar, ikasleen ia % 90ek aitaren eta/edo amaren babesa jasotzen du kirola egiteko; datu horiek bat datoz aurreko txosteneko datuekin. Nabarmendu behar da irakasleen babesaren pertzepzioak gorakada arina izan duela 2017tik (% 37,9) gaur egunera arte (% 43,1).

KIROL JARDUERA ANTOLATUEK eskola populazioak eskola ordutegitik kanpo eta gutxienez astean behin egiten duen kirol jarduerak hartzen ditu barne, erakunde baten esparruan eta jarduera gidatu behar

duen pertsona arduradun baten zaintzapean. Kirol jarduera antolatuak ikasleen jardueraren % 75,3 hartzen du; datua 2017tik berdina mantentzen da.

Kirol jardueraren kasuan sexuen arteko desberdintasunari dagokionez, mutilen % 78,8k eta nesken % 71,7k kirol antolatuak egiten du. Datu horiek aldaketa txiki bat izan dute, nesken ehunekoak gora egin baitu eta mutilen ehunekoak, berriz, behera, 2017tik. Kirol antolatuak egitea egonkor mantentzen da Lehen Hezkuntzako zikloetan, eta behera egiten du Bigarren Hezkuntzako zikloetan. Emaiza horiek 2017ko joera bera mantentzen dute; Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara beherakada txikiagoa izan du (23 puntu 2017an eta 19,6 puntu 2022an).

Ikasleen ikastetxeen titulartasuna ere aldagai garrantzitsua da eta kirol jardueran eragina dauka. Kirol jardueraren ehunekoak oraindik ere handiagoak dira ikastetxe pribatu eta/edo itunduetan (% 77,2) publikoetan baino (% 72,8). Hala ere, bien arteko aldeak behera egin du 2017an 13 puntukoa izateatik 2022an 4 puntukoa izatera.

Eskola populazioaren % 90ek jarduera antolatu bat eta bi artean egiten ditu. Ikasleek batez beste egindako jarduera kopuruak beherakada arina izan du 2017. urtearekin alderatuta. Halaber, aurreko txostenean bezala, batezbestekoak behera egin du ikasleek prestakuntza zikloetan eta adinean aurrera egin ahala. Ikasleen iritziaren arabera, kirol antolatuen % 35,3 Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programakoak dira. Jardueren % 26,6 programa horretatik kanpokoak dira, eta % 38k azaldu du ez duela informazio horren berri. Datu horiek ez datoz bat aurreko txostenarekin, orduan azaldu zenez, Eskola Kirola programako jarduerak ehuneko handiagoa hartzen baitzuten, baina programatik kanpoko jardueren ehuneko ere handiagoa zen. Ikasleek informazio horren berri ez izateak nabarmen egin du gora (2017an % 19; 2022an % 38). Horrez gain, programa honi lotutako jarduera antolatuen ehunekoak nabarmenagoak dira Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (8-10 urte) eta, batez ere, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte). Posible da adinean aurrera egin ahala, ikasleek hobeto jakin eta ulertzea egiten dituzten kirol jarduerak nork antolatzen dituen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programari lotuta dauden. Informazio hori, agian, ulertzeko zailagoa da adinez gazteagoak direnentzat.

Modalitate hedatuenei dagokienez, oraindik ere gehien aukeratutakoak futbola (% 34,1), igeriketa (% 16,3) eta saskibaloia (%14) dira. Horrez gain, sexuak zenbait bereizketa egiten ditu modu antolatuan egiten diren jardueren motari dagokionez. Neskek igeriketa hautatzen dute jarduera lehenetsi modura (% 17,4). Bigarren aukerarik hautatuena saskibaloia da (% 11,7) eta hirugarrena, berriz, hainbat dantza mota (dantza modernoa, hip hop dantza, etab., % 9,6). Mutilen artean, aldiz, % 40,3k futbola aukeratu du, % 12,4k igeriketa eta % 5,1ek saskibaloia.

Kirol jarduerak antolatzen dituzten entitateei dagokienez, 2017an udal kiroldegiak (% 41,3) ziren nagusi, eta 2022an, berriz, udalerrietako kirol klubak dira ikasleen kirol jardueraren arduradunak (% 35,7).

Ikastetxeek bigarren postuan jarraitzen dute, aurreko ehuneko ere handituz (2017an % 25,6; 2022an % 33,5). Jardueren % 20,7 udal kiroldegiek antolatzen dituzte. Adinarekin, ikastetxeek garrantzia galtzen dute kirol klubak eta udal kiroldegien mesedetan. Azken horiek bereziki garrantzitsuak dira Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleen artean (12-14 urte).

Oro har, ikasleen kirol jardueraren maiztasunak behera egin du 2017. urtearekin alderatuta. Hala, astean 3-4 aldiz egiten zutenak % 54,3tik % 36,7ra jaitsi da. Kirola astean bi aldiz egiten dutenen ehuneko berdina mantendu da (% 19,3). Eta behera egiten du, halaber, kirola astean 5-6 aldiz egiten dutenen ehuneko, 2017an % 14 izatetik 2022an % 9,9 izatera.

Kirolari astean eskainitako denborak, orduan, behera egin du nabarmen 2017. urtearekin alderatuta. % 13,4k astean 5 ordu edo gehiago ematen ditu kirola egiten, aurreko txostenean baino 24,8 puntu gutxiago. Ikasleen % 15,4k astean 4 orduz egiten du kirola; 2017. urtearekin alderatuta 5 puntu egin du behera. Mutilek astero ordu gehiago ematen dituzte neskek baino kirola egiten. Eta, gainera, kirol jarduerak gora egiten du adinarekin. Joerak 2017an bezala jarraitzen du.

Entrenamenduen batez besteko iraupena 1 eta 3 ordu artean dago (% 46,8). Eta datu horrek 2017. urtearekin alderatuta behera egin duen arren (% 52,6), 4 eta 6 ordu artean (% 22,6) eta 6 ordu baino gehiago (% 5,9) entrenatzen direnen gaintik dago.

Hamar ikaslelik zazpi entrenatzen diren kirola egiten dute eskola ordutegitik kanpo (eskola aurretik edo ondoren, atsedendian, jantokiaren ondoren, asteburuetan edo oporretan). Datu hau garrantzitsua da, eskola kirol antolatuak talde horren kirol ohituretan duen eraginaz ohartarazten baitu, kirol jarduera baten gaineko zaletasuna finkatzen baitu, eta, azkenean, eguneroko aisialdian txertatzen du. Ohitura hau hedatuago dago mutilen artean, eta datuak 2017. urteko datuen oso antzekoak dira (2017an % 79,2 mutilak eta % 67,6 neskek; 2022an % 78,7 mutilak eta % 67,8 neskek). Horrez gain, aurreko txostenean ere gertatzen zen moduan, ohitura horrek behera egiten du adinarekin; Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte) beherakada nabarmenagoa du, orduan ere gertatzen zen moduan.

Kirol jarduera antolatuak egiten dituzten ikasleen % 57 lehiatu egiten da; ehuneko horrek behera egin du 2017. urtetik (% 71,7). Ehuneko honek, orduan bezalaxe, mutilen artean handiagoa izaten jarraitzen du (% 67,3) nesken kasuan baino (% 45,2). Lehiatzen diren ikasleen ehunekoak esponentzialki egiten du gora Lehen Hezkuntzako lehen ziklotik bigarrena, eta gorantz egiten du progresiboki Bigarren Hezkuntzako lehen ziklora arte (12-14 urte); orduan behera egiten hasten da. Maiztasunari buruzko datuek aurreko txostenaren ildo beretik doaz; astero maiztasunak du lehiaren ehunekorik handiena (% 79,3). Hala ere, lehiari eskainitako orduak gora egin dute, 2017an ordu bat izatetik 2022an bi ordu izatera.

Kirola egiteko pizgarri modura lehiaren garrantziak hazten jarraitzen du adinarekin, 2017an gertatzen zen moduan. Horrez gain, interesik handiena Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan dago oraindik ere (10-12 urte). Horrez gain, mutilen interesa handiagoa da neskena baino (3,6 eta 2,9, hurrenez hurren).

Eskola ikasleen % 26,7k, tarteka, zailtasunen bat antzematen du kirol antolatua egiten jarraitzeko. Datu horrek 20 puntu egin du behera 2017. urtetik. Horietatik, % 35,1ek lesioak edo osasunari lotutako arazoak izateko arriskua aipatu du kirola egitea mehatxatzen duen faktore nagusi modura. Horrez gain, beste jarduera batzuen ondoriozko nekea (ikasketak, etab. % 13) eta kirolean trebea

ez izatearen pertzepzioa (% 10,6) ere, tarteka, kirola egiten jarraitzea arriskuan jar dezaketen faktoreak dira. Mutilek neskek baino neurri handiagoan sentitzen dute osasun arazoak edo lesioak izateko arriskua. Hala ere, neskek kirola egiteko trebetasun falta handiagoa sentitzen dute kirola egiteko oztopo modura.

Oztopoen pertzepzioak gora egiten du adinarekin. Lehen Hezkuntzaren hirugarren ziklora (10-12 urte) igarotzea oraindik une kritikoa da, 2017an ikusi zen bezala. Hala ere, Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte) pertzepzio hori murriztu egiten da, eta berriz ere gora egiten du Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte). Hala, kirol jarduna uzteko arriskua bereziki 10 eta 16 urteen artean biltzen da. Egia da Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte) oztopoen pertzepzioa murriztu egiten dela, baina, jardunaren bilakaera ikusita, badirudi oztopoek badutela kirol jarduna uztea eragiteko aski garrantzi. Lehiak garrantzi gorenaren duen unearekin bat egiteaz gain, osasun afektio eta lesioak izateko arriskuaren pertzepzioak garrantzi handia du.

Horrez gain, 2017ko txostenean nabarmendu zen moduan (eta oraindik ere horrela da), ikasleek kirol antolatua egiten jarraitzeko mehatxu gisa batzuetan antzematen dituzten faktoreak ez dira egitura-zko oztopoak (garestia da, ez dago instalaziorik, ez dago plazarik, oso urrun dago...), horrek ez duelako zerikusirik eskola kirol antolatua egiteko erakunde publikoek ematen dituzten aukera edo baldintzekin, baizik eta ikasle bakoitzak une bakoitzean dituen inguruabar pertsonalekin. Horrez gain, txosten honetatik ondorioztatutako datu garrantzitsuetako bat da kirol antolatua egiten duten ikasleen % 91,4k datorren urtean ere kirola egiten jarraitzeko asmoa duela, 2017an gertatu zen moduan (% 91,6).

Hizkuntzari dagokionez, entrenatzaileek ikasleekin komunikatzeko gehien erabiltzen duten hizkuntza oraindik ere gaztelania da, beti (% 34,7) eta batez ere (% 16,2). Euskarak oso gertutik jarraitzen dio: beti (% 34,2) eta batez ere (% 14,9). Horrez gain, ikasleek irakasleekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzak ere joera berdina du. Gaztelania da beti (% 39) eta batez ere (% 15,8) erabiltzen duten hizkuntza. Ondoren euskararen erabilera dator: beti (% 33) eta batez ere (% 12).

ANTOLATU GABEKO KIROL JARDUNAK txosten honetan ikasleek eskola ordutegitik kanpo modu espontaneoan edo libreki egiten dituzten kirol jardueri egiten die erreferentzia, edozein antolaketa modutatik kanpo eta jardueraz arduratuko den heldu baten zaintzarik gabe. Bizkaiko ikasleen % 67,5ek kirola bere kontura egiten du. Datu horrek ia 12 puntu egin du behera 2017. urtetik.

Generoari dagokionez, antolatu gabeko kirola egitea hedatuago dago mutilen artean (% 68,7) nesken artean baino (% 66,2). Hala ere, bi sexuek kirol antolatua nahiago dute.

Antolatu gabeko kirol jardueraren bilakaerak kirol antolatua pareko joera izan du. Kirol antolatua egonkor mantendu izan da Lehen Hezkuntzan eta behera egin izan du Bigarren Hezkuntzan; antolatu gabeko kirol jarduerak, aldiz, presentzia handiagoa du Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan (8-10 urte), kirola modu librean egiten duten ikasleak % 70,4 izanik, eta hurrengo zikloetan beherakada arina hasten du.

Bizkaiko ikasleek haien kontura egiten dituzten kirol jardueren batezbestekoa desberdina da ikasleen prestakuntza zikloaren arabera. Ikasleen jardueren batezbestekoa 1etik gorakoa da 6 eta 10 urte artean dituztenean (1,44 eta 1,28, hurrenez hurren), eta beherakada nabarmena du 10 eta 12 urte artean (0,87); ondoren berreskurapen arina du Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan (12-14 urte) (0,9) eta berriz ere behera egiten du Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan (14-16 urte) (0,84). Bi sexueta gehien egindako hiru modalitateak berberak izan arren (futbola, txirrindularitza eta mendia), sexuak berriz ere desberdintasunak dakartza aukeraketan. Nesken artean txirrindularitza da gehien aukeratutakoa (% 15,3), eta ondoren dator mendia (% 11,9) eta futbola (% 7,7). Mutilek, aldiz, nagusiki futbola aukeratzeko dute (% 8,7), eta ondoren txirrindularitza (% 7,5) eta mendia (% 7,1). Jarduerak egiteko espazioei dagokionez, 2017an gertatzen zen bezala, ikasleen espazio gogokoenak espazio naturalak dira berriz ere (% 41,7).

Ikasleen % 30,4k lagunekin egiten du antolatu gabeko kirola; zifra horrek behera egin du 2017. urtearekin alderatuta, orduan datua % 38,8koa izan baitzen. Hala ere, kirola aitarekin egitea nahiago dute

ikasleen ehunekoak gora egin du (2017an % 17,7 zen eta 2022an % 29,3). Horrez gain, gora egin dute antolatu gabeko kirola bakarrik egitea nahiago duten ikasleen ehunekoak (2017an % 9,2 izatetik 2022an % 11,3 izatera).

Asteroko antolatu gabeko kirolak edo kirol jarraituak, hau da, egunero egiten denak, astero 3-5 egun artean edo astero behin edo birritan edo soilik asteburuetan egiten denak, antolatu gabeko kirol guztiaren % 51,9 hartzen du; nabarmen egin du behera 2017. urtearekin alderatuta (% 61,9). Bestalde, noizbehinkakoak (modu librean hamabost egunik behin, hilean behin, batez ere oporretan edo astean behin baino gutxiago egiten denak) % 33,7 hartzen du. 2017ko datuaren oso antzekoa da (% 36). Sexuen artean jarduera jarraitua da aukerarik ohikoena; mutilen kasuan astean behin edo bi aldiz, eta asteburuetan nesken kasuan. Neskek kirola noizbehinka egiteko joera ohikoagoa agertu dute mutilek baino (% 23,5 eta % 17, hurrenez hurren); mutilek antolatu gabeko kirol jarduera maizago egiteko joera jarraitzen dute (% 71,2; nesken kasuan % 60,2). Joera hori 2017ko txostenean ikusitakoaren berdina da.

Antolatu gabeko kirolaren asteroko dedikazio denbora ordubete baino gutxiagotik (% 22,3) bi ordu ingurura artekoa da (% 30,2). Horri dagokionez sexuen arteko desberdintasunak daude; nesken artean antolatu gabeko kirol jardueraren denbora tarteak laburragoak dira (ordubete baino gutxiago, bi ordu) mutilenak baino (bi ordu, bost ordu edo gehiago). Bost ordu edo gehiagoko dedikazioak alde

nabarmena agertu du sexuen artean; nesken artean % 10,9 eta mutilen artean % 24,7. Datuek 2017. urtetik behera egin duten arren, joera berbera jarraitzen dute; mutilek antolatu gabeko kirol ordu gehiago egiten dituzte. Bi ordu inguruko dedikazioa da aukerarik ohikoena Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ziklo guztietan. Hala ere, bost ordu baino gehiagoko aukerak igoera nabarmena izan du Bigarren Hezkuntzako zikloko ikasleen artean (12-16 urte). 2017ko ildo beretik doa, orduan ohartarazi zenez, etapa horretan kirol antolatuak behera egiteak eragin zezakeen 12-16 urte artekoen antolatu gabeko kirol jarduerak gora egitea.

2017an bezalaxe, ikasleek antolatu gabeko kirol jarduera asteburuetan biltzen jarraitzen dute. Hala, horretarako egunik ohikoena larunbata da (% 71), ondoren igandea (% 65,7) eta ostirala (% 38,7). Joera berdina da mutilen zein nesken kasuan. Baita Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ziklo guztietan ere.

Kirola haien kontura egiten jarraitzeko ikasleek antzemandako oztoporik garrantzitsuenek lotura daukate denbora faltarekin (% 26,6), osasun arazoekin (lesioak, gaixotasunak, etab. % 16,8) edo beste jarduera batzuen ondoriozko nekearekin (ikasketak, etab. % 15,3). Denbora falta mutilen zein nesken kezka iturri nagusia da. Aldaketa txiki bat izan du; izan ere, aurreko txostenean mutilen kezka nagusia lesioak edo gaixotasunak pairatzea izan zen. Horrez gain, kirol antolatuan gertatzen den moduan, eta aurreko txostenean bezalaxe, berriz ere berretsi da ez dagoela egitura motako oztoporik. Hala, kirol-

la haien kontura egiten jarraitzeko ikasleek antzematen dituzten zailtasunek ez daukate zerikusirik erakundeek eta inguruneak horretarako ematen dituzten baldintzekin, baizik eta ikasle bakoitzak bizi dituen inguruabar pertsonalekin.

Antolatu gabeko kirola egiten duen eskola populazioaren % 87,4k datorren urtean kirola horrela egiten jarraitzeko asmoa agertu du; datu hori aurreko txosteneko datuaren antzekoa da (% 88,3). Ehuneko horrek oso aldaketa txikiak ditu eskola etapa osoan; horrenbestez, pentsatzekoa da ikasleek etorkizunean kirola egiten jarraituko dutela.

Eskola populazioaren **KIROL JARDUERAREN INDIZEA** kalkulatzeko kontuan hartu da Bizkaiko ikasleek eskola ordutegitik kanpo antolatutako eta antolatu gabeko kirolari guztira eskaintzen dizkioten ordu kopurua. Kirol egiten ez duen populazioa aintzat hartu gabe, gora egin du populazio aktiboak eta modu moderatuan aktiboak den populazioak. Populazio sedentarioak ia % 5 egin du behera: % 18,6 izatetik 2022an % 13,7 izatera.

Ez modu antolatuan, ez bere kontura **KIROLIK EGITEN EZ DUEN ESKOLA POPULAZIOAK** eskola populazio osoaren % 9,5 hartzen du. Datu horrek gora egin du 2017tik, orduan kirol egiten ez zuen eskola populazioa % 4,4 baitzen. Horrez gain, aurreko txostenean gertatzen zen bezala, ehunekorik handiena neskek hartzen dute (% 5,5) mutilekin alderatuta (% 3,9).

Horrez gain, kirol egiten ezaren ehunekorik altuenak Bigarren Hezkuntzaren bukaeran ageri dira oraindik ere (% 2,5), eta, horrenbestez, kirol abandonuen tasarik altuena ere orduan gertatzen da, aurreko txostenean adierazi zen moduan.

PANDEMIAREN ONDORENGO KIROL JARDUERAK COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz ikasleen kirol ohituren aldaketei buruzko informazioa eman du. Datuek erakutsi dutenez, pandemiaren ondoren kirol jarduerak gora egin du, % 15 (pandemiaren aurretik kirola egiten zuten ikasleak % 78,7 ziren, eta pandemiaren ondoren kirola egiten duten ikasleak % 93,8). Datu hori pixka bat altuagoa da nesken artean (% 15,7) mutilen artean baino (% 14,7). Horrez gain, pandemiak aldaketak ekarri ditu ikasleen kirol ohituretan. Pandemiaren ondoren kirol modalitatea aldatu duela adierazi du % 28,3k. Horrez gain, jarduera batez ere neskek aldatu dute (% 35), mutilekin konparatuta (% 22,5). Pandemiaren ondoren kirolen bat egiten hasi diren ikasleen artean, haien arabera, % 23,9k Bizkaiko Foru Aldundiaren Eskola Kirola programaren esparruan egin du, % 39,5k esparru horretatik kanpo eta % 36,4k ez du informazio horren berri.



8. ERREFERENTZIAK

8. ERREFERENTZIAK



- Aparicio-Ugarriza R, Mielgo-Ayuso J, Ruiz E, Ávila JM, Aranceta-Bartrina J, Gil Á, Ortega RM, Serra-Majem L, Varela-Moreiras G, González-Gross M. Active Commuting, Physical Activity, and Sedentary Behaviors in Children and Adolescents from Spain: Findings from the ANIBES Study. *International Journal of Environmental Research and Public Health*. 2020; 17(2):668. <https://doi.org/10.3390/ijerph17020668>
- Besolí, G., Palomas, N., & Chamarro, A. (2018). Uso del móvil en padres, niños y adolescentes: Creencias acerca de sus riesgos y beneficios. *Aloma: Revista de Psicología, Ciències de l'Educació i de l'Esport*, 36(1), 29-39.
- Castañeda-Babarro, A., Coca, A., Arbillaga-Etxarri, A., y Gutiérrez-Santamaría, B. (2020). Physical activity change during COVID-19 confinement. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 17(18), 1-10. <https://doi.org/10.3390/ijerph17186878>
- Kirol Kontseilu Gorena (CSD). (2011). Los hábitos deportivos de la población escolar en España. CSD.
- De Cózar, Paula Cecilia del Río. Association of physical fitness, physical activity and sedentary behaviors with positive and negative affect in children and adolescents. Egoera fisiko, jarduera fisiko eta sedentarismoaren arteko lotura haur eta nerabeen atxikipen positibo eta negatiboan. 2020. Doktorego tesia. Cádizko Unibertsitatea.
- Eusko Jaurlaritzak. (2022ko urriaren 24a). Global Matrix 2.0: zalantzarik gabe GEHIAGO EZAGUTU BEHAR DUGU. <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2022/global-matrix-4-0-sin-lugar-a-dudas-necesitamos-conocer-mas/>
- Gómez, S.F., Lorenzo, L., y Ribes, C. (2019). PASOS 2019 azterketaren emaitza nagusiak, Espainiako 8-16 urte arteko populazioaren obesitateari, jarduera fisikoari eta bizitza estiloei buruzkoa. Gasol Foundation Europa. <https://cpcisneros.es/wp-content/uploads/Estudio-PASOS-2019.pdf>
- Janssen, I.; Leblanc, A.G. Systematic review of the health benefits of physical activity and fitness in school-aged children and youth. *Int. J. Behav. Nutr. Phys. Act.* 2010, 7, 40.
- Olivo. (2012). El sedentarismo un problema de salud pública. *Salud Social de la Escuela de Medicina de la Universidad Centroccidental Lisandro Alvarado UCLA de Barquisimeto, Venezuela*, 16.
- Mielgo-Ayuso, J.; Aparicio-Ugarriza, R.; Castillo, A.; Ruiz, E.; Ávila, J.M.; Aranceta-Bartrina, J.; Gil, A.; Ortega, R.M.; Serra-Majem, L.; Varela-Moreiras, G.; et al. Physical Activity Patterns of the Spanish Population Are Mostly Determined by Sex and Age: Findings in the ANIBES Study. *PLoS ONE* 2016, 11, e0149969.
- Muñoz-Miralles, R., Ortega-González, R., Batalla-Martínez, C., López-Morón, M. R., Manresa, J. M., & Torán-Monserrat, P. (2014). Acceso y uso de nuevas tecnologías entre los jóvenes de educación secundaria, implicaciones en salud. *JOITIC azterketa. Arreta goiztiarra*, 46(2), 77-88.
- Poitras, V.J.; Gray, C.E.; Borghese, M.M.; Carson, V.; Chaput, J.P.; Janssen, I.; Katzmarzyk, P.T.; Pate, R.R.; Connor-Gorber, S.; Kho, M.E.; et al. A systematic review of the relationships between objectively measured physical activity and health indicators in school-aged children and youth. *Appl. Physiol. Nutr. Metab.* 2016, 41 (Suppl. 3), S197-S239.
- Schoeppe, S.; Duncan, M.J.; Badland, H.; Oliver, M.; Curtis, C. Associations of children's independent mobility and active travel with physical activity, sedentary behavior and weight status: A systematic review. *J. Sci. Med. Sport* 2013, 16, 312-319
- World Health Organization. *Global Recommendations on Physical Activity for Health*. 2010. Available online: <http://www.who.int/dietphysicalactivity/publications/9789241599979/en/> (accessed on 15 December 2016).





 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral